

Euskadiko gazteen panoramika: adierazle nagusien azterketa

Lehen atala

EUSKADIKO GAZTEEN
INGURUKO BEGIRADA
SOZIODEMOGRAFIKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintzarako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud

KOORDINATZAILEA:

BAKARNE ZUAZUA ASTARLOA

EGILEA:

XOSÉ ELÍAS TRABADA CRENDE

LAGUNTZAILEA (ADIERAZLEAK):

AINARA ITURBURU

AURKIBIDEA

0. SARRERA	4
I. BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA DENTSITATEA.....	6
1.1. Euskadi eta Espainia	7
1.2. Lurralde historikoak	11
1.3. Eskualdeak.....	15
1.4. Ondorioak	22
II. EGITURA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDE HANDIEN ARABERA	25
2.1. Euskadi eta Espainia	27
2.2. Lurralde historikoak	32
2.3. Eskualdeak.....	37
2.4. Ondorioak	50
III. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK	53
3.1. Euskadi eta Espainia	54
3.2. Lurralde historikoak	57
3.3. Eskualdeak.....	61
3.4. Ondorioak	68
IV. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA ZIBILA	72
4.1. Euskadi eta Espainia	73
4.2. Lurralde historikoak	77
4.3. Eskualdeak.....	81
4.4. Ondorioak	88

V. JAIOTZA-TASA ETA UGALKORTASUNA..... 91

5.1. Euskadi eta Espainia	94
5.2. Lurralde historikoak	103
5.3. Eskualdeak	108
5.4. Ondorioak	113

VI. ATZERRIKO BIZTANLERIA 118

6.1. Euskadi eta Espainia	122
6.2. Lurralde historikoak	127
6.3. Eskualdeak.....	134
6.4. Ondorioak	143

VII. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OSASUNA..... 149

7.1. Euskadi eta Espainia	152
7.2. Lurralde historikoak	174
7.3. Ondorioak	194

VIII. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN HILKORTASUNA 202

8.1. Euskadi eta Espainia	205
8.2. Lurralde historikoak	212
8.3. Ondorioak	219

BIBLIOGRAFIA.....221

0. SARRERA

Txosten honetan, Gazteen Euskal Behatokiaren aginduz moldatu den *'Euskal gazteriaren inguruko begirada soziodemografikoa'* izeneko Azterlan Kuantitatiboaren emaitzak jaso dira. Lana osatzeko garaian, elkarren osagarri diren bi ikerkuntza-metodoz baliatu gara:

a) *Metodo dokumentala*: bigarren mailako hainbat iturrik ekoizitako informazio estatistiko¹ eta bibliografikoa bilatu, bildu eta aztertzea.

b) *Azterketa distributiboa*: eskura izan dugun informazio estatistikoa esker posible izan den heinean, bigarren mailako iturrietatik datozen datu ofizialetan oinarritutako hainbat adierazle kuantitatibok 1981. eta 2005. urteen artean izan duten bilakaera aztertu da. Zenbait lurralde-maila aintzat hartuta egin da azterketa, hara:

- EAE eta Espainiako estatu osoa elkarrekin alderatu dira.
- EAEko 3 lurralde historikoak alderatu dira.
- Euskadiko 20 eskualdeak alderatu dira.

Azterlan Kuantitatibo honetan, hainbat aldagai soziodemografiko jorratu dira eta lana 8 kapitulutan egituratu da. Kapitulu horietako bakoitzaren amaieran, daturik esanguratsuenak jasotzen dituzten ondorioak agertzen dira. Hona hemen kapituluak, zehazturik:

- I. BILAKAERA ETA DENTSITATE DEMOGRAFIKOA
- II. EGITURA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDE HANDIEN ARABERA
- III. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK
- IV. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA ZIBILA

¹ Erabilitako informazio estatistikoa bi organismo publikotatik dator, batik bat:

- Estatistikako Euskal Institutua (EUSTAT): www.eustat.es

- Estatistikako Institutu Nazionala (INE): www.ine.es

- V. JAIOTZA-TASA ETA UGALKORTASUNA
- VI. ATZERRIKO BIZTANLERIA
- VII. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OSASUNA
- VIII. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN HILKORTASUNA

Honenbestez, espero dezagun jendeak Azterlan Kuantitatibo hau irakurtzea eta lana Gazteen Euskal Behatokiari ez ezik, EAEko gizarteari eta euskal gazteriarekiko interesa duten erakundeei ere baliagarri gertatzea.

I. BIZTANLERIAREN BILAKAERA ETA DENTSITATEA

1981. urtean Euskadin bizi zen biztanleriak goia jo zuen (2.141.809 lagun), 1959tik 1975era bitartean bizi izan genuen *Garapen-aldia* izeneko hartan, industrializazio eta urbanizazio prozesu sozioekonomikoak eta *baby boom* fenomeno demografikoa uztartu zirelako. 1959ko Egonkortze Planak ekonomiaren hazkunde-prozesuaren etapa berri bati eman zion hasiera Espainiako estatuan, Administrazio Publikoek gidatu eta babesturiko kapitalismo-eredu baten arabera. Munduko Bigarren Gerraren ostean, Marshall Planak (AEBek 1948an hasitako Europa Suspertzeko Programa) bultzaturik sortu zen Munduko Merkatuarekiko harremanetan, Espainia geroz eta sakonago txertatzea izan zen ereduaren oinarrian. Falangeak agindutako autarkiak porrot egin ondoren *Opus Deko* teknokratek erregimen frankistan bertan sustatu zuten politika ekonomikoaren aldaketa hark sekulako kapital, baliabide material eta jende pilaketa sorrarazi zuen hainbat herri eta hiritan (*garapen-poloak*) eta, horren eraginez, landa-giroko biztanle askok etxea utzi eta hirira emigratu behar izan zuten eta Espainian hiria eta landa-ingurunearen arteko betidaniko desoreka berriro ere areagotu zen². *Garapena* bultzatzen zuen testuinguru sozioekonomiko horretan, euskal itsasaldeko hiri industrialek eta horien inguruetako nukleoek Euskadiko barnealdeko herrietatik baina, batez ere, Espainiako beste erkidego batzuetatik zetozen etorkin-uholdeak hartu zituzten³.

Horrekin batera, *baby boom* fenomeno gertatu zen, haurren hilkortasun-tasa apalak eta ugalkortasun eta jaiotza-tasa garaiak izan zirelako une berean. *Nekazari-exodoaren* fluxuak hartu zituzten Espainiako autonomi erkidegoetan, askoz eragin demografiko handiagoa izan zuten fenomeno horiek, ugalkorrak ziren kohorteetan, kideak urterik urte biderkatuz joan baitziren etengabe, euskal hirietan gertatu bezala.


² Moral Santín, J. eta beste (1981): Crecimiento económico y crisis estructural en España (1959–1980). Akal Textos, Madril.

³ Pedro Picavea Salbide: La población del País Vasco: pasado, presente y futuro. Idazlan honen ondorioetan autoreak honela azpimarratu du: "EAEn bi eredu desberdin bizi dira elkarrekin: itsasaldekoa bata, barnealdekoa bestea, eta bataren eta bestearen ezaugarriak elkarren kontrakoak dira, funtsez. Lehenak, dinamikoa, XX. mendearen hasieratik hazkunde-tasa garaiak nozitu ditu; bigarrena berant sartu da modernizazio prozesuan."

Prozesu sozioekonomiko eta fenomeno demografiko horiek uztartzearen ondorioz, 1950etik 1981era bitartean Euskadiko biztanleria bikoiztu egin zen: 1.039.465 lagun izatetik 2.141.809 izatera heldu zen (%106,1eko gehikuntza, alegia). Espainiako estatuko gehikuntza, berriz, biziki apalagoa izan zen: %33,8 (1950. urtean 28.172.268 lagun bizi ziren bertan eta 1981ean, berriz, 37.683.362)

1.1. Euskadi eta Espainia

Euskadiko biztanleriak duela gutxi izan duen bilakaerari dagokionez, 2005eko urtarrilaren 1eko datu ofiziala (2.124.846 biztanle, Udal-eroldaren Berrikuntzaren arabera) eta 1981ekoa (2.141.809 biztanle) konparatzean, ia bere horretan mantendu dela hautematen dugu, biztanleria egoiliarra oso mantso doalako gutxitzen (%-0,8 baino ez). Geldialdi hori, ordea, ez da Espainiako estatuan gertatu, bertan biztanleria dezente ugaltu baitzen (%17,3). Bi dinamika demografiko desberdin ikusten dira, beraz: *zero hazkundera Euskadin eta bilakaera progresiboa Espainian.*



Dena dela, arestiko bilakaeran, hau da 2001etik 2005era, joera aldaketa esanguratsua atzematen da, Euskadiko biztanleria %2,03 hazi delako, baina Espainiako batez bestekoaren azpitik (%7,28).Euskadikoaren 3,6 halako izan da:

BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE (1981=100)

	1981	1986	1991	1996	2001	2005	2005/2001
EAE	2.141.809	2.136.100	2.104.041	2.098.055	2.082.587	2.124.846	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	99,73	98,24	97,96	97,23	99,21	2,03
Espainia	37.683.362	38.473.418	38.872.268	39.669.394	41.116.842	44.108.530	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	102,10	103,15	105,27	109,11	117,05	7,28

Iturria: EUSTAT eta INE

Zeren ondorio da Euskadiko joera aldaketa mesedegarri hori? Atzerriko etorkinena, batez ere: 2001eko Biztanleriaren Zentsuan 31.168 atzerritar zeuden erroldatuta eta 2005eko urtarrilaren 1eko Udal-erroldaren Berrikuspenean, aldiz, 72.894 atzerritar agertzen dira. Beraz, %133,87ko hazkundera egon da; termino absolutuetan adierazita +41.726 atzerritar gehiago. 2005eko urtarrilean erroldatutako lagunekin (2.124.846) alderatuta, 2001. urtean erroldatutako biztanlerian (2.082.587 lagun) egon den +42.259 laguneko gehikuntza ia osoaren zergatia erakusten du horrek guztiak. Esan behar da %133,87ko gehikuntza hori Estatu osoan atzerritarrek epe berean eragin zutena (%137,31) baino apalxeagoa dela. Euskadiko biztanleen artean atzerritarren ehunekoa (%3,4) Espainiako estatuan dagoena baino dezente urriagoa da (%8,5).


Ondoren, lurraldearen azalera eta biztanleriaren arteko erlazioa aztertuko dugu. Euskadiren azalera Espainiako estatuarenaren %1,43 da eta biztanleria (2005eko urtarrilean) %4,82. Biztanleriaren karga handiago horren ondorioz, Euskadiko dentsitatea askoz ere handiagoa da: 2005. urtearen hasieran, 290,83 biztanle zeuden km²-ko Euskadin eta 76,82 biztanle km²-ko Espainian. Bestela esateko, Euskadiko dentsitate demografikoa Espainiaren batez bestekoaren ia lau halakoa da (3,7 aldiz handiagoa baita).

BIZTANLERIAREN DENTSITATEA 1981ean, 1991n eta 2005-I-1ean: BIZTANLE-KOPURUA
km²-ko

	<i>Azalera km2</i>	<i>Biztanleria 1981</i>	<i>Biztanleria 1991</i>	<i>Biztanleria 2005</i>	<i>Diferentzia 2005 - 1981</i>
EAE	7.234,50	2.141.809	2.104.041	2.124.846	-16.963
<i>Dentsitatea</i>		296,05	290,83	293,71	-2,34
Espainia	506.030,00	37.683.362	38.872.268	44.108.530	6.425.168
<i>Dentsitatea</i>		74,47	76,82	87,17	12,70

Iturria: EUSTAT eta INE


1981. urteko dentsitate demografikoarekin alderatuta (orduantxe iritsi zen Euskadiko biztanleria gailur historikora), 2005eko urtarrilean, dentsitate demografikoak pitin bat behera egin du (-2,34 biztanle km²-ko); estatu osoan, berriz, handitu egin da (km²-ko 12,70 biztanle gehiago). Denbora-erreferentzia 1991. urtean ezarriz gero, berriz, EAEn biztanleriaren dentsitatea pitin bat hazi dela ikusiko dugu (2,88 biztanle km²-ko); dena den, Espainia osoan izandako hazkundera (10,35 biztanle km²-ko) baino askoz urriagoa da hori.



1.2. Lurralde historikoak

Ondoren, EAEko hiru lurralde historikoetan 1981etik 2005era biztanleriak nozitutako bilakaerari erreparatuko diogu bereziki. Araban bakarrik ugaldtu da biztanleria, aski ehuneko esanguratsuan (%16,33), gainera. Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, biztanleria pitin bat jaitsi da (%-4,46 Bizkaian) edo bere horretan gelditu da (%-0,86 Gipuzkoan). Beraz, Bizkaian biztanleria handiena 1981ean izan zuen (1.189.278 biztanle) eta geroztik behera ari da: 2005eko urtarrilean 1.136.181 lagun zituen erroldatuta. Gipuzkoan ere biztanleria pitinka behera doa: 694.681 lagun zituen 1981ean eta 688.708 lagun 2005eko urtarrilean. Araba, aldiz, etengabe gora joan da aztertutako aldi oso honetan (257.859 biztanle 1981ean eta 299.957 lagun 2005. urtearen hasieran). Beraz, 1981etik 2005eko urtarrilera bitartean, lurralde-aldaketa nabarmena gertatu da: euskal kostaldeko bi lurralde historikoek biztanleria erakartzeko gaitasuna galdu dute, Arabaren mesedetan. Horren arrazoiak, hein batean, hurrengo hauek dira:

- Bizkaia eta Gipuzkoako itsasaldeko herrietako, industriguneetako eta gertuko lo-hirietako hazkunde demografikoa areagotu zuen *Garapen-aldian* zehar (1959-1975) hedaturiko eredu ekonomikoaren ahitze eta egiturazko krisia.
- 70eko hamarkada amaitzean, *Garapen-aldian* gehien hazi ziren hiri industrialetan eta lo-hiri ziren auzo pobreetan 'hiri-krisialdi' sakona hauteman zen. Beste horrenbeste gertatu zen Bilbo Handian ere eta, horrenbestez, bertako biztanleen bizi-kalitatearen gaineko ondorio kaltegarriak agertu ziren: ingurugiroa kutsatzea, azpiegitura eta ekipamendu kolektiboen gabeziak, gehiegizko dentsitate demografikoa, espazio publikoen endekapena, etxebizitzaren arazoa, hiri-segurtasunik eza, etab. 'Hiri-krisialdia' lehen mailako faktorea izan da Bizkaia eta Gipuzkoako industriguneek eta lo-hiriek nozitu duten gainbehera demografikoa elikatzeko. Aldi berean, Arabaren mesedetarako izan den 'hiri-bakantze' fenomeno bilakatu da pixkanaka.



- Ekonomiak hirugarren sektorerantz egitea eta, aldi berean, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak (IKT) sartuz, Informazioaren Gizarteak aurrera egitea, harreman sozioekonomikoak etengabe globalizatzen ari direnean. Kontsumoaren eta industrializazioaren osteko gizarte dinamizatzen duten prozesuetan Araba arrakasta handiagoz sartu dela pentsa daiteke; Bizkaia eta Gipuzkoa, berriz, *Garapen-alditik* ekarritako egitura sozioekonomikoen krisi eta berregituratze prozesuetan murgilduak egon dira bitartean.
- Ekonomiak hirugarren sektorerantz egiteari dagokionez, administrazio publikoetako departamentuak eta horiekin loturiko zerbitzu-enpresa pribatuak toki jakinetan kokatzeak rol esanguratsua bete izan du, biztanleria lurralde batean finkatzeko

garaian. Adiera horretan, Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa Gasteizen kokatzeak biziki lagundu du Arabako biztanleriaren hazkunderan.

BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE, LURRALDE HISTORIKOETAN (1981=100)

LH	1981	1986	1991	1996	2001	2005	2005/2001
Araba	257.850	267.728	272.447	281.821	286.387	299.957	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	103,83	105,66	109,30	111,07	116,33	4,74
Bizkaia	1.189.278	1.179.150	1.155.106	1.140.026	1.122.637	1.136.181	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	99,15	97,13	95,86	94,40	95,54	1,21
Gipuzkoa	694.681	689.222	676.488	676.208	673.563	688.708	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	99,21	97,38	97,34	96,96	99,14	2,25

Iturria: EUSTAT

XXI. mendea hastean, berriz, Bizkaia eta Gipuzkoan joera-aldaketa nabarmendu da, bertako demografiak ugaltzen hasi diren aldetik: 2001etik 2005eko urtarrilera arte, Bizkaiko biztanleria %1,21 hazi da eta Gipuzkoakoa %2,25. Gehikuntza horiek Arabakoa (%4,74) baino dezente txikiagoak badira ere, azpimarra dezagun euskal kostaldeko bi lurralde historikoak berriro sartu direla hazkunde-dinamikan.


Biztanleriaren dentsitateari dagokiola, demografiaren bilakaera atzerakorrak dentsitatea ere atzeraka doala esan nahi du, noski: 1981etik 2005eko urtarrilera arte adierazle hori, km²-ko, -23,95 biztanletan jaitsi da Bizkaian eta -3,02 biztanletan Gipuzkoan. Araban, berriz, dentsitatea 13,86 biztanletan gehitu da, km²-ko. Dena den, jaitsiera horiek gorabehera, Bizkaiko eta Gipuzkoako biztanleriaren dentsitateak (512,49 eta 347,78) Arabakoa baino askozaz ere handiagoak dira (98,76): Bizkaikoa 5,2 aldiz handiagoa eta Gipuzkoakoa 3,5 aldiz handiagoa, hain zuzen. Horrek guztiak erakusten digu biztanleriaren lurralde-banaketa desberdina dela.

BIZTANLERIAREN DENTSITATEA 1981EAN, 1991N ETA 2005EAN: BIZTANLE-KOPURUA km²-KO

LH	Azalera km2	Biztanleria 1981	Biztanleria 1991	Biztanleria 2005	Diferentzia 2005 - 1981
Araba	3.037,2	257.850	272.447	299.957	42.107
<i>Dentsitatea</i>		84,90	89,70	98,76	13,86
Bizkaia	2.217,0	1.189.278	1.155.106	1.136.181	-53.097
<i>Dentsitatea</i>		536,44	521,02	512,49	-23,95
Gipuzkoa	1.980,3	694.681	676.488	688.708	-5.973
<i>Dentsitatea</i>		350,80	341,61	347,78	-3,02

Iturria: EUSTAT

Ondoko grafikoan ikus daitekeenez, hiru lurralde historikoetan biztanleria desberdin banatuta dago: Arabako azalera Euskadikoaren %41,98 izanik, 2005. urtearen hasieran eroldaturiko biztanleria osoaren %14,12 baizik ez da bertan bizi. Bizkaiko azalera, berriz, Euskadikoaren %30,65 da, baina bertako biztanleria Euskadiko guztiaren %53,47. Gipuzkoak bi aldagai horien arteko oreka handiagoa erakusten du: EAEko azaleraren %27,3 eta euskal biztanleriaren %32,41.



1.3. Eskualdeak

Euskadiko hogei eskualdeez ari garela, 1981etik 2005eko urtarrilera arte, biztanleriaren bilakaera positiboa izan da horietako zortzitan. Hara:


- Arabako Ibarak : %21,84
- Arabako Lautada : %19,61
- Bidasoa Beherea : %16,59
- Durangaldea : %2,07
- Errioxa Arabarra : %11,83
- Gorbeia Inguruak : %34,73
- Plentzia-Mungia: %44,95
- Urola-Kostaldea : %11,93

Eskualde batean, biztanleria mantendu egin da 1981etik 2005eko urtarrilaren 1era arte:

- Donostialdea : %0,26

Biztanleriak behera egin du 1981etik 2005. urtearen hasierara arte, honako 11 eskualdetan:

- Arabako Mendialdea : %-13,03
- Arratia Nerbioi : %-1,43
- Bilbo Handia : %-6,96
- Deba Beherea : %-18,62
- Deba Garaia : %-8,05
- Enkartzioak : %-3,52
- Gernika-Bermeo: %-2,93
- Goierri: %-8,30
- Kantauri Arabarra : %-2,35
- Markina-Ondarroa: %-7,30
- Tolosaldea : %-2,62



BIZTANLERIAREN BILAKAERA, ESKUALDEZ ESKUALDE, 1981ETIK 2005 ARTE
(1981=100)

Eskualdeak	1981	1986	1991	1996	2001	2005	2005/2001
Arabako Ibarrak	4.267	4.160	3.886	4.134	4.681	5.199	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	97,49	91,07	96,88	109,70	121,84	11,07
Arabako Lautada	200.600	209.997	216.417	225.147	228.991	239.943	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	104,68	107,88	112,24	114,15	119,61	4,78
Arabako Mendialdea	3.645	3.533	3.197	3.140	3.092	3.170	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	96,93	87,71	86,15	84,83	86,97	2,52
Arratia Nerbioi	22.291	21.843	21.275	21.128	21.262	21.972	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	97,99	95,44	94,78	95,38	98,57	3,34
Bidasoa Beherea	64.714	67.085	66.800	69.668	71.645	75.448	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	103,66	103,22	107,66	110,71	116,59	5,31
Bilbo Handia	936.848	926.949	905.468	887.977	865.799	871.616	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	98,94	96,65	94,78	92,42	93,04	0,67
Deba Beherea	66.569	63.201	59.936	56.857	54.228	54.175	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	94,94	90,04	85,41	81,46	81,38	-0,10
Deba Garaia	67.136	66.356	65.109	63.562	62.010	61.733	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	98,84	96,98	94,68	92,36	91,95	-0,45
Donostialdea	317.863	315.759	309.926	313.093	311.398	318.685	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	99,34	97,50	98,50	97,97	100,26	2,34
Durangaldea	90.912	91.812	90.660	90.232	90.495	92.796	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	100,99	99,72	99,25	99,54	102,07	2,54
Enkartzazioak	31317	30702	29.680	29.791	29.663	30.215	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	98,04	94,77	95,13	94,72	96,48	1,86
Errioxa Arabarra	9.559	9.788	9.391	9.658	10.011	10.690	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	102,40	98,24	101,04	104,73	111,83	6,78
Gernika-Bermeo	46.234	46.077	45.240	44.402	44.110	44.881	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	99,66	97,85	96,04	95,41	97,07	1,75
Goierri	70.293	69.030	66.559	64.566	63.510	64.460	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	98,20	94,69	91,85	90,35	91,70	1,50
Gorbeia Inguruak	5.696	5.519	5.340	6.000	6.892	7.674	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	96,89	93,75	105,34	121,00	134,73	11,35
Kantauri Arabarra	34.083	34.731	34.216	33.742	32.720	33.281	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	101,90	100,39	99,00	96,00	97,65	1,71
Markina-Ondarroa	28.132	28.396	27.301	26.683	26.095	26.078	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	100,94	97,05	94,85	92,76	92,70	-0,07
Plentzia-Mungia	33.544	33.371	35.482	39.813	45.213	48.623	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	99,48	105,78	118,69	134,79	144,95	7,54
Tolosaldea	46.696	45.965	44.996	44.289	44.344	45.471	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	98,43	96,36	94,85	94,96	97,38	2,54
Urola-Kostaldea	61.410	61.826	63.162	64.173	66.428	68.736	
<i>Aldakuntza</i>	100,00	100,68	102,85	104,50	108,17	111,93	3,47
EAE	2.141.809	2.136.100	2.104.041	2.098.055	2.082.587	2.124.846	

Aldakuntza	100,00	99,73	98,24	97,96	97,23	99,21	2,03
------------	--------	-------	-------	-------	-------	-------	------

Iturria: EUSTAT

2001etik 2005eko urtarrilera arteko epeari goazkiola, berriz, biztanle kopuruak gora egin du eskualde gehienetan, 17tan zehazkiago. Arabako Ibarretan (%11,07) eta Gorbeia Inguruetan (%11,35) gertatu diren gehikuntzak dira azpimarragarrienak. Gainerako hiruretan, biztanleria ia bere horretan mantendu da, berez oso gutxi jaitsi baita: Deba Beherean (%-0,10), Deba Garaian (%-0,45) eta Markina-Ondarroan (%-0,07).

Biztanleriaren dentsitatearen bilakaeraz adieraz dezagun 1981. eta 2005. urteen artean 9 eskualdetan igo egin dela eta hazkunde txikiena Arabako Ibarretan gertatu dela (1,44 biztanle km²-ko) eta handiena, berriz, Bidasoa Beherean (149,92 biztanle km²-ko):

- Arabako Ibarretan : 1,44
- Arabako Lautada : 50,16
- Bidasoa Beherea : 149,92
- Donostialdea : 2,70
- Durangaldea : 5,94
- Errioxa Arabarra : 3,58
- Gorbeia Inguruak : 4,89
- Plentzia-Mungia: 69,84
- Urola-Kostaldea : 22,58

Gainerako 11 eskualdeetan dentsitate demografikoa urritu egin da. Nabarmentzekoak dira Bilbo Handian (-178,82 biztanle km²-ko) eta Deba Beherean (-68,25 biztanle km²-ko) gertatu diren jaitsierak.

- Arabako Mendialdea : -0,99
- Arratia Nerbioi : -0,80
- Bilbo Handia : -178,82
- Deba Beherea : -68,25
- Deba Garaia : -15,76
- Enkartzioak : -2,57
- Gernika-Bermeo: -4,83
- Goierri: -16,60

- Kantauri Arabarra : -2,41
- Markina-Ondarroa: -10,00
- Tolosaldea : -3,69

BIZTANLERIAREN DENTSITATEA 1981EAN, 1991N ETA 2005-I-1EAN: BIZTANLE-KOPURUA km²-KO

<i>Eskualdeak</i>	<i>Azalera Km2</i>	<i>Biztanleria 1981</i>	<i>Biztanleria 1991</i>	<i>Biztanleria 2005</i>	<i>Diferentzia 2005 - 1981</i>
Arabako Ibarak	645,5	4.267	3.886	5.199	932
<i>Dentsitatea</i>		6,61	6,02	8,05	1,44
Arabako Lautada	784,4	200.600	216.417	239.943	39.343
<i>Dentsitatea</i>		255,74	275,90	305,89	50,16
Arabako Mendialdea	480,3	3.645	3.197	3.170	-475
<i>Dentsitatea</i>		7,59	6,66	6,60	-0,99
Arratia Nerbioi	400,6	22.291	21.275	21.972	-319
<i>Dentsitatea</i>		55,64	53,11	54,85	-0,80
Bidasoa Beherea	71,6	64.714	66.800	75.448	10.734
<i>Dentsitatea</i>		903,83	932,96	1053,74	149,92
Bilbo Handia	364,8	936.848	905.468	871.616	-65.232
<i>Dentsitatea</i>		2.568,11	2.482,09	2.389,30	-178,82
Deba Beherea	181,6	66.569	59.936	54.175	-12.394
<i>Dentsitatea</i>		366,57	330,04	298,32	-68,25
Deba Garaia	342,9	67.136	65.109	61.733	-5.403
<i>Dentsitatea</i>		195,79	189,88	180,03	-15,76
Donostialdea	304,8	317.863	309.926	318.685	822
<i>Dentsitatea</i>		1.042,86	1.016,82	1.045,55	2,70
Durungaldea	317,4	90.912	90.660	92.796	1.884
<i>Dentsitatea</i>		286,43	285,63	292,36	5,94
Enkartzioak	429,2	31.317	29.680	30.215	-1.102
<i>Dentsitatea</i>		72,97	69,15	70,40	-2,57
Errioxa Arabarra	315,9	9.559	9.391	10.690	1.131
<i>Dentsitatea</i>		30,26	29,73	33,84	3,58
Gernika-Bermeo	280,3	46.234	45.240	44.881	-1.353
<i>Dentsitatea</i>		164,94	161,40	160,12	-4,83
Goierri	351,4	70.293	66.559	64.460	-5.833
<i>Dentsitatea</i>		200,04	189,41	183,44	-16,60
Gorbeia Inguruak	404,3	5.696	5.340	7.674	1.978
<i>Dentsitatea</i>		14,09	13,21	18,98	4,89
Kantauri Arabarra	332,1	34.083	34.216	33.281	-802
<i>Dentsitatea</i>		102,63	103,03	100,21	-2,41
Markina-Ondarroa	205,4	28.132	27.301	26.078	-2.054
<i>Dentsitatea</i>		136,96	132,92	126,96	-10,00
Plentzia-Mungia	215,9	33.544	35.482	48.623	15.079
<i>Dentsitatea</i>		155,37	164,34	225,21	69,84
Tolosaldea	332,2	46.696	44.996	45.471	-1.225
<i>Dentsitatea</i>		140,57	135,45	136,88	-3,69
Urola-Kostaldea	324,4	61.410	63.162	68.736	7.326
<i>Dentsitatea</i>		189,30	194,70	211,89	22,58
EAE	7.234,5	2.141.809	2.104.041	2.124.846	-16.963

<i>Dentsitatea</i>	296,05	290,83	293,71	-2,34
--------------------	--------	--------	--------	-------

Iturria: EUSTAT


2005eko urtarrilaren hasieran, adierazle horrek behereneko balioak erakusten ditu Arabako Ibarretako (8,05 biztanle km²-ko), Arabako Mendialdeko (6,60 biztanle km²-ko) eta Gorbeia Inguruetak (18,98 biztanle km²-ko) landa-eskualdeetan. Horietako lehen bietan, 10 biztanle km²-ko baino txikiagoa da dentsitatea (horixe da NBE-k 'basamortu demografikotzat' jotzen duen atalasea). Euskadiko 3 eskualde urbanizatuenetan, aldiz, km²-ko 1.000 biztanletik gorakoa da biztanleriaren dentsitatea eta horrek esan nahi du hiru eskualde horiek biztanle asko dituztela: Bidasoa Beherea (1.053,74 biztanle km²-ko), Bilbo Handia (2.389,30 biztanle km²-ko) eta Donostialdea (1.045,55 biztanle km²-ko).

2005eko urtarrilaren 1ean erroldatutako euskal biztanleria eskualdeka nola banatua zegoen hurrengo taulak agertzen du. Bertan ikusten da lurraldeen arteko desoreka latza, hiri-habitataren alderako (hiru lurralde historikoetako hiriburuak dituzten 3 eskualdeetan, biztanleria osoaren %67,31 sartzen da); Bilbo Handiak, bereziki, euskal biztanleria osoaren %41,02 jasotzen du.

EAE-KO AZALERAREN ETA BIZTANLERIAREN BANAKETA, EHUNEKOTAN. 2005-I-1

<i>Eskualdeak</i>	<i>Azalera Km2</i>	<i>% -a EAEko azalerarekiko</i>	<i>Biztanleria 2005</i>	<i>%-a EAEko Biztanle- kopuruarekiko</i>
Arabako Ibarrak	645,5	8,92	5.199	0,24
Arabako Lautada	784,4	10,84	239.943	11,29
Arabako Mendialdea	480,3	6,64	3.170	0,15
Arratia Nerbioi	400,6	5,54	21.972	1,03
Bidasoa Beherea	71,6	0,99	75.448	3,55
Bilbo Handia	364,8	5,04	871.616	41,02
Deba Beherea	181,6	2,51	54.175	2,55
Deba Garaia	342,9	4,74	61.733	2,91
Donostialdea / Donostia-San Sebastián	304,8	4,21	318.685	15,00
Durungaldea	317,4	4,39	92.796	4,37
Enkartzioak	429,2	5,93	30.215	1,42
Errioxa Arabarra	315,9	4,37	10.690	0,50
Gernika-Bermeo	280,3	3,87	44.881	2,11
Goierrri	351,4	4,86	64.460	3,03
Gorbeia Inguruak	404,3	5,59	7.674	0,36
Kantauri Arabarr	332,1	4,59	33.281	1,57
Markina-Ondarroa	205,4	2,84	26.078	1,23
Plentzia-Mungia	215,9	2,98	48.623	2,29
Tolosaldea	332,2	4,59	45.471	2,14
Urola-Kostaldea	324,4	4,48	68.736	3,23
EAE	7.234,5	100,00	2.124.846	100,00

Iturria: EUSTAT



1.4. Ondorioak

Laburbilduz, 1981etik 2005eko urtarrilaren 1era arte, EAEn gertatu den dinamika demografikoa *zero hazkundearen* parekoa izan da (%-0,8); Espainiako estatuan, ordea, *bilakaera progresiboa* hauteman da (%17,3). Euskadin eta Espainian, 1981etik 2005era bitartean, demografiak izandako bilakaerak zergatik dira horren desberdinak? Lehen mailako hainbat faktore azpimarratuko ditugu hemen:

- ✘ *Garapen-aldian* (1959 – 1975) garatu zen kapitalismo industrialaren eredua ahitu eta krisian sartzea. Joan den 70eko hamarkadaren erdialdean hasi eta 80ko hamarkadaren erdialdera arte iraun zuen krisialdi ekonomikoak bereziki eraso zien EAeko ekonomiak nagusi zituen industri adarrei. Sakoneko aldaketa teknologikoak eta merkatuen mundializazio azkarra gertatzen ari zenean itxi zirenez enpresak eta birmoldatu zirenez industri adar horiek, ohi ez bezala igo ziren langabezia eta aurretiko erretiroak. Hitz batez, industriguneetan eta lo-auzoetan nagusi zen krisi ekonomiko eta sozialak, etorkin berriei Euskadira etortzeko gogoia suntsitzeaz gainera, bertako jendea kanpora alde egitera bultzatzen zuen, bereziki gazteak lanaren bila eta baita langabetu helduak eta etorkin erretiratuak ere, beren jatorriko herrietara itzultzera.
- ✘ 80ko hamarkadaren amaierako suspertze ekonomikoa laburra izan zen, 1993. urtean-edo beste krisialdi bat agertu baitzen; beheraldi hark 1996. urtera arte iraun zuen eta euskal ekonomiaren egitura hirugarren sektorerantz bultzatu eta industria suntsitze prozesua areagotu zuen. Ekonomiaren hazkunde hasi eta berehala, hirugarren sektoreko jardueren eta etxegintzaren gailur jotzeak ez du etorkin askorik erakartzeko bezainbeste lanpostu sortu, 90eko hamarkadaren amaieratik honantz Espainiako estatuko beste erkidego batzuetan ez bezala. Adiera horretan, etorkin atzerritarren etorrera fenomeno hasi berria da Euskadin. Izan ere, fenomenoak bertan duen magnitudea (72.894 atzerritar erroldaturik, hots, guztiaren %3,4, 2005eko urtarrilean) eta ondorio demografiko positiboak askoz ere xumeagoak dira beste erkidegoetakoak baino: Madrilen, esate baterako, (780.752 atzerritar erroldatuak, hots, guztiaren %13,1, 2005eko urtarrilean) edota Katalunian (798.904 atzerritar erroldatuak, hots, guztiaren %11,4 2005eko urtarrilean).
- ✘ 70eko hamarkadaren erdialdetik hasita, ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren amiltze bortitza gertatu da; horrekin batera, ezkontzeko eta ama izateko adina ere

biziki atzeratu da. Euskadiz ari garela, 1975eko ugalkortasun-indize sintetikoa 2,77 ume izan zen, kohorte ugalkorreko emakume bakoitzeko; 2004. urtean, berriz, emakume bakoitzak izandako umeen batez bestekoa 1,18ra jaitsi da. Espainian ugalkortasun-indize sintetikoa 2,81etik (1975) 1,33ra (2004) jaitsi da. Amatasunaren batez besteko adinaz ari garela, adierazlea arras atzeratu da: 28,82 urtetik (1975) 32,39 urtera (2004) Euskadin; Espainiako estatuan, bitartean, 28,80 urtetik (1975) 30,86 urtera (2004) joan zen

- ✘ **Industriondoko gizarteak eta kontsumo-gizarteak moldatzen dituen aldakuntza soziokulturalak bultzatzen ditu, Europar Batasuneko herrialderik garatuenetan, demografiaren geldialdia edo atzerakada arina dakarten jokabide sozialak; geldialdi eta atzerakada horiek Espainiako iparraldeko erkidegoetan bizikiago eragiten ari dira. *Baby boom*-eko belaunaldia ugalkortasun apalenekoa izan da historia osoan; enplegu iraunkorra eta gurasoengandik aparteko etxebizitza bat eskuratzeko nozitu behar izan dituzten zailtasun objektiboetara belaunaldi berriak hobeki egokitzeko estrategia bat ez ezik beste bi faktoreren emaitza ere bada jokabide hori: batetik, europar gizarteetan gertatzen ari den sakoneko aldaketa soziokulturalarena (bertako gazteen artean orokor bihurtu baitira balio eta asmo postmaterialak⁴); bestetik, lortu nahi dugun nortasuna eraikitzeke eta geure burua errealizatzeko lehentasunezko eszenategizat jotzen ditugun 'berdinen arteko taldearen' harreman, aisialdi eta lanbide alorrak goستن dituen indibidualismo demokratikoarena; horrek esan nahi du familia osatu eta umeak ekartzeko joera bigarren mailara ekarri dela. Era berean, berehalako gozamen pertsonala eskaintzen duen kontsumo-gizartearen balio eta praktiken sozializazioak, berehala bizipoz etengabeak sortu ordez, esfortzu pertsonal luzea egitea agintzen duten bizi-traiektoretan (familia osatzea eta umeak hazi eta hezteka, adibidez) sartzeko interesa galarazten die gazteei. Hitz batez, euskal gazteen balio, asmo eta bizimoduen aldaketek ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalak berrelikatzeko joera agertzen dute; horrek guztiak Euskadiko demografia zahartzerantz eta *zero hazkunderantz* darama.**

XXI. mendearen hastapenean, aitzitik, bilakaera demografikoaren joera-aldaketa ikusi dugu: Euskadiko biztanleria %2,03 gehitu da, nahiz eta gehikuntza hori Espainia osoak nozitu duena (%7,28) baino dezente apalagoa izan. Aldaketa hori atzerritiko etorkinak

⁴ Ronald Inglehart-en iritziz, oso litekeena da europar gazteak geroago ezkontzea eta umeak ekartzearen oso aldeko ez izatea, lehentasun postmaterialistak dituztelako: estetikoak, adierazpen, auto-estima, auto-errealizazio, gozamen pertsonal eta antzeko alorretakoak. Ronald Inglehart (1992): "El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas". CIS, Monografía 121, Madril.

heltzearen zuzeneko ondorioa da: 2005eko urtarrilaren 1eko Udal-eroldaren Berrikuspenean 72.894 atzerritar daude izen emanik, hau da, 2001eko Biztanleriaren Zentsuaren aldean, zifra %133,87an gehitu da (+41.726 atzerritar). Horrek argitzen du 2001. urtean erroldaturiko biztanleriaren aldean (2.082.587 lagun) 2005eko urtarrilaren 1ean erregistratu denak (2.124.846) nozitu duen gehikuntza ia-ia osoa (+42.259 lagun). Dena den, EAEn atzerritarrek duten presentzia espainiar biztanleriaren baitan dutena baino aski apalagoa da: %3,4 hemen eta %8,5 Espainian, 2005eko urtarrilean.

II. EGITURA, SEXUAREN ETA ADIN-TALDE HANDIEN ARABERA

XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdetik hona sakoneko aldaketak nozitu ditu Euskadiko demografiak. Horietatik hiru ekarri ditugu, kapitulu honekin hertsikiago lotuak baitaude:

- Ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren amiltze izugarrien ondorioz, haurren eta gazteen taldeetan kideak nabarmen murriztea.
- Bizi-itxaropena luzatzea.
- Euskadiko biztanleriaren piramidearen zahartze prozesua.

Biztanleriaren bizi-baldintzak eta osasun-sistema —Ongizate Estatuaren garapenarekin hertsiki lotuak biak— hobetzeari esker lorturiko hilkortasunaren geroratzeak bizi-itxaropenaren luzapena ekarri du, bai jaio berrien artean, baita 65 urte eta hortik gorako kohortean sartzen diren lagunen artean ere. Horregatik iristen dira geroz eta pertsona gehiago 64 urtetik gora izatera eta, areago, horietako asko 80 urte bizitzera hel daitezke. Dena den, euskal eta espainiar biztanlerian (baita Europako biztanleria gehientsuen baitan) eragina duen zahartze prozesua ugalkortasunaren eta jaiotza--tasaren beherakadaren ondorio ere bada. Adiera horretan, datozen hamarkadetan umeak ekarriko dituzten belaunaldikoak dagoeneko jaiota daudenez eta urtetik urtera urriagoak izan direnez, bistan da etorkizuna: horiek bakarrik izaten badira guraso edo egungo ugalkortasun eta jaiotza-tasak gora egiten ez badute, haur eta gazteen eta zaharren arteko proportzioa zaharren aldera okertzen hasiko da, argi eta garbi. Horrenbestez, egungo zahartze prozesuan bi joerek dute eragina: batetik, haur eta gazteen kopurua murrizteak eta bestetik, 65 urte edo gehiagoko pertsonen ugaltzeak⁵.

Zahartze prozesuari buruzko iritzi, txosten eta artikuluetan agertu ohi da piramide demografikoaren oinarriak nozitzen duen estutze bortitzarengatiko kezka. Zergatik

⁵ Sarrile, Graciela eta Martínez, Javier (2002): La población europea, 108. orr. Editorial Síntesis, Madril.

kezka hori, ordea? Hein handi batean, joan den mendeko 70eko hamarkadaren amaieratik gertatzen ari den ume-kopuruaren murrizketak, etorkizunean, Gizarte-segurantza sistemari ekonomikoki eutsi ahal izango dioten pertsona aktiboen urritzea ekarriko duelako eta beste aldetik, Gizarte-segurantzak pentsioak ordaintzen dizkielako pertsona zaharrei eta *Garapen-aldiko* (1959-75) 'baby-bom' izeneko aldian jaiotakoak 65 urtetik gorakoek kohortera sartu ahala, asko ugalduko delako pertsona zaharren kopurua. Horrez gainera, epe ertainetik aurrera haur-kopurua etengabe urritzeak — egungo ugalkortasun eta jaiotza-tasak bere horretan mantentzekotan— etorkizunean guraso izan litezkeen kopurua ere murriztea ekarriko luke eta horrek, noski, koiuntura-arazo hori estruktura-arazo bihurtuko du.

Orain, piramide demografikoaren muturretako kohorte biak (20 urtetik beherakoez eta 64 urtetik gorakoez ari gara) aztertuko ditugu: EAEko, bertako lurralde historikoetako eta eskualdeetako biztanleriarengan, zahartze prozesuak nolako eragina duen erakutsiko digute, 1981etik 2005eko urtarrilaren 1era arte, biek ere izandako bilakaera zein izan den jakiteko. Era berean, hurrengo adierazleak ere aztertuko ditugu:

- Haur eta nerabeen indizea: 20 urtetik beherako gazteek biztanleria osoarekiko osatzen duten ehunekoa.
- Zahartze-indizea: 64 urtetik gorakoek biztanleria osoarekiko osatzen duten ehunekoa.
- Ordezkapen-tasa: 0 eta 19 urte bitarteko 100 gizakiko, 64 urtetik gorakoek kopurua.
- Bizi-itxaropena jaiotzean: jaiotzean, bizitzea espero den batez besteko urte-kopurua.
- Maskulinitasun-tasa: gizonezkoen kopurua 100 emakumeko.

2.1. Euskadi eta Espainia

20 urtetik beherakoek osatzen duten kohorteko kideei dagokiela, 1981 eta 2005 artean, haur eta nerabeak izugarri urritu dira (EAE % -52); Espainian ere gainbehera nabarmena izan da, baina askoz ere apalagoa (% -33,3).

0-19 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE

	1981	2005	△ % 2005 / 1981
EAE	732.242	351.753	-52,0
Espainia	12.949.015	8.636.576	-33,3


Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Horregatik jaitsi da Euskadin haurren indizea (0 eta 19 urte bitarteko gizakien kopurua biztanleria osoarekin zatituta ateratzen den zatidura, alegia), %34,2tik (1981) %16,5era (2005. urtearen hasieran). Laburbilduz, egun Euskadin bizi diren 0 eta 19 urte bitarteko biztanleek portzentaje-garrantzi txikiagoa dute, adin-talde handien arabera osaturiko egituran, Espainiakoarekin alderatuz (%19,6 2005. urtean).

HAUR ETA NERABEEN (0-19 URTE) INDIZEAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN.

	% 1981ean	% 2005ean	Diferentzia 2005 – 1981
EAE	34,2	16,5	-17,7
Espainia	34,4	19,6	-14,8

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.



0 eta 19 urte bitartekoen kohorteko kideak etengabe murriztu ahala, 64 urtetik gorako gizabanakoen ugaltze izugarria gertatu da. 1981 eta 2005 artean, 64 urtetik gorako kohortea ia bikoiztu egin da Euskadin, %96,3 hazi baita, Espainiako batez bestekoaren (%73,1) gainetik.

>64 URTEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981 ETIK 2005-I-1 ARTE

	1981	2005	△ % 2005 / 1981
EAE	197.294	387.309	96,3
Espainia	4.236.740	7.332.267	73,1

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Bizi-itxaropena dezente luzatzea gertakari soziodemografiko dugu: adineko jendea etengabe doa ugaltzen. Horrela, jaiotzean bizi-itxaropena 2000. urtean⁶, bi sexuetako gizakiez ari gara, 79,1 urtekoa zen Espainian eta 79,4 urtekoa EAEn; 1980. urtean⁷, berriz, 75,6 urtekoa eta 74,9 urtekoa, hurrenez hurren.

⁶ Jaiotzean, bizitza espero den batez besteko urte-kopurua. Iturria: Anuario Social de España. Fundación 'La Caixa', 2005.


⁷ Iturria: Adierazle soziodemografikoak, INE.

Bilakaera progresibo horri esker, Euskadin zahartze-indizea ia bikoiztu egin da, 9 puntu egin du gora, alegia, eta 1981eko %9,2tik 2005. urte hasierako %18,2ra iragan da; Espainian, berriz, 5,4 puntu egin du gora (%11,2tik %16,6ra). Finean, estatu espainiar osokoarekiko, adin-taldean araberako egitura zaharkituagoa du euskal biztanleriak, 64 urtetik gorako pertsonen kohortea, bi sexuetakoa, 2005eko urtarrilean errolaturiko biztanleriaren %18,2 baita, Espainiako batez besteko zahartzea baino 1,6 puntu gehiago (%16,6).

ZAHARTZE-INDIZEAK (> 64 URTE) 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

	% 1981ean	% 2005ean	Diferentzia 2005 – 1981
EAE	9,2	18,2	9,0
Espainia	11,2	16,6	5,4

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.




Piramide demografikoko bi muturretako kohortek elkarrekin erlazionatzean, ordezkapen-tasa kalkulatu ahal izango dugu: adierazle honi esker jakin dezakegu 64 urtetik gorako zenbat gizaki dauden 0 eta 19 urte bitarteko 100 efektibo bakoitzeko. 1981ean, EAEn 26,9 pertsona zahar zeuden 0 eta 19 urte bitarteko 100 lagun bakoitzeko; 2005. urtearen hasieran, berriz, 110,1 64 urtetik gorakoen kopurua 110,1

da, 20 urtetik beherako 100 laguneko; hots, zaharrak ugariago dira 20 urtetik beherakoak baino. Tasa hori estatuaren osotasunean ere areagotu bada ere, apalkiago igo da (32,7tik 84,9ra baino ez). Hortaz, zahartze prozesuak bortizkiago erasotzen dio Euskadiri; horrek bertako demografia "zero hazkundera" finkatzeko arriskuz.

ORDEZKAPEN-TASAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

	1981	2005	Diferentzia 2005 – 1981
EAE	26,9	110,1	83,2
Espainia	32,7	84,9	52,2

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errodaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.



Sexua aldagaiaz ari garela, hurrengo taulan jaso ditugu "maskulinitasun-tasak"⁸. 1981ean, tasa hori Euskadin (98,3 gizaseme 100 emakumeko) Espainiakoa baino


⁸ Zatidura honek, 100ez biderkatuz, gizaseme eta emakume kopuruen arteko erlazioa erakusten du.

altuxeagoa da (96,4), baina 2005ean erlazioa alderantzizkoa da (96 eta 97,6 hurrenez hurren). Adierazle hori, gainera, modu desberdinez bilakatu da eremu batean eta bestean: Euskadin urritu egin zen (-2,3 puntu) eta Espainian, berriz, igo (1,2 puntu). 2005eko urtarrilaren hasieran, 100 emakumeko 96 gizaseme daude EAEn eta 97,6 Espainian,

MASKULINOTASUN-TASAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

	1981	2005	Diferentzia 2005 – 1981
EAE	98,3	96,0	-2,3
Espainia	96,4	97,6	1,2

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-erroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.



Zergatik du euskal biztanleriak sexuen arteko desoreka handiagoa, hau da, zergatik du emakume gehiago? Biztanleriaren zahartze handiagoaren ondorio da, oro har:

jaiotzean, emakumeak gizonezkoak baino bizi-itxaropen luzeagoa du eta horregatik ari da euskal demografia pixkanaka feminizatzen. Euskadin, jaiotzean bizi-itxaropena, 2000-2001⁹ biurtekoan, 76,4 urtekoa zen gizonezkoentzat eta 83,7 urtekoa emakumeentzat.

2.2. Lurralde historikoak

1981. eta 2005. urteen artean, hiru lurralde historikoetan 0 eta 19 urte bitarteko biztanleria dezente murriztu da, ugalkortasun eta jaiotza-tasaren gainbeheraren ondorioz: jaitsiera larriena (%-54,8) Bizkaian gertatu da eta apalena Araban (%-44,2).

0-19 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE

LH	1981	2005	△ % 2005 / 1981
Araba	90.926	50.704	-44,2
Bizkaia	402.899	182.144	-54,8
Gipuzkoa	238.417	118.905	-50,1

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.


0 eta 19 urte bitartekoen kohorteko kideen beherakada nabarmen horren eraginez, 2005eko urtarrilean, haur eta nerabeen indizeak ia-ia erdira jaitsi dira 1981eko balioekiko; izan ere, lurralde historiko bakoitzean eroldaturiko biztanleria osoaren %34-35 izatetik, 2005. urtearen hasieran biztanleria osoaren %16-17 izatera pasatu baitira.

HAUR ETA NERABEEN (0-19 URTE) INDIZEAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

LH	% 1981ean	% 2005ean	Diferentzia 2005 – 1981
Araba	35,3	16,9	-18,4
Bizkaia	33,9	16,0	-17,9
Gipuzkoa	34,3	17,3	-17,0

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

⁹ Jaiotzean, bizitzea espero den batez besteko urte-kopurua. Iturria: EUSTAT, Adierazle demografikoak.



64 urtetik gorakoen kohorteko kideak, aitzitik, izugarri ugaltu dira 1981. eta 2005. urteen artean hiru lurralde historikoetan: Gipuzkoan izan da igoerarik apalena (%89,5) eta Araban biziena (%121,2).

>64 URTEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE

LH	1981	2005	△ % 2005 / 1981
Araba	22.047	48.773	121,2
Bizkaia	109.848	214.579	95,3
Gipuzkoa	65.399	123.957	89,5

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errodaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.


Zahartze prozesuaren aurrerakuntza nabarmena argi asko agertzen da zahartze-indizeetan, hauek, gutxi-asko, bikoiztu egin baitira: 7,7 puntutik 9,7 puntura hazi dira 1981etik 2005eko urtarrila bitartean 2005ean, 64 urtetik gorakoen kohortearen indize

garaiena Bizkaian (%18,9) izan da eta ondoren Gipuzkoan (%18). Araban, adin-talde handien arabera osaturiko egitura ez dago horren zaharkitua (%16,3).

ZAHARTZE-INDIZEAK (> 64 URTE) 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

LH	% 1981ean	% 2005ean	Diferentzia 2005 – 1981
Araba	8,6	16,3	7,7
Bizkaia	9,2	18,9	9,7
Gipuzkoa	9,4	18,0	8,6

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.




XXI. mendearen hasieran hiru lurralde historikoetako demografia desorekatzen duen zahartze prozesua zenbaterainokoa den erakusten digute ordezkapen-tasek ere: 1981etik 2005era arte, tasa horiek 72 puntutik (Araba) 90,5 puntura (Bizkaia) igo dira. Arabak bakarrik dauka zaharrek osatutakoa baino haur eta nerabeek osaturiko kohorte handixeagoa: bertako ordezkapen-tasa izan da, 2005eko urtarrilaren 1ean, 64 urtetik

gorako 96,2 gizaki, 0 eta 19 urte bitarteko 100 kideko. Beste bi lurralde historikoetan ordezkapen-tasek, aitzitik, piramide demografikoaren muturretako bi kohorteen arteko oreka-atalasea (100) gainditu egin dute: pitin bat Gipuzkoan (104,2) eta dezente Bizkaian (117,8). Beste era batera esanda, haur eta nerabeak baino ugariago dira zaharrak. Bestetik, esanguratsua da Arabako ordezkapen-tasa (96,2) 100 baino txikixeagoa izatea: horrek iragartzen digu EAEn zahartze prozesuaren hedapenak atzera bueltarik ez duela izango, 1981ean adin-talde handien arabera osaturiko egitura demografikorik gazteena zeukan lurralde historikoari ere eragin baitio.

ORDEZKAPEN-TASAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

LH	1981	2005	Diferentzia 2005 – 1981
Araba	24,2	96,2	72,0
Bizkaia	27,3	117,8	90,5
Gipuzkoa	27,4	104,2	76,8

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.



Sexuen araberako egitura demografikoari dagokionez, 1981. eta 2005. urteen artean maskulinitasun-tasek izandako bilakaerak biztanleriaren piramidea pixkanaka feminizazio prozesua nozitzen ari dela erakusten digu, gizonezkoak emakumeak baino gutxiago izateko joera agertzen baita: horrela gertatzen da, argi eta garbi, Bizkaian (96,7 gizaseme 100 emakumeko, 2005eko urtarrilean) eta Gipuzkoan (94,6); Araban ere hasi da prozesu hori agertzen (99,5 gizonezko 100 emakumeko, 2005eko urtarrilean), pitinka-pitinka bada ere.


MASKULINITASUN-TASAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

LH	1981	2005	Diferentzia 2005 – 1981
Araba	100,8	99,5	-1,3
Bizkaia	97,6	96,7	-0,9
Gipuzkoa	98,4	94,6	-3,8

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errodaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Gizonezkoen kopurua pixkanaka urritze hori dator, hein handi batean, hiru lurralde historikoetan erroldaturiko biztanleen zahartze prozesuaren aurrera egitetik, emakumezkoen bizi-itxaropena luzeagoa baita. Esate baterako, 2000/2001 biurtekora¹⁰ begira, Arabako gizonezkoek jaiotzean 77,2 urteko bizi-itxaropena dute eta emakumezkoek 83,8 urtekoa; Bizkaian, 76,2 eta 83,5 urtekoa hurrenez hurren; Gipuzkoan, gizonezkoek 76,6 urteko bizi-itxaropena eta 84,1 urtekoa emakumezkoek.

¹⁰ Iturria: EUSTAT, Adierazle demografikoak.



2.3. Eskualdeak

Eskualde guztietan, 20 urtetik beherako biztanleria jaitsi egin zen, 1981etik 2005eko urtarrilaren 1era bitartean. 7 eskualdetan, bereziki, erkidegoko batez bestekoaren gainetik ibili zen jaitsiera-portzentajea (%-52,6):

- Arabako Mendialdea : %-65,3
- Bilbo Handia : %-57,6
- Deba Beherea : %-60,4
- Deba Garaia : %-55,9
- Goierri: %-54,1
- Kantauri Arabarra : %-57,9
- Markina-Ondarroa: %-55,5

Bestetik, bi eskualdetan murrizketak apalagoak izan ziren:

- Gorbeia Inguruak : %-16,7

- Plentzia-Mungia: %-19,3

0-19 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE

<i>Eskualdeak</i>	<i>1981</i>	<i>2005</i>	<i>△ % 2005 / 1981</i>
Arabako Ibarrek	1.112	663	-40,4
Arabako Lautada	71.756	40.269	-43,9
Arabako Mendialdea	987	342	-65,3
Arratia Nerbioi	6.746	3.570	-47,1
Bidasoa Beherea	22.591	13.453	-40,4
Bilbo Handia	318.743	135.202	-57,6
Deba Beherea	21.024	8.319	-60,4
Deba Garaia	22.931	10.121	-55,9
Donostialdea	110.205	53.259	-51,7
Durangaldea	33.118	15.855	-52,1
Enkartzioak	9.448	4.573	-51,6
Errioxa Arabarra	2.725	1.764	-35,3
Gernika-Bermeo	14.318	6.910	-51,7
Goierri	24.306	11.166	-54,1
Gorbeia Inguruak	1.700	1.416	-16,7
Kantauri Arabarra	12.646	5.327	-57,9
Markina-Ondarroa	9.197	4.090	-55,5
Plentzia-Mungia	11.329	9.146	-19,3
Tolosaldea / Tolosa	15.744	8.348	-47,0
Urola-Kostaldea	21.616	13.569	-37,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	732.242	347.362	-52,6

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

20 urtetik beherakoen kohorteak oro har egin duenez behera, haur eta nerabeen indizeak ere atzeraka doaz. 1981ean, indize horien behealdean Arabako Ibarrek (%26,1) agertzen ziren eta goialdean Kantauri Arabarra (%37,1). 2005. urtearen hasieran, berriz, bi muturretako balioak apalagoak dira, argi eta garbi: %10,8 Arabako Mendialdean eta %19,7 Urola-Kostaldean. Finean, 70eko hamarkadaren amaieratik ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalen fenomeno demografikoak euskal eskualde guztietan izan du eragina eta horregatik amildu dira haur eta nerabeen indizeak.


HAUR ETA NERABEEN (0-19 URTE) INDIZEAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

<i>Eskualdeak</i>	<i>1981</i>	<i>2005</i>	<i>Diferentzia 2005 - 1981</i>
Arabako Ibarrek	26,1	12,8	-13,3
Arabako Lautada	35,8	16,8	-19,0
Arabako Mendialdea	27,1	10,8	-16,3
Arratia Nerbioi	30,3	16,3	-14,0
Bidasoa Beherea	34,9	17,8	-17,1
Bilbo Handia	34,1	15,5	-18,6
Deba Beherea	31,6	15,3	-16,3
Deba Garaia	34,2	16,4	-17,8

Donostialdea	34,7	16,7	-18,0
Durungaldea	36,4	17,1	-19,3
Enkartzioak	30,2	15,2	-15,0
Errioxa Arabarra	28,5	16,6	-11,9
Gernika-Bermeo	31,0	15,4	-15,6
Goierry	34,6	17,3	-17,3
Gorbeia Inguruak	29,8	18,5	-11,3
Kantauri Arabarra	37,1	16,1	-21,0
Markina-Ondarroa	32,7	15,7	-17,0
Plentzia-Mungia	33,8	18,9	-14,9
Tolosaldea	33,7	18,4	-15,3
Urola-Kostaldea	35,2	19,7	-15,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	34,2	16,4	-17,8

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

2005eko urtarrilaren 1ean, 5 eskualdek dituzte haur eta nerabeen indizerik garaienak, %20ko atalasea gainditu ez bada ere horietako bakar batean ere: Bidasoa Beherea (%17,8), Gorbeia Inguruak (%18,5), Plentzia-Mungia (%18,9), Tolosaldea (%18,4) eta Urola-Kostaldea (%19,7). Beste muturrean, indize apalenak dituzten 7 eskualdeak agertzen dira: Arabako Ibarrak (%12,8), Arabako Mendialdea (%10,8), Bilbo Handia (%15,5), Deba Beherea (%15,3), Enkartzioak (%15,2), Gernika-Bermeo (%15,4) eta Markina-Ondarroa (%15,7).



20 urtetik beherako pertsonak murriztearekin batera, 64 urtetik gorakoak nabarmen ugalduta dira 20 eskualdeetan: horrek erakusten du Euskadi osoan zahartze prozesua geldiezinik doala aurrera. 1981tik 2005eko urtarilerara arte, gehikuntza handienak 9

eskualdetan gertatu dira, hauetan 64 urtetik gorakoen kopurua bikoiztu edo ia bikoiztu egin baitzen. Hona eskualde horiek:

- Arabako Lautada : %+133
- Bidasoa Beherea : %+115,5
- Bilbo Handia : %+100,3
- Deba Garaia : %+97,4
- Durangaldea : %+133
- Goierri: %+106,3
- Kantauri Arabarra : %+139
- Plentzia-Mungia: %+103,2
- Urola-Kostaldea : %+95,7

> 64 URTEKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE

<i>Eskualdeak</i>	<i>1981</i>	<i>2005</i>	<i>△ % 2005 / 1981</i>
Arabako Ibarrak	726	1.207	66,3
Arabako Lautada	16.103	37.520	133,0
Arabako Mendialdea	604	878	45,4
Arratia Nerbioi	2.740	4.347	58,6
Bidasoa Beherea	5.689	12.258	115,5
Bilbo Handia	84.110	168.491	100,3
Deba Beherea	6.488	11.460	76,6
Deba Garaia	5.858	11.561	97,4
Donostialdea	31.100	58.128	86,9
Durangaldea	6.521	15.193	133,0
Enkartazioak	4.097	6.329	54,5
Errioxa Arabarra	1.408	2.290	62,6
Gernika-Bermeo	5.750	9.523	65,6
Goierri	5.907	12.187	106,3
Gorbeia Inguruak	752	1.212	61,2
Kantauri Arabarra	2.454	5.866	139,0
Markina-Ondarroa	3.238	5.448	68,3
Plentzia-Mungia	3.392	6.893	103,2
Tolosaldea	4.744	7.831	65,1
Urola-Kostaldea	5.613	10.984	95,7
Euskal Autonomia Erkidegoa	197.294	389.606	97,5

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

19 eskualdetan, 1981etik 2005. urtearen hasiera bitartean, zahartze-indizeak dezente igo dira (4 puntutik 11,4 puntura), horretan salbuespena Gorbeia Inguruak izaki, bertako gehikuntza apalagoa izan delarik (2,6 puntu). 1981ean, indizeen muturretako ehunekoak 7,2 (Durangaldea eta Kantauri Arabarra) eta 17 (Arabako Ibarrek) ziren, baina 2005. urtea hastean behereneko balioa %14,2raino igo zen (Plentzia-Mungia) eta gorenekoa %27,7raino (Arabako Mendialdea).


ZAHARTZE-INDIZEAK (> 64 URTE) 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

<i>Eskualdeak</i>	<i>1981</i>	<i>2005</i>	<i>Diferentzia 2005 - 1981</i>
Arabako Ibarrek	17,0	23,3	6,3
Arabako Lautada	8,0	15,7	7,7
Arabako Mendialdea	16,6	27,7	11,1
Arratia Nerbioi	12,3	19,8	7,5
Bidasoa Beherea	8,8	16,2	7,4
Bilbo Handia	9,0	19,3	10,3
Deba Beherea	9,7	21,1	11,4
Deba Garaia	8,7	18,7	10,0
Donostialdea	9,8	18,2	8,4
Durangaldea	7,2	16,4	9,2
Enkartzioak	13,1	21,0	7,9
Errioxa Arabarra	14,7	21,6	6,9
Gernika-Bermeo	12,4	21,3	8,9
Goierri	8,4	18,9	10,5
Gorbeia Inguruak	13,2	15,8	2,6
Kantauri Arabarra	7,2	17,7	10,5
Markina-Ondarroa	11,5	20,9	9,4
Plentzia-Mungia	10,1	14,2	4,1
Tolosaldea	10,2	17,2	7,0
Urola-Kostaldea	9,1	16,0	6,9
Euskal Autonomia Erkidegoa	9,2	18,2	9,0

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

2005eko urtarrilaren 1ean, euskal biztanleriaren zahartze prozesua harik eta nabariago agertzen zen 11 eskualdetan eta horietako zahartze-indizeek erkidegoaren batez bestekoa (%18,2) gaintzen zuten: Arabako Ibarrek (%23,3), Arabako Mendialdea (%27,7), Arratia Nerbioi (%19,8), Bilbo Handia (%19,3), Deba Beherea (%21,1), Deba Garaia (%18,7), Enkartzioak (%21), Errioxa Arabarra (%21,6), Gernika-Bermeo (%21,3), Goierri (%18,9) eta Markina-Ondarroa (%20,9). Biztanleria zaharrena duten eskualdeak bai landa girokoak baita hiri eta metropoli inguruetakoak dira, ikusten dugunez.

ZAHARTZE-INDIZEAK, ESKUALDEZ ESKUALDE, 1981EAN ETA 2005-I-1EAN
(64 urtetik gorakoen ehunekoa, biztanleria osoarekiko)



64 urtetik gorakoen kohortea eta 20 urtetik beherakoena erlazionatuz, ordezkapen-tasa kalkulatu ahal izango dugu. Tasa horri esker, 100 haur eta nerabeko (0 eta 19 urte bitartekoak), 65 urte edo gehiagoko pertsonak zenbat diren jakin ahal izango dugu. Tasa hori, 1981tik 2005eko urtarrilaren 1era, nabarmen igo zen 20 euskal eskualdetan baina, bereziki, horietako 8tan: Arabako Ibarrek (+116,8 zahar), Arabako Mendialdea (+195,5 zahar), Bilbo Handia (+98,2 zahar), Deba Beherea (+106,9 zahar), Enkartzioak (+95 zahar), Gernika-Bermeo (+97,7 zahar), Kantauri Arabarra (+90,7 zahar) eta Markina-Ondarroa (+98 zahar).

ORDEZKAPEN-TASAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN


<i>Eskualdeak</i>	<i>1981</i>	<i>2005</i>	<i>Diferentzia 2005 - 1981</i>
Arabako Ibarrek	65,3	182,1	116,8
Arabako Lautada	22,4	93,2	70,7
Arabako Mendialdea	61,2	256,7	195,5
Arratia Nerbioi	40,6	121,8	81,1
Bidasoa Beherea	25,2	91,1	65,9
Bilbo Handia	26,4	124,6	98,2
Deba Beherea	30,9	137,8	106,9
Deba Garaia	25,5	114,2	88,7
Donostialdea	28,2	109,1	80,9
Durangaldea	19,7	95,8	76,1
Enkartzioak	43,4	138,4	95,0
Errioxa Arabarra	51,7	129,8	78,1
Gernika-Bermeo	40,2	137,8	97,7
Goierrri	24,3	109,1	84,8
Gorbeia Inguruak	44,2	85,6	41,4
Kantauri Arabarra	19,4	110,1	90,7
Markina-Ondarroa	35,2	133,2	98,0
Plentzia-Mungia	29,9	75,4	45,4
Tolosaldea	30,1	93,8	63,7
Urola-Kostaldea	26,0	80,9	55,0
Euskal Autonomia Erkidegoa	26,9	110,1	83,2

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

2005. urtea hastean, 64 urtetik gorako biztanleak 20 urtetik beherakoak baino ugariago dira 13 eskualdetan baina, gogoan izan dezagun, horrelakorik 1981ean ez zela inon gertatzen. Hona 13 eskualdeak:

- Arabako Ibarrek : 65 urte edo gehiagoko 182,1 lagun, 20 urtetik beherako 100 laguneko.
- Arabako Mendialdea : 256,7
- Arratia Nerbioi : 121,8
- Bilbo Handia : 124,6
- Deba Beherea : 137,8
- Deba Garaia : 114,2
- Donostialdea : 109,1
- Enkartzazioak : 138,4
- Errioxa Arabarra : 129,8
- Gernika-Bermeo: 137,8
- Goierri: 109,1
- Kantauri Arabarra : 110,1
- Markina-Ondarroa: 64 urte edo gehiagoko 133,2 lagun, 20 urtetik beherako 100 laguneko.

**ORDEZKAPEN-TASAK, ESKUALDEZ ESKUALDE, 2005-I-1EAN
(64 urtetik gorakoen tasa, 20 urtetik beherako 100 laguneko)**



Sexuen araberako egitura demografikoaz ari garela, maskulinitasun-tasek elkarren kontrako bi eboluzio-joera erakusten dute eskualdez eskualde: a) eskualde batzuetan gizonezko gehiago dago emakumezko baino b) beste eskualde batzuetan emakumezko gehiago dago gizonezko baino. Era bat baino gehiagotako arrazoiak daude:

- a) Lehen kasukoak landa edo erdi-landa ingurunezko eskualdeak dira, eta horietan emakumezkoen emigrazio handiagoa izan denez, 2005eko urtarrilaren 1ean erroldaturikoen artean, gizonezkoen presentzia erlatibo altuagoa da: Arabako Ibarak (120 gizonezko 100 emakumeko), Arabako Mendialdea (126,2 gizonezko 100 emakumeko), Errioxa Arabarra (108,6 gizonezko 100 emakumeko) eta Gorbeia Inguruak (113 gizonezko 100 emakumeko).

MASKULINITASUN-TASAK 1981EAN ETA 2005-I-1EAN


<i>Eskualdeak</i>	<i>1981</i>	<i>2005</i>	<i>Diferentzia 2005 – 1981</i>
Arabako Ibarak	98,3	120,0	21,7
Arabako Lautada	114,3	97,8	-16,5
Arabako Mendialdea	99,4	126,2	26,8
Arratia Nerbioi	114,4	103,1	-11,3
Bidasoa Beherea	102,7	97,1	-5,6
Bilbo Handia	98,2	92,9	-5,3
Deba Beherea	96,6	97,9	1,3
Deba Garaia	101,0	101,1	0,1
Donostialdea	103,1	92,4	-10,7
Durangaldea	94,3	99,1	4,8
Enkartzioak	102,6	98,6	-4,0
Errioxa Arabarra	101,0	108,6	7,6
Gernika-Bermeo	106,1	97,6	-8,5
Goierri	100,0	101,6	1,6
Gorbeia Inguruak	104,3	113,0	8,7
Kantauri Arabarra	110,4	99,4	-11,0
Markina-Ondarroa	102,9	103,1	0,2
Plentzia-Mungia	102,1	98,2	-3,9
Tolosaldea	99,8	102,0	2,2
Urola-Kostaldea	102,8	100,1	-2,7
Euskal Autonomia Erkidegoa	103,5	96,0	-2,3

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-erroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

- b) Bigarren kasuan, oro har, eskualde urbano eta metropolitarrak ditugu eta bertako egitura demografikoak nolabaiteko feminizazioa agertzen du, neurri handi batean bi arrazoiak batera eragiten dutelako: eskualde horietako hirietan,

zerbitzu sektoreko enplegu publiko zein pribatu gehiena biltzen da; jarduera ekonomiko horietan emakumezkoak aiseago sartu izan direnez, orain hirugarren sektorea nagusi duten hiri horiek beste eskualde batzuetatik datozen emakumezko aktiboen erakarpen-guneak dira. Gizonezkoen presentzia urriagoa, horrez gainera, biztanleriek nozitzen duten zahartze prozesuaren ondorio ere bada, emakumezkoak bizi-itxaropen luzeagoa baitu. Izan ere, 2005eko urtarrilaren hasieran, Euskadiko eskualderik urbanizatuenak eta jendetsuenak dira emakume bakoitzeko gizonezko gutxien dituztenak: Bilbo Handia (92,9 gizonezko 100 emakumeko) eta Donostialdea (92,4 gizonezko 100 emakumeko), hain zuzen.

MASKULINOTASUN-TASAK, ESKUALDEZ ESKUALDE, 2005-I-1EAN
(Gizonezkoen kopurua, 100 emakumeko)



2.4. Ondorioak

Laburbilduz, biztanleriaren zahartze prozesua azkarrago doa aurrera EAEn Espainia osoan baino. Gogoan izan dezagun 2005eko urtarrilaren 1erako ordezkapen-tasa 64 urtetik gorako 110,1 lagun dela, 20 urtetik beherako 100 laguneko; Espainiako estatuan, berriz, zaharrak gutxiago dira haur eta nerabeak baino (64 urtetik gorako 84,9 lagun, 20 urtetik beherako 100 laguneko). Izan ere, zahartze-indizea %18,2 da Euskadin eta %16,6 Espainian.

Zahartze prozesuak aurrera egin ahala, eztabaida politiko-sozial biziagoa pizten ari da pentsio-sistema publikoaren gainean izan lezakeen eraginaz. Zaharrek osaturiko biztanleria dezente ugalduko den bitartean, biztanleria aktiboak murrizteko joera bizia agertuko duela azpimarratzen da eta horrek arriskuan jarriko du belaunaldien arteko elkartasunean edo kontratu inplizituan oinarritzen den Ongizate-estatua: adin aktiboan dauden herritarrek erretiratuek jasotzen dituzten pentsioak ordaintzen dituzte eta, halaber, hurrengo belaunaldiko langile eskuetatik jasoko du pentsioa biztanleria aktibo horrexek. Adituen arabera, ondorioa da banaketa-sistema hori egokia zela egitura demografiko gazte batean, baina biztanleria zahartuago baten (XXI. mendekoa, alegia) pentsioak finantzatzeko gauza ez dela izango: 2020 edo 2025. urterako egoera jasanezina izango omen da, batetik, ordurako XX. mendeko belaunaldi jendetsuenen (*Garapen-aldi* frankistako baby boom hartan jaiotakoak) erretiroaren eraginak agertuko direlako eta, bestetik, egungo ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalen ondorioz, lanean sartuko den jendea gutxiago izango delako. Euskadin, aktiboa izan daitekeen biztanleriaren (lanean aritzeko adinean dagoena) eta 65 urtetik gorako biztanleriaren arteko erlazioa funtsez eraldatzen ari da zahartze prozesu azkar hori. Erlazio hori, 1981. urtean, 7, 2 lagun 65 urtez gorako 100 laguneko zen; 2001. urtean, 4,1ekoa zen erlazioa eta 2020. urtean, hainbat hipotesiren arabera, 2,5 ingurukoa izan liteke.¹¹

Euskal biztanleriaren zahartze prozesuak osasun-sisteman ere badu ondoriorik, pertsona zaharren kopurua handitzeak eta horien bizitza luzatzeak osasun-zerbitzuei dagozkien eskakizun sozialen gehikuntzan eragiten dutelako. Adibidez, 2020. urterako euskal biztanleriaren %25 65 urtetik gorakoa izatea espero da eta, hortaz, zaharren osasun-premiak aseko badira, gastu publikoa dezente handitu beharko da. *El*

¹¹ Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. *El envejecimiento de la población vasca: sus consecuencias económicas y sociales*, 51-53 orr. Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Gasteiz, 2005.

envejecimiento de la población vasca: sus consecuencias económicas y sociales argitalpenean adierazi den bezala: "Adina eta gastuaren arteko erlazioa esponentzialki areagotuz doa: 65 urtetik gorakoak biztanleriaren %17 baizik ez diren arren (2001), ospitaleko kostuen %45 eta farmaziako gastuen ia %80 egiten dute, eta sendagile eta erizainen kontsulta gehientsuenak ere eurak hartzen dituzte"¹².

Biztanleriaren zahartze prozesuak, gainera, familien egituraren aldaketa eragiten du: ugaldtu egin dira *habia hutsa* (seme-alaba emantzipatuak dituzten pertsona heldu eta zaharrak) eta *bizirik dirauen habia* (bakarrik bizi diren pertsona heldu eta zahar alargunak) motako familiak. Horrelako familiek, orokorki, seme-alabak dituzten familiek (*habia beteak*) baino kopuru txikiagoak kontsumitzen dituzte. Ildefonso Grande Estebanek bere artikuluan idatzi duenez¹³ "Biztanleriaren hazkundera gelditu egingo dela edo bere bilakaera positiboa oso geldoa izango dela hipotesizat hartzen badugu, erdietsitako emaitzek, oro har aztertuak, erakusten dute biztanleriaren zahartzeak, epe ertainera, baterako gastuaren uzkurdura ekarriko duela, *habia beteetatik habia hutsa* eta *bizirik dirauten habietara* lekualdatzeko joera nagusituko delako." Autorearen iritziz, *habia beteak habia hutsa* eta *bizirik dirauen habia* bilakatuz gero, gerta litekeen errenta-bolumen erantsiaren balizko murrizketak eragina izan lezake *a priori* famili giroko biziriklotik independente diren gastu-partidetan (etxebizitza, altzariak, garraioak, etxea mantentzea, erregaiak, apaindura, komunikazioak, eta antzeko gastuek ia-ia ez dute nozitzen eraginik familiaren egitura aldetik; errenta-bolumena, aitzitik, gastu horien baldintzatzaile da). Ondoren, Ildefonso Grande Esteban autorearen iritziz¹⁴ *habia bete*, *habia hutsa* eta *bizirik dirauten habietan*, ohikoak diren ondasun eta zerbitzuak zein diren aipatuko dugu.

¹² Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. El envejecimiento de la población vasca: sus consecuencias económicas y sociales, 81 orr. Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila, Gasteiz, 2005.

¹³ Grande Esteban, I. (2005): Influencia del cambio demográfico sobre la estructura del consumo, ahorro y endeudamiento de los hogares, in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 109-110 orr.. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

¹⁴ Grande Esteban, I. (2005): Influencia del cambio demográfico sobre la estructura del consumo, ahorro y endeudamiento de los hogares, in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 87 orr.. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

<i>Zikloaren etapak eta gutxi gorabeherako adina</i>	<i>Etxeko kideak</i>	<i>Ohiko ondasunak eta zerbitzuak</i>
Habia hutsa. 55 urtetik gora	Etxean seme-alabarik ez duten adineko senar-emazteak	<ul style="list-style-type: none"> • Hobekuntzak etxebizitzan • Bidaiak • Pentsio planak • Osasun-zerbitzuak
<i>Bizirik dirauena. Hirugarren adina</i>	Bakarrik bizi diren zaharrak	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-zerbitzuak • Garraioa • Botikak • Aisia • Bidaiak • Etxeko lanetarako laguntza

Eztabaida politiko-sozial horretan, beste aldetik, biztanleria zahartua geldialdi sozioekonomikoarekin (edo, areago, gainbeherarekin) identifikatzeko joera nabaritzen da. Identifikazio horren azpian datzan balorazio ideologikoa kritikatzeko modukoa da, gazteriaren pisu kuantitatiboa hazkunde eta aurrerapen ekonomikoekin mekanikoki erlazionatzen baitu, pertsona zahar gehiago egotea berrikuntzarik ezarekin eta gelditasunarekin identifikatzen den bitartean. Iritzi estereotipatu horren bitartez, pertsona zaharren diskriminazioa dakarren ikuspegi kaltegarria proiektatzen da; horrek laguntzen du, noski, hezkuntza, lana, boterea eta sari materialak adin-talde gazte eta helduen ia-ia monopolio izatea¹⁵. Egiari zor, aukera ideologiko horretan benetako kezka ekonomikoa da: behin betiko ez-aktibo (adiera ekonomiko-merkantilean) izango den bizitzaren luzapenak (urte gehiago) eta zabalpenak (lagun gehiago) eragingo duten gastua nola ordain litekeen, alegia.¹⁶

¹⁵ Anthony Giddens (1993): Sociología, 635 orr.. Alianza Universidad Textos, Madrid.

¹⁶ Sarribe, Graciela y Martínez, Javier (2002): La población europea. Editorial Síntesis, Madrid, 136 orr.

III. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEAK

Adieraz dezagun, ezer baino lehenago, egungo gazteak orain dela 15 eta 29 urte gertatu ziren jaiotzen emaitza demografikoa direla; beraz, 2005eko urtarrilaren 1erako datu ofizialak eskura ditugunez, 1975etik 1989ra bitartean jaiotako gazteak dira horiek. Epe horretan, Espainia eta EAeko gizarteetan nagusi ziren ugalkortasun eta jaiotza-tasetan, aldaketa arras esanguratsuak gertatu ziren, hala nola:

- Jaiotza-tasa gordinak¹⁷ (JTG), 1975ean, honakoak ziren: 1.000 biztanleko, bizirik jaiotako 18,76 ume Espainian, eta bizirik jaiotako 19,91 ume EAEn. 1989. urtean, JTG biziki apalagoak dira: 1000 biztanleko, bizirik jaiotako 10,53 ume eta bizirik jaiotako 8,07 ume, hurrenez hurren. Azpimarra dezagun, Euskadiri dagokionez, 1975eko tasa 1989koaren halako bi baino handiago zela.
- 1975eko ugalkortasun-indize sintetikoa¹⁸ (UIS) 2,81 ume zen emakume bakoitzeko Espainian eta 2,77 ume emakume bakoitzeko EAEn; 1989an adierazle hori seko jaitsi zen bi lurraldeetan: 1,39 eta 1,03 ume emakume bakoitzeko, hurrenez hurren. Horrenbestez, 1975etik 1989ra ugalkortasunaren gainbehera handia gertatu zen, belaunaldien arteko ordezkapenaren atalasez gainetik zebiltzan UIS haiek (2,1 ume emakume bakoitzeko) atalase horretaz dezente beheragoko balioetara jaitsi baitziren (horiek, beraz, ez dute bermatzen belaunaldien arteko ordezkapena).
- Ugalkortasun eta jaiotza-tasen gainbehera latz horien berehalako ondorioa da, logikoa denez, aztertzen gabiltzan epean jaiotako haur-kopuruaren beherakada latza eta, epe ertainera, baita gazteen kohorteak osaturiko kideen murrizketa ere: adinean aurrera joan ahala, 30 eta 34 urte bitartekoen taldera irteten diren gazteen kopurua 15 eta 19 urte bitartekoen taldean sartzen diren haurrena baino handiagoa da eta, aldi berean, talde horretako kideak 20 eta 24 urte bitartekoen taldekoak baino urriagoak dira.

¹⁷ JTG: bizirik jaiotako lagunak, mila biztanleko.

¹⁸ UIS: batez besteko ume-kopurua potentzialki ugalkor den kohorteko emakume bakoitzeko (15 - 49 urte).


- Epe luzeago batera, gazteen kopuruaren murrizketak ama izango diren nesken kopurua murriztea dakar; horrek, bere aldetik, ugalkortasuna egungo maila apaletan mantentzekotan, jaiotza-tasaren gainbehera ekarriko du, noski.

Kapitulu honetan garatu dugun lanari dagokiola, 15 eta 29 urte bitarteko kohorteak (baita 15 – 19, 20 – 24 eta 25 – 29 urte bitarteko kohortekoek, bost urteko taldetan banatuak) 1981etik 2005eko urtarrilaren 1era arte nozitu zuen bilakaerari emango diogu arreta. Ondoren, 1981ean eta 2005. urtearen hasieran, kohorte horrek eta bost urteko sailkaturiko taldeek biztanleria osoarekiko osatzen zituzten ehunekoak ezagutuko ditugu, gazteria-indizeei bereziki erreparatuz¹⁹. Bukatzeko, hiru lurralde-mailei (EAE eta Espainia, lurralde historikoak eta eskualdeak) dagozkien iruzkinak egingo ditugu, 2005eko urtarrilaren hasieran erroldaturiko biztanleria osoarekiko, sexuen arabera osatzen diren ehunekoak aztertuz. Hel gakizkion hariari.

3.1. Euskadi eta Espainia

Sexu biei dagokiela, 15 eta 29 urte bitarteko kohorteak bilakaera desberdina izan du EAEn eta Espainiako estatuan, 1981. eta 2005. urteen artean. Euskadiko kideek nabarmen egin dute behera (%-24,4) eta Espainian gutxi baina igo egin dira (%5,7).

¹⁹ Gazteria-indizea: sexu bietako 15 eta 29 urteko gizakiak, 1981ean edota 2005eko urtarrilaren 1ean erroldatutako biztanleriarekiko.




Bost urteka sailkaturiko taldeei dagokienez, ugalkortasun eta jaiotza-tasaren eroriko latzaren ondorioz (80ko hamarkadaren hasieran, batik bat), 15 eta 19 urte arteko gazteak (%-51,6) eta 20 eta 24 urte bitartekoak (%-27,4) asko murriztu direla ikusiko dugu eta horregatik gertatu da Euskadin gazteriaren gainbehera. 25 eta 29 urte bitarteko gazteak (1975-1979 artean jaiotakoak, hain zuzen), ordea, %10,5 ugalduta dira. Estatu espainiar osoan, aldiz, gazteen murrizketak 15 eta 19 urte bitartekoaren taldean bakarrik izan du eragina eta, izan ere, indar gutxiagoz (%-27,3 Espainian eta %-51,6 Euskadin). Oro har, Euskadik ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalagoak izatea eta atzerriko etorkin gutxiago izatea dira alde horren zergatiak.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN KOHORTEAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE
(1981=100)

Bi sexuetakoak	1981			2005				
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
EAE	190.768	176.087	157.479	524.334	94.326	127.753	174.056	396.135
<i>Bilakaera</i>	100,0	100,0	100,0	100,0	49,4	72,6	110,5	75,6
Espainia	3.263.311	2.942.177	2.537.421	8.742.909	2.371.423	3.031.633	3.842.364	9.245.420
<i>Bilakaera</i>	100,0	100,0	100,0	100,0	72,7	103,0	151,4	105,7

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolidaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Ondoko grafikoan ikusten ditugu 15 eta 29 urte bitarteko sexu bietako kohortea osatzen duten ehunekoak, biztanleria osoarekiko. 1981ean EAEn, 15 eta 29 urte bitarteko kohortea biztanleria osoarekiko %24,5 zen, baina 2005. urtearen hasieran, ehunekoa murriztu eta %18,6raino jaitsi da (ia-ia 6 puntu egin du behera). Espainia osoan ere urritu zen, baina motelago: %23,2tik %21ra, alegia (2,2 puntu gutxitu da).



15 eta 19 urte bitarteko taldearen ehunekoak eta 20 eta 24 urte bitartekoarenak biztanleria osoarekiko duten beherako bilakaera hori handiagoa izan da Euskadin. Ez da horrelakorik gertatu 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, ehunekoa handitu egin delako 1981etik 2005era, Espainian eta Euskadin taldeak bizi izan duen kideen hazkundeari esker.

EHUNEKOAK, BIZTANLERIA OSOAREKIKO, 1981EAN ETA 2005EAN

Bi sexuetaoak	1981			2005				
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
EAE	190.768	176.087	157.479	524.334	94.326	127.753	174.056	396.135
<i>Ehunekoak</i>	8,9	8,2	7,4	24,5	4,4	6,0	8,2	18,6
Espainia	3.263.311	2.942.177	2.537.421	8.742.909	2.371.423	3.031.633	3.842.364	9.245.420
<i>Ehunekoak</i>	8,7	7,8	6,7	23,2	5,4	6,9	8,7	21,0

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errodaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Sexuari dagokionez, 2005 hasieran gizonezkoak emakumeak baino gehixeago direla hauteman dugu, bai 15 eta 29 urte bitartekoen kohorte guztian, baita bost urteka sailkaturiko hiru talde horietako bakoitzean ere. Migrazio garrantzitsurik nozitu ez duen biztanleria batean diferentzia horren zergatia, funtsez, bizirik jaio diren 100 lagunetik 51 gizonezko eta 49 emakumezko izatean datza.

EHUNEKOAK, SEXUAREN ARABERA, BIZTANLERIA OSOAREKIKO, 2005-I-1EAN


Sexua	Gizonezkoak			Emakumeak				
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
EAE	48.363	65.469	89.690	203.522	45.963	62.284	84.366	192.613
<i>Ehunekoak</i>	2,3	3,1	4,2	9,6	2,2	2,9	4,0	9,1
Espainia	1.218.199	1.553.976	1.986.840	4.759.015	1.153.224	1.477.657	1.855.524	4.486.405
<i>Ehunekoak</i>	2,8	3,5	4,5	10,8	2,6	3,4	4,2	10,2

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errodaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

3.2. Lurralde historikoak

1981etik 2005era arte, Bizkaian jaitsi da gehien bi sexuetao 15 eta 29 urte bitartekoen kohortea (%-27,5), ondotik Gipuzkoa (%-26,1) datorkiola; Araban, jaitsiera aski apala izan da (%-5,8). Gazteen kohorteko kideen gainbehera, maila desberdinean bada ere, hiru lurralde historikoek nozitu duten fenomeno da. Zergatik, ordea, maila ezberdinean? Orokorki, lurralde historiko bakoitzean kokatuta dagoen biztanleriaren

adinen araberako egiturak desberdinak direlako gertatzen da hori. Gogoan izan dezagun Arabako demografia Bizkaia eta Gipuzkoakoa baino gazteagoa dela, eta beste bi lurraldeetan zahartze prozesuak eragin handiagoa duela.



Bost urteka sailkatutako hiru taldeetatik, 15 eta 19 urte bitartekoa da kide gehien galdu duena: %-52,5 Bizkaian, %-51,9 Gipuzkoan eta %-37,7 Araban. 20 eta 24 urte bitarteko taldeak eroriko arinagoa izan du, Araban bereziki (%-5,5), Bizkaian (%-31,1) eta Gipuzkoari (%-29). Hiru lurraldeetan ugaltze dirak 25 eta 29 urte bitarteko gazteak: Araban gehiago (%29,8) Bizkaian (%7,2) eta Gipuzkoan (%8,7) baino. Lehen bi adin-taldeen atzerako bilakaera hori, joan den mendeko 80ko hamarkadaren hasieran gertatu zen jaiotza-tasaren beherakadaren ondorioa da, orduan ugalkor zen kohorteko

emakume bakoitzeko (15 eta 49 urte bitartekoak) jaiotza-tasaren batez bestekoa ume 1era amildu baitzen.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN KOHORTEAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005 ARTE (1981=100)

Bi sexuetakoak	1981				2005			
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
Araba	22.441	20.369	19.988	62.798	13.975	19.258	25.949	59.182
<i>Bilakaera</i>	100	100	100	100	62,3	94,5	129,8	94,2
Bizkaia	106.065	99.589	86.416	292.070	50.426	68.633	92.604	211.663
<i>Bilakaera</i>	100	100	100	100	47,5	68,9	107,2	72,5
Gipuzkoa	62.262	56.129	51.075	169.466	29.925	39.862	55.503	125.290
<i>Bilakaera</i>	100	100	100	100	48,1	71,0	108,7	73,9


Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Sexu bietako 15 eta 29 urte bitartekoaren kohortea osatzen duten ehunekoak, 2005eko urtarrilaren 1eko biztanleria osoarekiko, 1981ekoak baino puntu batzuk (4tik 6ra) apalagoak dira: urte hartan, lurralde historiko bakoitzean bizi ziren ia lau biztanletik bat 15 eta 29 urte bitartekoa zen; 2005. urtearen hasieran, berriz, adin horretakoak bostetik bat (Araba) edo ia-ia seitik bat (Bizkaia eta Gipuzkoa) baizik ez dira.

EHUNEKOAK, BIZTANLERIA OSOAREKIKO, 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

Bi sexuetakoak	1981				2005			
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
Araba	22.441	20.369	19.988	62.798	13.975	19.258	25.949	59.182
<i>Ehunekoak</i>	8,7	7,9	7,8	24,4	4,7	6,4	8,7	19,7
Bizkaia	106.065	99.589	86.416	292.070	50.426	68.633	92.604	211.663
<i>Ehunekoak</i>	8,9	8,4	7,3	24,6	4,4	6,0	8,2	18,6
Gipuzkoa	62.262	56.129	51.075	169.466	29.925	39.862	55.503	125.290
<i>Ehunekoak</i>	9,0	8,1	7,4	24,4	4,3	5,8	8,1	18,2

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.



Bost urteka sailkaturiko taldeetan, 15 eta 19 urte bitarteko kideak eta 20 eta 24 urte bitartekoak biztanleria osoarekiko urritu egin dira, hiru lurralde historikoetan (lehenean, indizea ia erdiraino amildu da), 25 eta 29 urte bitarteko taldean ez bezala: hauen ehunekoak zerbait ugaltu dira hiru lurralde historikoetan.

Sexuen araberako ehunekoz ari garela, 2005. urtearen hasieran, 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoak biztanleria osoaren %8,8 (Gipuzkoa) eta %9,5 (Araba) artean daude eta gizonezkoak %9,4 (Gipuzkoa) eta %10,2 (Araba) artean. Goian adierazi dugun bezala, bost urteka sailkaturiko talde guztietan, gizonezkoak emakumeak baino pitin bat ugariago dira, 100 jaiotzatik 51 edo 52 gizonezkoak izaten direlako. Eskuarki, garrantzi handirik gabeko migrazioa duen biztanleriaren baitan, helduen kohortean bi sexu-tako kideen kopurua antzekoa da, baina heldu eta zaharren artean emakume gehiago dago, bizi-itxaropen luzeagoa baitute.

EHUNEKOAK, SEXUAREN ARABERA, BIZTANLERIA OSOAREKIKO, 2005-I-1EAN

Sexua	Gizonezkoak			Emakumeak				
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
Araba	7.160	9.936	13.495	30.591	6.815	9.322	12.454	28.591
<i>Ehunezkoak</i>	2,4	3,3	4,5	10,2	2,3	3,1	4,2	9,5
Bizkaia	25.834	35.002	47.411	108.247	24.592	33.631	45.193	103.416
<i>Ehunezkoak</i>	2,3	3,1	4,2	9,5	2,2	3,0	4,0	9,1
Gipuzkoa	15.369	20.531	28.784	64.684	14.556	19.331	26.719	60.606
<i>Ehunezkoak</i>	2,2	3,0	4,2	9,4	2,1	2,8	3,9	8,8

Iturria: Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

3.3. Eskualdeak

1981etik 2005eko urtarrilaren 1era arte, bi eskualdetan baino ez ziren urritu bi sexueta 15 eta 29 urte bitarteko gazteak: Arabako Lautadan (bertan, apalki bada ere, %0,9 ugaldu baitziren) eta Plentzia-Mungian, bertako hazkundera esanguratsua izan zelarik (%15). Gainerako 18 eskualdeetan gazteen kopurua urritu egin zen. Hona jaitsiera larrienak:

- %-30etik gorakoak: Arabako Mendialdea (%-47,6), Deba Beherea (%-41), Goierri (%-32,2) eta Markina-Ondarroa (%-33,7).
- %-25etik %-30era arte: Arabako Ibarak (%-27,2), Arratia Nerbioi (%-28,2), Bilbo Handia (%-28,3), Deba Garaia (%-29,8), Enkartzioak (%-27,5) eta Tolosaldea (%-27,6).

Laburbilduz, 15 eta 29 urte bitarteko sexu bietako kohorteko kideen murrizketa orokorra izan da eta eskualdeetako habit guztietan izan du eragina, bai landa ingurunean, baita metropolietan ere. Fenomeno demografiko hori, 70eko hamarkadaren bigarren erdian hasita, ugalkortasun eta jaiotza-tasen gainbehera handien zuzeneko ondorioa da.

Bost urteka sailkaturiko taldeen arabera, gutxikuntza handienak 15 eta 19 urte bitarteko gazterian gertatu dira: adin-talde horrek, 1981en eta 2005. urtearen hasiera bitartean, eskualde guztietan nozitu badu ere jaitsiera, 10 eskualdetan galera %50etik gorakoa izan da: Arabako Ibarak (%-59,3), Arabako Mendialdea (%-69,6), Bilbo Handia (%-54,1), Deba Beherea (%-61,1), Deba Garaia (%-53,2), Donostialdea (%-

51,7), Gernika-Bermeo (%-50,6), Goierri (%-58,2), Markina-Ondarroa (%-53,8) eta Tolosaldea (%-50,4), hain zuzen.

Hurrengo adin-taldean, 20 eta 24 urte bitartekoen taldeko kideen galera hauteman da 18 eskualdetan, salbuespena Arabako Lautada (%+1,2) eta Plentzia-Mungia (%+10,9) izanik. 9 eskualdetan atzerakada %30etik gorakoa da: Arabako Ibarak (%-35,8), Arabako Mendialdea (%-50,6), Arratia Nerbioi (%-37,8), Bilbo Handia (%-31,8), Deba Beherea (%-44,7), Enkartzioak (%-31,8), Goierri (%-35,7), Markina-Ondarroa (%-36,2) eta Tolosaldea (%-33,4).

25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean oso bestelako bilakaera ikusi dugu, 16 eskualdetan kideak ugaltu egin baitira eta atzerakada 4tan bakarrik gertatu: Arabako Mendialdea (%-9,1), Deba Beherea (%-13,1), Deba Garaia (%-3,2) eta Markina-Ondarroa (%-5). Beste muturrean, 6 eskualdetan, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen ugaltza %20tik gorakoa izan zen, 1981etik 2005eko urtarilaren 1era arte: Arabako Ibarak (%+40,6), Lautada (%+35,4), Bidasoa Beherea (%+28,6), Errioxa Arabarra (%+20), Plentzia-Mungia (%+48,7) eta Urola-Kostaldea (%+25,5).

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN KOHORTEAREN BILAKAERA 1981ETIK 2005-I-1 ARTE (1981=100)


<i>Bi sexu</i> etakoak	1981				2005			
<i>Eskualdeak</i>	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
Arabako Ibarak	423	344	244	1011	172	221	343	736
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	40,7	64,2	140,6	72,8
Arabako Lautada	16.661	15.622	15.757	48.040	11.323	15.811	21.328	48.462
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	68,0	101,2	135,4	100,9
Arabako Mendialdea	349	269	220	838	106	133	200	439
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	30,4	49,4	90,9	52,4
Arratia Nerbioi	1.877	1.917	1.652	5.446	974	1.193	1.744	3.911
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	51,9	62,2	105,6	71,8
Bidasoa Beherea	5.251	5.098	5.001	15.350	3.244	4.614	6.433	14.291
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	61,8	90,5	128,6	93,1
Bilbo Handia	83.584	77.529	66.143	227.256	38.378	52.900	71.619	162.897
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	45,9	68,2	108,3	71,7
Deba Beherea	5.775	5.674	4.876	16.325	2.249	3.139	4.239	9.627
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	38,9	55,3	86,9	59,0
Deba Garaia	6.106	5.410	4.961	16.477	2.858	3.903	4.803	11.564
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	46,8	72,1	96,8	70,2
Donostialdea	27.761	24.154	22.536	74.451	13.411	17.774	25.435	56.620
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	48,3	73,6	112,9	76,1
Durangaldea	7.968	7.301	6.720	21.989	4.392	5.881	7.719	17.992
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	55,1	80,6	114,9	81,8
Enkartzazioak	2.711	2.581	2.220	7.512	1.372	1.759	2.317	5.448
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	50,6	68,2	104,4	72,5
Errioxa Arabarra	837	769	625	2.231	462	597	750	1.809
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	55,2	77,6	120,0	81,1
Gernika-Bermeo	3.809	3.508	3.068	10.385	1.881	2.641	3.468	7.990
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	49,4	75,3	113,0	76,9
Goierri	6.741	5.907	4.962	17.610	2.817	3.823	5.300	11.940
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	41,8	64,7	106,8	67,8
Gorbeia Inguruak	507	516	444	1467	304	378	503	1185
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	60,0	73,3	113,3	80,8
Kantauri Arabarra	3.206	2.703	2.520	8.429	1.605	2.116	2.784	6.505
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	50,1	78,3	110,5	77,2
Markina-Ondarroa	2.533	2.327	1.971	6.831	1.169	1.484	1.873	4.526
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	46,2	63,8	95,0	66,3
Plentzia-Mungia	2.646	2.535	2.608	7.789	2.267	2.811	3.879	8.957
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	85,7	110,9	148,7	115,0
Tolosaldea	4.042	3.786	3.459	11.287	2.004	2.521	3.642	8.167
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	49,6	66,6	105,3	72,4
Urola-Kostaldea	5.678	5.153	4.562	15.393	3.367	4.127	5.727	13.221
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	59,3	80,1	125,5	85,9
Euskal Autonomia Erkidegoa	190.768	176.087	157.479	524.334	94.326	127.753	174.056	396.135
<i>Aldakuntza</i>	100,0	100,0	100,0	100	49,4	72,6	110,5	75,6

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

Gazteria-indizeak direla eta, ondoko grafikoan ikusten dugunez, atzerakada eskualde denetan gertatu zen: biztanleria osoarekiko, sexu bietako 15 – 29 urte bitarteko gazteek 2005. urtearen hasieran osatzen duten ehunekoa 1981ekoa baino apalagoa da. Aipa ditzagun jarraian 2005eko urtarrilaren 1ean gazteria-indize garaienak eta apalenak izan zituzten eskualdeak:

- ↪ Indize apalenak: biztanleria erroldatuan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen presentzia erlatiboa apalagoa da: Arabako Ibarak (%14,2), Arabako Mendialdea (%13,8) eta Gorbeia Inguruak (%15,4).

- ↪ Indize garaienak: biztanleria erroldatuan 15 eta 29 urte bitarteko gazteen presentzia erlatiboa handiagoa da: Arabako Lautada (%20,2), Durangaldea (%19,4), Kantauri Arabarra (%19,5) eta Urola-Kostaldea (%19,2).



Adin-talde bakoitzak biztanleria osoarekiko osatzen duen ehunekoei dagokienez, adieraz dezagun, 1981ean, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen ehunekoak 25 eta 29 urte bitartekoenak baino handiagoak zirela baina, 2005. urtearen hasieran, proportzio hori alderantzikatu egin da eskualde guztietan. Hori, noski, aztertzen ari garen aldian, ugalkortasun eta jaiotza-tasak nozituriko atzerakadaren seinale da, argi eta garbi.

EHUNEKOAK BIZTANLERIA OSOAREKIKO 1981EAN ETA 2005-I-1EAN

<i>Bi sexuetakoak</i>	1981				2005			
<i>Eskualdeak</i>	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
Arabako Ibarrek	423	344	244	1011	172	221	343	736
<i>Ehunekoak</i>	9,9	8,1	5,7	23,7	3,3	4,3	6,6	14,2
Arabako Lautada	16.661	15.622	15.757	48.040	11.323	15.811	21.328	48.462
<i>Ehunekoak</i>	8,3	7,8	7,9	23,9	4,7	6,6	8,9	20,2
Arabako Mendialdea	349	269	220	838	106	133	200	439
<i>Ehunekoak</i>	9,6	7,4	6,0	23,0	3,3	4,2	6,3	13,8
Arratia Nerbioi	1.877	1.917	1.652	5.446	974	1.193	1.744	3.911
<i>Ehunekoak</i>	8,4	8,6	7,4	24,4	4,4	5,4	7,9	17,8
Bidasoa Beherea	5.251	5.098	5.001	15.350	3.244	4.614	6.433	14.291
<i>Ehunekoak</i>	8,1	7,9	7,7	23,7	4,3	6,1	8,5	18,9
Bilbo Handia	83.584	77.529	66.143	227.256	38.378	52.900	71.619	162.897
<i>Ehunekoak</i>	8,9	8,3	7,1	24,3	4,4	6,1	8,2	18,7
Deba Beherea	5.775	5.674	4.876	16.325	2.249	3.139	4.239	9.627
<i>Ehunekoak</i>	8,7	8,5	7,3	24,5	4,2	5,8	7,8	17,8
Deba Garaia	6.106	5.410	4.961	16.477	2.858	3.903	4.803	11.564
<i>Ehunekoak</i>	9,1	8,1	7,4	24,5	4,6	6,3	7,8	18,7
Donostialdea	27.761	24.154	22.536	74.451	13.411	17.774	25.435	56.620
<i>Ehunekoak</i>	8,7	7,6	7,1	23,4	4,2	5,6	8,0	17,8
Durangaldea	7.968	7.301	6.720	21.989	4.392	5.881	7.719	17.992
<i>Ehunekoak</i>	8,8	8,0	7,4	24,2	4,7	6,3	8,3	19,4
Enkartzioak	2.711	2.581	2.220	7.512	1.372	1.759	2.317	5.448
<i>Ehunekoak</i>	8,7	8,2	7,1	24,0	4,5	5,8	7,7	18,0
Errioxa Arabarra	837	769	625	2.231	462	597	750	1.809
<i>Ehunekoak</i>	8,8	8,0	6,5	23,3	4,3	5,6	7,0	16,9
Gernika-Bermeo	3.809	3.508	3.068	10.385	1.881	2.641	3.468	7.990
<i>Ehunekoak</i>	8,2	7,6	6,6	22,5	4,2	5,9	7,7	17,8
Goierri	6.741	5.907	4.962	17.610	2.817	3.823	5.300	11.940
<i>Ehunekoak</i>	9,6	8,4	7,1	25,1	4,4	5,9	8,2	18,5
Gorbeia Inguruak	507	516	444	1.467	304	378	503	1.185
<i>Ehunekoak</i>	8,9	9,1	7,8	25,8	4,0	4,9	6,6	15,4
Kantauri Arabarra	3.206	2.703	2.520	8.429	1.605	2.116	2.784	6.505
<i>Ehunekoak</i>	9,4	7,9	7,4	24,7	4,8	6,4	8,4	19,5
Markina-Ondarroa	2.533	2.327	1.971	6.831	1.169	1.484	1.873	4.526
<i>Ehunekoak</i>	9,0	8,3	7,0	24,3	4,5	5,7	7,2	17,4
Plentzia-Mungia	2.646	2.535	2.608	7.789	2.267	2.811	3.879	8.957
<i>Ehunekoak</i>	7,9	7,6	7,8	23,2	4,7	5,8	8,0	18,4
Tolosaldea	4.042	3.786	3.459	11.287	2.004	2.521	3.642	8.167
<i>Ehunekoak</i>	8,7	8,1	7,4	24,2	4,4	5,5	8,0	18,0
Urola-Kostaldea	5.678	5.153	4.562	15.393	3.367	4.127	5.727	13.221

<i>Ehunekoak</i>	9,2	8,4	7,4	25,1	4,9	6,0	8,3	19,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	190.768	176.087	157.479	524.334	94.326	127.753	174.056	396.135
<i>Ehunekoak</i>	8,9	8,2	7,4	24,5	4,4	6,0	8,2	18,6

Iturria: 1981eko Biztanleriaren Zentsua eta Udal-errolaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

2005eko urtarrilaren 1ean errolatua zegoen biztanleria osoarekiko sexuen arabera ehunekoei dagokienez, 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoak adin horretako emakumeak baino ugariago dira, honako hiru toki hauetan izan ezik: Bilbo Handia (%9,1 emakume eta %8,9 gizonezko), Deba Beherea (%9 emakume eta %8,9 gizonezko) eta Goierri (%8,9 emakume eta %8,8 gizonezko). Oro har, 15 eta 29 urte bitartekoen kohortean eta migrazio-prozesu garrantzitsuak nozitu ez dituzten biztanleriez ari garela, gizonezko gehiago izan ohi dago emakumezkoa baino, gizonezko jaiotzeko aukera handixeagoa baita: 100 jaiotzatik %51-%52 gizonezkoak dira.

Bukatzeko, EAEn errolaturiko biztanleria osoarekiko, 15 eta 29 urte bitarteko gizaseme eta emakumeek osatzen duten ehunekoaren parean edo goragotik agertu diren 6 eskualdeak (%9,6 gizonezko eta %9,1 emakume) aipa ditzagun:

- Lautada (%12,5 gizonezko eta %9,8 emakume), Bidasoa Beherea (%11,4 gizonezko eta %9,2 emakume), Durangaldea (%10,2 gizonezko eta %9,4 emakume), Kantauri Arabarra (%9,9 gizonezko eta %9,4 emakume), Plentzia-Mungia (%13,6 gizonezko eta %9,1 emakume) eta Urola-Kostaldea (%11,1 gizonezko eta %9,3 emakume).

EHUNEKOAK, SEXUAREN ARABERA, BIZTANLERIA OSOAREKIKO 2005-I-1EAN

<i>Sexua</i>	<i>Gizonezkoak</i>				<i>Emakumeak</i>			
<i>Eskualdeak</i>	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 29
Arabako Ibarak	90	111	178	379	82	110	165	357
<i>Ehunekoak</i>	2,1	2,6	4,2	8,9	1,6	2,1	3,2	6,9
Arabako Lautada	5.819	8.098	11.089	25.006	5.504	7.713	10.239	23.456
<i>Ehunekoak</i>	2,9	4,0	5,5	12,5	2,3	3,2	4,3	9,8
Arabako Mendialdea	56	81	115	252	50	52	85	187
<i>Ehunekoak</i>	1,5	2,2	3,2	6,9	1,6	1,6	2,7	5,9
Arratia Nerbioi	496	623	915	2.034	478	570	829	1.877
<i>Ehunekoak</i>	2,2	2,8	4,1	9,1	2,2	2,6	3,8	8,5
Bidasoa Beherea	1.698	2.374	3.312	7.384	1.546	2.240	3.121	6.907
<i>Ehunekoak</i>	2,6	3,7	5,1	11,4	2,0	3,0	4,1	9,2

Bilbo Handia	19.776	26.817	36.600	83.193	18.602	26.083	35.019	79.704
<i>Ehuneakoak</i>	2,1	2,9	3,9	8,9	2,1	3,0	4,0	9,1
Deba Beherea	1.144	1.655	2.243	5.042	1.105	1.484	1.996	4.585
<i>Ehuneakoak</i>	1,7	2,5	3,4	7,6	2,0	2,7	3,7	8,5
Deba Garaia	1462	2022	2511	5995	1396	1881	2292	5569
<i>Ehuneakoak</i>	2,2	3,0	3,7	8,9	2,3	3,0	3,7	9,0
Donostialdea	6.833	9.067	13.193	29.093	6.578	8.707	12.242	27.527
<i>Ehuneakoak</i>	2,1	2,9	4,2	9,2	2,1	2,7	3,8	8,6
Durungaldea	2204	3091	3997	9292	2188	2790	3722	8700
<i>Ehuneakoak</i>	2,4	3,4	4,4	10,2	2,4	3,0	4,0	9,4
Enkartzioak	688	906	1.198	2.792	684	853	1.119	2.656
<i>Ehuneakoak</i>	2,2	2,9	3,8	8,9	2,3	2,8	3,7	8,8
Errioxa Arabarra	231	309	402	942	231	288	348	867
<i>Ehuneakoak</i>	2,4	3,2	4,2	9,9	2,2	2,7	3,3	8,1
Gernika-Bermeo	915	1.353	1.808	4.076	966	1.288	1.660	3.914
<i>Ehuneakoak</i>	2,0	2,9	3,9	8,8	2,2	2,9	3,7	8,7
Goierri	1443	2006	2739	6188	1374	1817	2561	5752
<i>Ehuneakoak</i>	2,1	2,9	3,9	8,8	2,1	2,8	4,0	8,9
Gorbeia Inguruak	153	202	239	594	151	176	264	591
<i>Ehuneakoak</i>	2,7	3,5	4,2	10,4	2,0	2,3	3,4	7,7
Kantauri Arabarra	811	1.132	1.446	3.389	794	984	1.338	3.116
<i>Ehuneakoak</i>	2,4	3,3	4,2	9,9	2,4	3,0	4,0	9,4
Markina-Ondarroa	615	766	995	2.376	554	718	878	2.150
<i>Ehuneakoak</i>	2,2	2,7	3,5	8,4	2,1	2,8	3,4	8,2
Plentzia-Mungia	1150	1474	1926	4550	1117	1337	1953	4407
<i>Ehuneakoak</i>	3,4	4,4	5,7	13,6	2,3	2,7	4,0	9,1
Tolosaldea	1.003	1.312	1.905	4.220	1.001	1.209	1.737	3.947
<i>Ehuneakoak</i>	2,1	2,8	4,1	9,0	2,2	2,7	3,8	8,7
Urola-Kostaldea	1.799	2.111	2.925	6.835	1.568	2.016	2.802	6.386
<i>Ehuneakoak</i>	2,9	3,4	4,8	11,1	2,3	2,9	4,1	9,3
Euskal Autonomia Erkidegoa	48.363	65.469	89.690	203.522	45.963	62.284	84.366	192.613
<i>Ehuneakoak</i>	2,3	3,1	4,2	9,6	2,2	2,9	4,0	9,1

Iturria: Udal-eroldaren Berrikuntza 2005-I-1ean. INE eta EUSTAT.

3.4. Ondorioak

2005. urtearen hasieran, gazteria-indizea (sexu bietako 15 eta 29 urte bitartekoak, biztanleria osoarekiko) nabarmen urriagoa da Euskadin Espainiakoaren aldean: %18,6 eta %21, hurrenez hurren. Beherakada handiagoa nozitu zuen, 1981. urtea hartzen badugu erreferentzia modura: 5,9 puntu galdu ditu Euskadin eta 2,2 Espainian.

Bost urteka sailkaturiko taldeez ari garela, Espainia osoan, gainbeherak zergatik izan du eragina 15 eta 19 urte bitarteko taldean bakarrik? Eta, gainera, zergatik ez du horrenbestearainoko eragina izan (%-27,3 Espainian eta %-51,6 Euskadin)? EAEn, aitzitik, zergatik murriztu dira horrenbeste 15 eta 19 urte bitarteko gazteak (%-51,6) eta

20 eta 24 urte bitartekoak (%-27,4)? Batez ere, elkarrekin loturiko bi faktoreren ondorio da hori:

- a) Ugalkortasun eta jaiotza-tasak Espainia osoan Euskadin baino atzerakada motelxeagoa nozitu dute, hurrengo kapitulu batean zehatzago ikusiko dugun bezala.
- b) Atzeritik iritsitako etorkinak demografia espainiarra gaztetzen ari dira, talde horretan pertsona gazteak ugari dira eta. Atzerriko migrazioen eragina EAEn garrantzi apalagokoa denez, euskal piramide demografikoa gaztetzen ez dute askorik laguntzen eta inondik ere ez da gauza gazte-taldeko kideak gazte-helduen talderako irteera orekatzeko.

Ugalkortasun eta jaiotza-tasak egungo balioetan irautekotan, 15 eta 29 urte bitartekoen kohorteko kideen gainbehera kuantitatiboak bere horretan segituko du eta horrek, bere aldetik, epe luzera ondorio sozioekonomikoak ekarriko ditu; horra horietako batzuk:

📁 Ikasle-biztanleriaren galera nabarmenerako joera: horren ondorioz, etengabe aldatzen ari den testuinguru tekniko-ekonomiko globalizatuan, jardunean dauden gazte eta helduak etengabe prestatu eta beren prestakuntza eguneratzea jomuga, hezkuntza-sisteman berrikuntzak egin beharko dira bere bideragarritasun ekonomiko eta soziala bermatu ahal izateko (ikasle bakoitzeko gastu publikoa areagotzea, baliabideen erabilera eskasa, etab.). Gabriel Cárceles Breis-ek²⁰ bere artikuluan adierazi duenez "Irakaskuntzari dagokionez, gure inguruko herrialdeetan hautematen den kezka da biztanleriaren ezagutza eta prestakuntza mailak altxatzea, bai tarte arautu eta derrigorrezkoetan, bai eta helduen lanbide-heziketa, birziklatze eta etengabeko prestakuntza alorretan ere, gaur egun gizarteak behar bezala funtzionatuko badu, berrikuntza eta etengabeko aldaketa eskatzen zaizkiola ikusirik. Azken hamarkadetan, analfabetismo nozioak indarra galdu du herrialde aurreratuenetan; egun, adin handi samarreko taldeetan bazterreko faktorea izan ohi da baina, horren ordez, gure inguruko martxa hartzeko, eguneroko bizitza

²⁰ Gabriel Cárceles Breis (2005): 'El reto de los servicios de educación en el nuevo orden demográfico in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 201 orr. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

kudeatzera iristeko (alfabetizazio funtzionala) premiak bizirik dirau eta hori etengabeko inbertsioa da (pertsonala edo organizatua).'

📁 Biztanleria aktiboa jaisteko joera, lan-merkatutik irteten direnak (erretiroa hartzea, gaixotasunak, ezintasunak, hilkortasuna, etab.) jarduera ekonomikoan sartzen diren gazteak baino gehiago diren heinean. Testuinguru demografiko horretan, bete gabeko enpleguen eskaintzak ugalduko dira eta gazte aktiboek, seguru asko, lan-merkatuetan enplegua hartzeko aukera hobekak izango dute, enplegu-eskatzailen kopurua dezente txikiagoa izango baita (gazteriaren langabezia-tasen murrizketa esanguratsua). Beste aldetik, lanean diharduten gazte aktiboek *merkatuan negoziatzeko izango duten ahalmen soziala*²¹ indartu egingo da lan-merkatuetan.

📁 Familia bizitzako '*Habia betea II eta III*' zikloaren faseetan dauden gazteak bizi diren etxebizitzetan, horiek eskatzen dituzten ondasun eta zerbitzuen kontsumoa murriztuko da; horrek eragin kaltegarria izango du kontsumo-merkatu horretan espezializaturiko enpresa eta jarduera-adarretan (elikagaiak, arropa eta osagarriak, etxetresna elektriko txikiak, hezkuntza, automobil-industria eta garraioa, etab.). Ondoren, Ildfonso Grande Esteban-en arabera²² '*habia betea II eta III*' izeneko etapetan bizi diren etxeetan, ohikoak diren ondasun eta zerbitzuak aipatuko ditugu:

²¹ Hauxe da termino horrekin adierazi nahi duguna: gizaki edo gizatalde batek, soldata jakin bat eta lan-baldintza jakin batzuk eskaintzen zaizkionean, enplegua onartu edo arbuizatzeko duen gaitasun edo jarrera; horrek adierazten duen onarpen-mailatik behera, horrenbestez, enplegua hartzeko aukerak onartezinak lirateke. Prieto, Carlos (1994): *Trabajadores y condiciones de trabajo*. Ediciones HOAC, Madril.

²² Grande Esteban, I.: (2005): *Influencia del cambio demográfico sobre la estructura del consumo, ahorro y endeudamiento de los hogares*, in *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*, 87 orr. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

Zikloaren etapak eta gutxi gorabeherako adina	Etxeko kideak	Ohiko ondasun eta zerbitzuak
Habia betea II. 41-50 urte	Senar-emazte gazteak, seme-alaba nerabe eta gazteak dituztenak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeak • Elikadura • Jantziak eta oinetakoak • Etxebizitza berria • Kirol-materiala • Maileguak • Inbertsio-gaiak • Pentsio-planak
Habia betea III. 50-60 urte	Senar-emazte helduak, seme-alaba gazteak dituztenak, eta azken horietakoren bat etxetik alde egitear	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitate-ikasketak • Bigarren ibilgailua • Altzariak eta etxebizitza • Liburuak eta aldizkariak • Bidaiak • Inbertsio-gaiak • Pentsio-planak

Lehenago ere azpimarratu dugun modura, egungo ugalkortasun urria aldatzen ez bada, euskal biztanleriaren zahartze prozesua azkarra eta biziagoa izango da, hurrengo bosturtekoetan umeak ekarriko dituzten amak egungo 15 eta 29 urte bitarteko gazteak izango baitira: gogoan izan horien kopurua nabarmen urritu dela, aurreko hamarkaden aldean. Piramidearen oinarriak (haurrak), beraz, estutzen segituko du, biztanleriaren zahartze prozesua berrelikatuz:

Haur gutxiago ⇒ gazte gutxiago ⇒ ugalkortasun adinean pertsona heldu eta ama gutxiago ⇒ haur gutxiago.

Testuinguru demografiko horretan, 'habia hutsik' (seme-alabarik gabeko 55 urtez gorakoek osaturiko bikoteak) eta 'bizirik dirauen habia' (bakarrik bizi diren zahar alargunduak) faseetan bizi diren etxeen nahi eta premiak asetzen espezializatutako ondasun eta zerbitzuen eskakizuna areagotu egingo da. Horrelako etxeak, izan ere, nabarmen ugalduko dira zahartze prozesuak aurrera egin ahala, 64 urtetik gorako kohortean, joan den mendeko 'baby-boom' aldian (1959-75) jaiotako biztanleak sartzean, bereziki.

IV. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA ZIBILA

Sarrera gisa, esan dezagun ezkongabeen kolektiboa biziki ugalduta dela gazteen artean, hainbat faktoreren eraginez; azpimarra ditzagun:

- a) Hezten eta prestatzen gazteak eman beharreko denbora luzatzea: lanean sartzeko zailtasun latzengatik edota industriondoko gizarteetan eta informazio-gizartean hezkuntza eta prestakuntzari aitortzen zaion balio handiagatik, gazterik gehientsuenek ikasten segitzen dute bigarren hezkuntza gainditutakoan ere. Ikaslearen estatusa gurasoekiko menpekotasun ekonomikoan gertatu ohi denez, ezkongabe-egoerarekin oso positiboki lotzen da.
- b) Gazte gehientsuenek lanean sartzeko ibilbidearen ezaugarri bereizgarrietako bat lan-prekarietatea da: kontratuen behin-behinekotasuna eta soldata urriak, alegia; baldintza kaltegarri horiek ezkongabe-aldia luzatzea bultzatzen dute. Lan-prekarietateak, hein handi batean, ezkontzeko gogoak kentzen die gazteei, ezkontzea familia berri bat sortzearekin identifikatu ohi delako eta horrek gurasoen etxetik at etxebizitza hartzea eskatzen duelako eta, jakina, familia proiektu autonomo bat garatu ahal izateko behar adinako diru-sarrera ezinbestekoa da. Bikotekide egonkorra duten gazteek, eskuarki, ezkondu aurretik, beren lan egoera hobetu arte (kontratu finkoa eta soldata handiagoa) itxaroten dute.
- c) Etxebizitza-merkatuko prezioen inflazioa: gurasoengandik aparte, ezkonduetakoak beren etxean bizitzearekin identifikatu izan da matrimonioa sozialki, horiek familia berria sortuko dute-eta. Halaz ere, joan den 80ko hamarkadaren amaieran, etxebizitzek izan zuten prezio igoera izugarriagatik eta 90eko hamarkadaz geroztik ere, prezioek gora jarraitzen dutelako, gazteek zailtasun handiak dituzte etxebizitza erosteko; beraz, ezkontzeko unea ere geroratu egin da. Adiera horretan, ezkondu egoera eta etxejabe egoera hertsiki identifikatu izanak are eta gehiago geroratzen du gazteen arteko ezkontza, egun etxebizitza bat jabetzan hartzeko aurrezki eta kaudimen ekonomiko

handiagoa eskatzen baitzaio gazteari. Era berean, alokatzeko etxebizitza gutxi dagoelako, horrelakoen errentak garestiak direlako eta kontratuak ere behin-behinekoak izaten direlako, ospe txarra du horrelako jabetza-erregimenak bikotekide iraunkorra duten gazteen artean; alokatzeko etxea hartzea ez dute aukera ona ikusten, 'dirua alferrik xahutzeko' modua eta behin-behineko neurria iruditzen zaie.

Ondoren, estatu zibilaren arabera eta 1991 - 2001²³ aldiari dagokionez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen ehunekoaren arabera banaketa zein den ikusiko dugu, hurrengo bereizketak eginez: 'ezkongabeak', 'ezkonduak' eta 'alargun, dibortziatu eta legez bananduak'²⁴.

4.1. Euskadi eta Espainia

Sexu bietako 15 eta 29 urte bitartekoen kohorteari dagozkion datu estatistikoez ari garela, azpimarra dezagun 1991tik 2001era arte, ezkongabetasun-indizea areagotu egin dela, bai EAEn (%84,7tik %89,9ra) baita Espainiako estatuan ere (%77,7tik %86,2ra), ezkonduak zeukaten garrantzi erlatiboa bi herrialde horietan jaitsi den bitartean. Nolanahi ere, aipa dezagun errolda egin den bi urte horietan, ezkongabetasun-indizeak handiagoak direla Euskadin bizi diren gazteen artean. Seguru asko, goian azaldu ditugun faktoreek euskal gizartean eragin biziagoa izatearen ondorioa izango da.


15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, EGOERA ZIBILAREN ARABERA 1991N ETA 2001EAN (%)

Bi sexuetakoak	1991			2001		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
EAE	84,7	14,7	0,5	89,9	9,7	0,5
Espainia	77,7	21,6	0,6	86,2	13,0	0,9

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

²³ Aldiari ez diogu hasiera ipini 1981ean, urte hartan INE-ren web orrian, aldagai horri buruzko daturik agertzen ez delako.

²⁴ EUSTATen datu-basean alargun, dibortziatu eta legez bananduen egoerak taldekaturik agertzen direnez, horrelaxe jaso ditugu geure taula eta grafikoetan.




Sexua ere aintzat hartzean, 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoek emakumezkoek baino ezkongabetasun-indize altuagoak agertzen dituzte ikusi dugu, bai EAEn bai Espainian. Bestela esateko, 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoek ezkontzeko joera handixeagoa dute adin bereko gizasemeek baino: 2001. urtean, adibidez, emakume ezkonduen indizea gizaseme ezkonduenaren halako bi zen (%13 eta %6,5 Euskadin; %16,6 eta %9,5 Espainian). Beste aldetik, sexu batean zein bestean, ezkongabetasun-indizeak altuagoak dira Euskadin Espainiako estatuan baino.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, EGOERA ZIBILAREN ETA SEXUAREN ARABERA, 1991N ETA 2001EAN (%)

Sexuak	1991			2001		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
EAE						
Gizonezkoak	89,5	10,2	0,3	93,2	6,5	0,3
Emakumeak	79,8	19,4	0,8	86,3	13,0	0,7
Espainia						
Gizonezkoak	83,2	16,4	0,3	90,0	9,5	0,4
Emakumeak	72	27	0,8	82,2	16,6	1,1

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE



Sexu bietako bost urteka sailkaturiko taldeen arabera, aipa dezagun ezkongabeak direla hiru taldeetan ugarienak, batetik bestera alde handiak hautematen badira ere:


- 15 eta 19 urte bitarteko gazteak eta 20 eta 24 urte bitartekoak, gehien-gehientsuenak, ezkongabeak dira 2001. urtean: ezkondu gabe daude EAEn gizonezkoen %99,6 eta emakumeen %96,8; Espainian, %99,2 eta %93,9.
- 25 eta 29 urte bitarteko taldean ere ezkongabeak dira nagusi (2001ean, %77,3 Euskadin eta %70,1 Espainiako estatuan), baina ezkondu gabe dauden ehunekoa nabarmentzen hasi da (2001ean, %21,7 Euskadin eta %28,1 Espainian). ‘Alargun, dibortziatu eta legez banandutakoak’ bazterreko egoera zibilak badira ere, 25 eta 29 urte bitarteko taldean ikusten da horien indize altuena (2001ean, %1 Euskadin eta %1,7 Espainiako estatuan).

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, BOST URTEKO MULTZOTAN, EGOERA ZIBILAREN ARABERA, 1991N ETA 2001EAN (%)

Bi sexuak	1991			2001		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
EAE						
15-19	99,5	0,5	0,0	99,6	0,4	0,0
20-24	92,2	7,5	0,3	96,8	3,1	0,2
25-29	61,9	36,8	1,3	77,3	21,7	1,0
Espania						
15-19	98,5	1,4	0,0	99,2	0,7	0,0
20-24	84,6	15,0	0,5	93,9	5,8	0,2
25-29	48,2	50,3	1,5	70,1	28,1	1,7

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

→ 1991etik 2001erako bilakaerari dagokionez, azpimarra dezagun 25 eta 29 urte bitarteko taldean ezkongabetasun-indizeak dezente gora egin duela, %61,9tik %77,3ra igo baita EAEn eta %48,2tik %70,1era Espainian. Horrekin batera, ezkonduen ehunekoa nabarmen jaitsi da: %36,8tik %21,7ra Euskadin eta %50,3tik %28,1era Espainiako estatuan.



25 eta 29 urte bitarteko taldean, ezkondukoen ehunekoak atzera egite horrek adierazten digu, gazteen artean lehenengoz ezkontzeko adina geroratzen ari dela. Hurrengo taulan argi asko hauteman dezakegu geroago ezkontzeko joera hori: Euskadin, 1991an batez besteko adina 29,7 urte zen gizonezkoetan eta 27,3 urte emakumezkoetan; 2001ean, berriz, lehen ezkontza egiteko batez besteko adina 32 urteraino igo da gizonezkoetan eta 29,8 urteraino emakumeetan. Joera horixe atzeman da estatu espainiar osoan; izan ere, lehen ezkontza egiteko batez besteko adina 2,3 urtez geroratu da gizonezkoetan eta 2,5 urte emakumezkoetan, 1991tik 2001era arte, Euskadin bezalaxe, baina, adieraz dezagun, Espainian batez besteko adinak txikiagoak direla: 2001ean, gizonezkoetan 30,4 urte (Espainian) eta 32 urte (EAEn) eta emakumeetan 28,4 urte (Espainian) eta 29,8 urte (EAEn). Esan dezagun, bukatzeko, bai EAEn bai eta Espainiako estatuan ere, emakumezkoa gazteago ezkontza dela gizonezkoa baino.


LEHEN EZKONTZAREN BATEZ BESTEKO ADINA 1991N ETA 2001EAN

	1991		2001		Diferentzia 2001 – 1991	
	Gizonezkoak	Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak
EAE	29,7	27,3	32,0	29,8	2,3	2,5
Espainia	28,1	25,9	30,4	28,4	2,3	2,5

Iturria: Adierazle demografikoak. INE.

4.2. Lurralde historikoak

1991tik 2001era arte, ezkongabetasun-indizeak 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean areagotu egin dira hiru lurralde historikoetan. Hazkunderik handiena Araban gertatu da (6,6 puntu: %82,8tik %89,4ra), ondoren Bizkaian (5,9 puntu: %84,4tik %90,3era). 1991. urtean, ezkongabeak ziren Gipuzkoako sexu bietako gazte gehienak (%86), baina 2001. urtean, hiru lurralde historikoetako indizeak berdintsuak ziren, Bizkaia zertxobait altuago bazegoen ere: %90,3, eta %89,4 Araban eta Gipuzkoan. Bistan denez, ezkonduak ehunekoetan atzera egin dute hiru lurralde historikoetan, baina Bizkaian baino gehiago, Araban eta Gipuzkoan. 2001ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %9,2 daude ezkonduak Bizkaian eta %10,1 Araban eta Gipuzkoa.



15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, EGOERA ZIBILAREN ARABERA, 1991N ETA 2001EAN (%)

Bi sexuetaoak	1991			2001		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
Araba	82,8	16,6	0,6	89,4	10,1	0,5
Bizkaia	84,4	15,0	0,6	90,3	9,2	0,5
Gipuzkoa	86,0	13,5	0,5	89,4	10,1	0,4

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE


Sexuen arabera, gizonetako ezkongabeak ugariago dira 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean lurralde historiko guztietan; kohorte horretako emakumezkoetan, aldiz, ezkontzeko joera handiagoa hautematen da. 2001ean, adibidez, ezkontutako emakume gazteak guztien %13,3 ziren Araban, %12,4 Bizkaian eta %13,7 Gipuzkoan; gizonetako ezkonduak, berriz, lurralde historiko horietan erdiak baino gehiago ez zirelarik: %7,1, %6,2 eta %6,8, hurrenez hurren.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, EGOERA ZIBILAREN ETA SEXUAREN ARABERA, 1991N ETA 2001EAN (%)

Sexua	1991			2001		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
Araba						
Gizonezkoak	87,9	11,8	0,3	92,6	7,1	0,3
Emakumeak	77,7	21,4	0,9	86,0	13,3	0,7
Bizkaia						
Gizonezkoak	89,2	10,5	0,3	93,5	6,2	0,3
Emakumeak	79,5	19,7	0,8	86,8	12,4	0,7
Gipuzkoa						
Gizonezkoak	90,6	9,2	0,2	93,0	6,8	0,2
Emakumeak	81,2	18,1	0,7	85,7	13,7	0,6

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

Bai gizonezkoetan, baita emakumezkoetan ere, ezkongabetasun-indizeek gora egin zuten 1991tik 2001era arte, ezkonduen ehunekoen kaltetan; egia da, halaber, emakume ezkongabeen hazkundea handiagoa izan zela. Horrek esan nahi du, egoera zibilean, sexu bietako gizakien jokabideak berdintzera doazela pixkanaka.



15-29 URTE BITARTEKO GAZTEAK, EGOERA ZIBILAREN ARABERA ETA BOST URTEKO TALDEKA, 1991N ETA 2001EAN (%)

Sexua	1991			2001		
	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua	Ezkongabea	Ezkondua	Alarguna, dibortziatua, legez banandua
Araba						
15-19	99,4	0,5	0,0	99,4	0,5	0,0
20-24	90,8	8,8	0,4	96,4	3,4	0,2
25-29	57,1	41,4	1,5	76,0	22,9	1,1
Bizkaia						
15-19	99,4	0,6	0,0	99,6	0,4	0,0
20-24	91,9	7,8	0,3	96,8	3,0	0,2
25-29	61,8	36,8	1,4	78,1	20,8	1,1
Gipuzkoa						
15-19	99,6	0,4	0,0	99,6	0,4	0,0
20-24	93,4	6,4	0,2	96,8	3,0	0,2
25-29	64,0	34,8	1,1	76,6	22,5	0,9

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE


Aurreko taulan jaso dugu sexu bietako bost urteka sailkaturiko adin-taldeen egoera zibila, eta hiru lurralde historikoetan argi eta garbi hauteman denez, gizakiak zenbat eta gazteago izan, orduan eta altuagoa da ezkongabetasun-indizea; aitzitik, ordea, adierazle horrek behera egingo du gazteak adinean aurrera egin ahala. 2001ean, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %99,4 ezkongabe zeuden Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan %99,6; 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, berriz, ezkongabeak guztien %76, %78,1 eta %76,6 ziren, hurrenez hurren.

25 eta 29 urte bitartekoen taldean agertzen da nabarien ezkongabeen ugaltzea eta ezkontzeko adinaren geroratze horiek. Ondoko taulan ikus dezakegu sexu bakoitzeko gazteak zein adinetan ezkontzen diren lehen aldiz: 1991. urtean, lurralde historiko bakoitzeko emakumeak 27 urterekin ezkontzen ziren eta 2001ean 30 urterekin; gizonezkoen batez besteko adina ere atzeratu da, 30 urtetik (1991) 32 urtera etorri baita 2001ean. Hiru lurralde historikoetan antzeko balioak agertzen badira ere, Bizkaian aurkituko ditugu gizonezko eta emakumezkoen batez besteko adin handienak 2001ean: 32 eta 29,9 urte, hurrenez hurren.

LEHEN EZKONTZAKO BATEZ BESTEKO ADINA 1991N ETA 2001EAN

	1991		2001		Diferentzia 2001 – 1991	
	Gizonezkoak	Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak	Gizonezkoak	Emakumeak
Araba	29,5	27,1	31,8	29,7	2,3	2,6
Bizkaia	29,7	27,3	32,0	29,9	2,3	2,6
Gipuzkoa	29,8	27,4	31,9	29,7	2,1	2,3

Iturria: IAdierazle demografikoak, INE.



4.3. Eskualdeak

1991 eta 2001 artean, EAEko 20 eskualdeetan, sexu bietako 15 eta 29 urte bitartekoen kohortean, ezkongabetasun-indizeak igo egin dira. 10 eskualdetan Euskadiko batez bestekoaren (5,2 puntu) gainetik ibili zen gehikuntza: Arabako Lautada (6,4 puntu), Arratia Nerbioi (5,4 puntu), Bilbo Handia (5,8 puntu), Deba Garaia (5,7 puntu), Enkartzioak (7,3 puntu), Errioxa Arabarra (5,3 puntu), Gernika-Bermeo (6,2 puntu),


Kantauri Arabarra (8,6 puntu), Markina-Ondarroa (5,6 puntu) eta Plentzia-Mungian (8,1 puntu), alegia.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EZKONGABETASUN-INDIZEAK 1991N ETA 2001EAN
(KOHORTE OSOAREKIKO EHUNEKOAK, BI SEXUETAKOEN ARTEAN)

<i>Eskualdeak – Bi sexuetaoak</i>	1991	2001	Diferentzia 2001-1991
Arabako Ibarrak	83,8	88,9	5,1
Arabako	82,9	89,3	6,4
Arabako Mendialdea	87,0	90,2	3,2
Arratia Nerbioi	84,0	89,4	5,4
Bidasoa Beherea	83,4	87,8	4,4
Bilbo Handia	84,7	90,5	5,8
Deba Beherea	87,2	90,0	2,8
Deba Garaia	86,8	92,5	5,7
Donostialdea	86,6	89,9	3,3
Durangaldea	84,4	89,2	4,8
Enkartzioak	80,0	87,3	7,3
Errioxa Arabarra	77,8	83,1	5,3
Gernika-Bermeo	84,7	90,9	6,2
Goierri	85,6	88,3	2,7
Gorbeia Inguruak	84,8	88,5	3,7
Kantauri Arabarra	83,1	91,7	8,6
Markina-Ondarroa	84,9	90,5	5,6
Plentzia-Mungia	80,8	88,9	8,1
Tolosaldea	86,8	88,5	1,7
Urola-Kostaldea	83,9	87,8	3,9
Euskal Autonomia Erkidegoa	84,7	89,9	5,2

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

2001ean, ezkongabetasun-indizea, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, erkidegoko ehunekoaren parekoak edo altuagoak dira (%89,9) 8 eskualdetan: Arabako Mendialdea (%90,2), Bilbo Handia (%90,5), Deba Beherea (%90), Deba Garaia (%92,5), Donostialdea (%89,9), Gernika-Bermeo (%90,9), Kantauri Arabarra (%91,7) eta Markina-Ondarroa (%90,5). Hiri eta landa-inguruneko eskualdeak nahasirik agertzeak adierazten du, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, ezkongabe egotearen hedapena habitat-motari zeharka gertatzen zaiola.



Sexuaren arabera, ezkongabetasun-indizeak eskualde gehien-gehienetan ugaltu egin 1991tik 2001era arte, Arabako Mendialdean gizonezkoak izan ezik: aldagai hau mantendu egin da, abiagunean indize altu samara bazuen ere 1991n (%92). 20 eskualdeetan, ehunekoen igoera handiagoa izan zen emakumezkoetan gizonezkoen

artean baino eta horrek adierazten digu EAEko emakumezkoen jokabidea eta gizonezkoena geroz eta berdinago bilakatzen ari dela: dena den, 15 eta 29 urte bitartekoetan gizonezkoak baino emakumezko gehiago ezkontzen da. Halaz ere, egunetik egunera ezkongabe segitzen duten emakumeen kopurua ugalduz doa.

15-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EZKONGABETASUN-INDIZEAK, SEXUAREN ARABERA, 1991N ETA 2001EAN (SEXU BAKOITZAREKIKO EHUNEKOAK)

Eskualdeak	1991	2001	Diferentzia 2001-1991
Arabako Ibarak			
<i>Gizonezkoak</i>	86,9	91,8	4,9
<i>Emakumeak</i>	79,9	85,6	5,7
Arabako Lautada			
<i>Gizonezkoak</i>	87,9	92,5	4,6
<i>Emakumeak</i>	77,8	86,0	8,2
Arabako Mendialdea			
<i>Gizonezkoak</i>	92,0	92,0	0,0
<i>Emakumeak</i>	80,8	87,5	6,7
Arratia Nerbioi			
<i>Gizonezkoak</i>	89,1	93,2	4,1
<i>Emakumeak</i>	78,6	85,1	6,5
Bidasoa Beherea			
<i>Gizonezkoak</i>	88,2	91,7	3,5
<i>Emakumeak</i>	78,4	83,6	5,2
Bilbo Handia			
<i>Gizonezkoak</i>	89,2	93,6	4,4
<i>Emakumeak</i>	79,9	87,3	7,4
Deba Beherea			
<i>Gizonezkoak</i>	92,0	93,5	1,5
<i>Emakumeak</i>	82,1	86,2	4,1
Deba Garaia			
<i>Gizonezkoak</i>	91,4	95,2	3,8
<i>Emakumeak</i>	81,8	89,6	7,8
Donostialdea			
<i>Gizonezkoak</i>	90,7	93,1	2,4
<i>Emakumeak</i>	82,4	86,4	4,0
Durungaldea			
<i>Gizonezkoak</i>	89,7	92,9	3,2
<i>Emakumeak</i>	78,9	85,2	6,3
Enkartzazioak			
<i>Gizonezkoak</i>	86,1	92,1	6,0
<i>Emakumeak</i>	73,6	82,1	8,5
Errioxa Arabarra			
<i>Gizonezkoak</i>	84,3	88,3	4,0
<i>Emakumeak</i>	71,1	77,3	6,2
Gernika-Bermeo			
<i>Gizonezkoak</i>	90,0	94,3	4,3
<i>Emakumeak</i>	79,2	87,3	8,1
Goierrri			
<i>Gizonezkoak</i>	90,8	92,4	1,6

<i>Emakumeak</i>	80,0	83,9	3,9
Gorbeia Inguruak			
<i>Gizonezkoak</i>	89,7	92,4	2,7
<i>Emakumeak</i>	79,4	84,7	5,3
Kantauri Arabarra			
<i>Gizonezkoak</i>	88,3	94,7	6,4
<i>Emakumeak</i>	77,8	88,5	10,7
Markina-Ondarroa			
<i>Gizonezkoak</i>	90,7	94,4	3,7
<i>Emakumeak</i>	78,7	86,3	7,6
Plentzia-Mungia			
<i>Gizonezkoak</i>	86,8	92,9	6,1
<i>Emakumeak</i>	74,8	84,8	10,0
Tolosaldea			
<i>Gizonezkoak</i>	91,8	92,0	0,2
<i>Emakumeak</i>	81,3	84,7	3,4
Urola-Kostaldea			
<i>Gizonezkoak</i>	89,8	92,2	2,4
<i>Emakumeak</i>	77,7	83,3	5,6
Euskal Autonomia Erkidegoa			
<i>Gizonezkoak</i>	89,5	93,2	3,7
<i>Emakumeak</i>	79,8	86,3	6,5

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

2001ean 5 eskualde nabarmendu dira, bai gizonezkoetan bai emakumeetan ere, ezkongabetasun-indizek altuenak agertzearren. Horra:

- Bilbo Handia : gizonezko ezkongabeak %93,6 eta emakume ezkongabeak %87,3.
- Deba Garaia: gizonezko ezkongabeak %95,2 eta emakume ezkongabeak %89,6.
- Gernika-Bermeo: gizonezko ezkongabeak %94,3 eta emakume ezkongabeak %87,3.
- Kantauri Arabarra: gizonezko ezkongabeak %94,7 eta emakume ezkongabeak %88,5.
- Markina-Ondarroa: gizonezko ezkongabeak %94,4 eta emakume ezkongabeak %86,3.

2001. urtean, Errioxa Arabarreko landa-eskualdean bizi ziren 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, berriz, ezkongabetasun-indize apalenak izatearren nabarmentzen dira: gizonezko ezkongabeak %88,3 eta emakume ezkongabeak %77,3.

2001ean, bost urteka sailkaturiko sexu bietako gazteen taldeei dagokiela, aipa dezagun, 24 urteak bete arte, ia gazte guzti-guztiak ezkongabe direla: %99,1etik


%99,8 (15 eta 19 urte bitartekoen taldean) eta %94,5etik %98,1era arte (20 eta 24 urte bitartekoenean). 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, aldiz, ezkongabeen kopurua urriago da, ezkonduen mesedetan; horrenbestez, ezkongabetasun-indizea zabaldu egin da %64tik (Errioxa Arabarra) eta %81,9 (Deba Beherea) artean.

15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EZKONGABETASUN-INDIZEAK 2001EAN (TALDE BAKOITZAREN GUZTIAREKIKO EHUNEKOA, BI SEXUETAKOEN ARTEAN)

Eskualdeak – Bi sexuetakoak	15-19	20-24	25-29
Arabako Ibarrek	99,4	96,0	78,2
Arabako Lautada	99,5	96,3	76,0
Arabako Mendialdea	99,2	96,4	80,5
Arratia Nerbioi	99,7	96,5	76,6
Bidasoa Beherea	99,5	96,2	73,3
Bilbo Handia	99,5	96,8	78,9
Deba Beherea	99,4	97,5	77,1
Deba Garaia	99,8	98,1	81,9
Donostialdea	99,7	96,9	78,0
Durungaldea	99,8	96,9	75,0
Enkartzioak	99,4	95,7	71,1
Errioxa Arabarra	98,2	94,5	64,0
Gernika-Bermeo	99,8	97,2	78,8
Goierri	99,7	95,7	73,9
Gorbeia Inguruak	99,1	96,5	75,2
Kantauri Arabarra	99,7	98,0	79,6
Markina-Ondarroa	99,8	97,4	77,4
Plentzia-Mungia	99,8	96,8	74,6
Tolosaldea	99,4	96,6	74,5
Urola-Kostaldea	99,4	96,3	72,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	99,6	96,8	77,3

Iturria: 1991ko eta 2001eko Biztanleriaren Zentsuak, EUSTAT eta INE

**25-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN EZKONGABETASUN-INDIZEAK,
ESKUALDEZ ESKUALDE, 2001EAN (ADIN-TALDEAREN KOPURU
OSOAREKIKO EHUNEKOA)**



4.3. Ondorioak

1991tik 2001era arte ezkongabetasun-indizea igo ezin zen 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, bai EAEn (%84,7tik %89,9raino) eta baita Espainiako estatuan ere (%77,7tik %86,2raino). Sexuen arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoek emakumeek baino ezkongabetasun-indize altuagoak ematen dituzte, bai Euskadin bai eta Espainian ere. Bestela esateko, 15 eta 29 urte bitarteko emakumezkoek adin bereko gizonezkoek baino joera handiagoa dute ezkontzeko: 2001ean, adibidez, emakume ezkonduen indizea gizaseme ezkonduenaren bikoitza zen (%13 eta %6,5 Euskadin eta %16,6 eta %9,5 Espainian). Sexu bakoitzean ere, Euskadiko ezkongabetasun-indizeak Espainiako estatukoak baino altuagoak dira.

Gazteen artean ezkongabeak geroz eta gehiago izatearen arrazoiak eta ezkontzek behera egitearen zergatiak direla-eta, kapitulu honen sarreran honakoak azpimarratu ditugu:

- Hezten eta prestatzen gazteak eman beharreko denbora luzatzea: lanean sartzeko zailtasun latzengatik edota industriondoko gizarteetan eta informazio-gizartean hezkuntza eta prestakuntzari aitortzen zaion balio handiagatik, gazterik gehientsuenek ikasten segitzen dute bigarren hezkuntza gainditutakoan ere
- Laneko ezegonkortasunak eta soldata txikiek segurtasunik eta kaudimenik eza sortarazten dute, nork bere etxebizitza eskuratzeari dagokionez. Laneko prekarietatearen arazoak, izan ere, beren burua emantzipatu nahi duten gizarte-sektore ertain eta apaletako gazteen baitan du eragina.
- Nork bere etxebizitza eskuratzeko unean dituen zailtasun ekonomikoak. Etxebizitza erruz garestitu da, merkatu horretan nagusitu den espekulazio-dinamikaren eraginez eta etxea hartzeko politika publiko ahul-ahulen ondorioz.

Gazteek ezkondu arte itxaroten duten epe hori luzarazi duten faktoreak ez dira material hutsak bakarrik, badira alor soziokulturalekoak ere. Hurrengo hauez ari gara, bereziki:

- Ezkongabetasun-aldia luzatzearen aldeko balio eta jarrera soziokulturalak: egun, ezkongabetasuna askatasun eta independentzia pertsonal handiagoko egoeratzat jotzen da eta matrimonioa, berriz, famili alorreko ardurak hartzearekin eta, horrenbestez, norberaren autonomiaren galerarekin identifikatzen da. Adibidez, gizarteak 25 eta 29 urte bitarteko gaztea ezkongabe egotea onartzeaz gain, onetsi egiten du egoera horretan jarraitzea helduarora iritsitakoan ere. Adiera horretan, jatorriko familiarengandik erabat emantzipatzea ez da automatikoki ezkontzearekin lotzen; baizik eta imaginariu soziokulturalean, ezkongabetasunaren bitartez gizaki hori errealizatzea ere onartzen da. Finean, ezkongabetasuna dagoeneko ez da jotzen gabezia edo osagabetasun psikosozial gisa, autonomia pertsonal handiagoko bizimodua egitea ahalbidetzen duen aukera zibil modura baizik.
- Matrimoniotik at ere, elkarbizitzarako modu berriak agertu izana: arestiko aldaketa soziokulturalak, balio eta jokaera postmaterial izenekoak indarrean sartzearen ondoriozkoak bereziki, gazteen artean elkarbizitza-mota berriak sortzen eta zabaltzen ari dira. 'Izatezko bikoteez' eta ahaidetasunezko lokarririk gabeko pertsona bat baino gehiago etxebizitza berean bizitzeaz ari gara, matrimonioaren haustura prozesuetatik (banantze eta dibortzioak) osatzen diren familiak ahortzi gabe. Lehen bi plegu horiek, kopuruz, garrantzi handiagoa dute gazteen artean, hauek 30 urte inguruan ezkontzen baitira; beraz, banantze eta dibortzioak, hein handiago batean, adin horretatik aurrera gertatzen dira.
- Emakume gazteak, lanerako duten aukerari esker, ezkontze-estrategia hori bigarren mailan utz dezakeenez, andre gazteen artean ezkontzeko ueña atzeratzeko joera hedatu da. Aldaketa kulturala gertatu da, beraz, gazte horien amen garaietatik: amek beren buruaren emantzipazioa aurreratu egin zuten goiz ezkontuta eta beren gurasoen menpeko izatetik senarren menpeko bihurtu ziren. Horren ordain gisa, haien alabak beste muturrean erori dira: lehendabizi ikasketak, ondoren egonkortasun laboral eta profesionala eta azkenik, hogeita hamar urteren bueltan, balizko matrimonio-emantzipazioa. Emakume gazteentzat, beraz, beren burua goizegi emantzipatzeak arrisku latzak dakartza, beren karrera profesionala ezkontzeak betiko honda

dezakeelako, amei gertatu bezala. Horrenbestez, bidezkoa da beren burua emantzipatzea eta ezkontzea behar bezalako independentzia ekonomiko eta egonkortasuna erdietsitakoan²⁵.

²⁵ Gil Calvo, E. (2002): 'Emancipación tardía y estrategia familiar', in Revista de Estudios de Juventud, 58 zk.. INJUVE, Madril.

V. JAIOTZA-TASA ETA UGALKORTASUNA

Kapitulu honetan jaiotza-tasak eta ugalkortasunak, fenomeno demografiko diren heinean, duten izari kuantitatiboa ezagutuko dugu. Aztertze lan honek erabateko garrantzia du, biztanleriaren berezko dinamikaz eta honek hazkunde demografikoan duen eraginaz informazioa ematen digulako.

Sarrera gisa, aipa dezagun jaiotza-tasak eta ugalkortasun-tasak, joan den mendean, balio handietatik txikitara bilakatu direla. Gainbehera hori **trantsizio demografiko** izenez ezagutzen den aldaketa-prozesuaren baitan gertatu da. Estreinakoz, joan den mendeko 50eko hamarkadan, Frank Notestein-ek proposatu zuen termino horren esanahia soila da: autoreak zioenez, premiak eraginik, nekazari-gizarte tradizionalak ugalkortasuna eta jaiotza-tasa altuak behar zituzten, hilkortasun-tasa larriak orekatzeko; industrializazioaren eraginez gertatu zen urbanizazioak, aldaketa ekonomiko eta sozialek eta heziketak hilkortasun-tasak —batez ere, umeen artean— eraitsi zituzten; eta ugalkortasuna eta jaiotza-tasak beheraka hasi zirela seme-alabak koste handiagoak baina balio urriagokoak bilakatu ahala (termino ekonomikoetan). Adiera horretan, horren hiru arrazoi ematen dira, bata bestearekin lotuak: balio soziokulturalen aldaketa, seme-alaben kostuak eta seme-alaba berri bakoitzak eragiten dituen denbora- eta energia-baliabideen gastua. Haurren hilkortasun-tasa jaitsi ahala, beste seme-alaba bat ekartzeko balioa eta nahia apaldu egiten dira, umeek bizirik iraungo duten ziurtasuna geroz eta handiagoa baita.

Gizarte industrialen bilakaera-eredu horretan, funtsean, aldaketa demografiko, sozial eta ekonomikoen elkarreragina hautematen da, gizarteak antzinako erregimen demografikotik gaurkora pasatzean. Euskal eta espainiar gizarteek ere, industrializazio eta urbanizazio prozesuetan parte-hartzean, antzinako erregimen demografikotik gaurkorako trantsizioa bizi izan dute. Ikus ditzagun erregimen bakoitzaren bereizgarri nagusiak:

📁 *Antzinako erregimena:* jaiotza-tasa eta hilkortasun-tasa altuak ditu ezaugarri nagusiak. Hazkunde naturala edo saldo begetatiboa urria izan ohi zen, bai haur asko hiltzen zelako, bai ezbeharretan ere (etengabe gertatzen ziren goseteak, izurriteak, gerrak, etab.) jende asko hiltzen zelako.

📁 *Erregimen modernoa*: honen bereizgarriak, berriz, jaiotza-tasa eta hilkortasun-tasa apalak dira, bata eta bestea antzekoak; horrenbestez, hazkunde naturala edo saldo begetatiboa urria da (negatiboa izateko joeraduna), biztanleriaren zahartzeak hilkortasuna pitin bat altxatzen baitu.

Bi erregimen horien artean elkarrekin loturiko fase zenbait garatu dira; orokorki, behintzat, hirutara ekar ditzakegu, hara:

✘ 1. fasea: trantsizio demografikoaren hastapen horretan hilkortasun-tasa jaitsi egiten da, elikaduran, higieanean eta osasun-sisteman egin diren hobekuntzei esker. Jaiotza-tasa mantendu edo, areago, igo egin da, bi arrazoiengatik, batik bat: haurdun dauden emakumeek jasotzen duten arreta hobe da eta erditzean hiltzen diren umeak gutxiago dira, egunetik egunera.

✘ 2. fasea: trantsizio demografikoaren erdigune honetan hilkortasun-tasak behera segitzen du eta jaiotza-tasa ere jaisten hasi da, hainbat faktorek batera eraginik: heziketa eta sekularizazioa herritar orori iristearren gertatu dira aldaketak gizarte-mentalitatean, emakume-izaeran eta emakumeak lan-merkatuarekin zituen harremanetan, sexualitatean eta ugaltzean (antisorgailuak eta famili planifikazioa egiteko dispositiboak eskuratzeari esker), Ongizate-estatuak garatu da, etab. Fase honetan, biztanleriaren hazkunde handi eta azkarra gertatu da.

✘ 3. fasea: trantsizio demografikoaren kondar honen bereizgarri dira hilkortasun-tasa apala eta gainbehera nabarmenean doan jaiotza-tasa: horien ondorioz, hazkunde demografikoa urria, zeroren parekoa edo, areago negatiboa izango da.

Trantsizio demografikoak izan dituen inplikazioak garrantzi handikoak izan dira Europako gizarteentzat: biztanleriaren hazkunde handi eta azkarra sortarazi du, bizi-itxaropena hirukoiztu egin da hilkortasunaren berebiziko murrizketari esker, familiaren tamaina txikitu egin da ugalkortasunaren murrizketa latzaren eraginez eta, ondoren, biztanleriaren zahartze prozesuari ekin zaio.

EAEri eta Espainiari dagokienez, trantsizio demografikoa aldi labur samarrean gertatu zen, Europako herrialde garatuagotan jazo izan denaren aldean. Joan den mendeko 70eko hamarkadaren hasieran, gainera, ugalkortasunak eta jaiotza-tasak balio urriak izan zituzten. Euskadin, esate baterako, 1975ean, ugalkortasun-indize sintetikoa (UIS)

altu-altua zen oraino (2,7 ume), Espainiako estatuan bezalatsu (2,8 ume). Bost urteko epe laburrean, ordea, ugalkortasuna ia herenean urritu zen, 1,9 umeraino eta 1980an belaunaldiak ugaltzeko mugaz azpira amildu zen (2,1 ume, emakume bakoitzeko). Hurrengo bost urteetan (1980 – 1985) antzeko beste beherakada batek UIS hori 1,25 umetan jarri zuen, une hartan Europak nozitzen zuenaren dezente azpitik, alegia: gurea planeta osoko ugalkortasun-tasarik apalenetako bat zen²⁶.

Autore batzuen iritziz, **bigarren trantsizio demografikoa** bizi dugu oraintxe. Ron Lesthaeghe-k eta D.J. Van de Kaa-k termino hau joan den mendeko 80ko hamarkadan sortu zuten, mendebaldeko herrialdeetako familia eta etxeak osatzean, suntsitzean eta birmoldatzean gertatzen ziren aldaketak deskribatzeko. Belaunaldiak ordezkatzeko mailaz behetiko ugalkortasun-indize sintetikoez gainera, (2,1), bigarren trantsizio demografikoaren beste ezaugarrietako batzuk dira ezkongabeak ugaltzea, estreinakoz ezkondu eta lehen seme-alaba ekartzeko adina geroratzea, izatezko bikoteen hazkundea, matrimonioz kanpoko jaiotzak ugaltzea, matrimonio hausturak ugaltzea eta famili egituraren dibertsifikazioa (familia nuklearraren gainbehera etengabea eta bestelako familien gorakada: guraso bakarrekoak, pertsona bakarrekoak, nukleorik gabeko pertsona anitzekoak, etab.). Lehen trantsizio demografikoan ez bezala (orduango osagai behinenak ugalkortasuna eta hilkortasuna izan ziren), bigarren trantsizio honetan bi aldagai demografiko horiek aski egonkor mantentzen dira (maila apal samarretan, ugalkortasuna batik bat), baina sakoneko aldaketak gertatzen dira ezkontzeko moduetan, ugalkortasunaren egutegian eta famili motetan.

Ondoren, Biztanleriaren Mugimendu Naturala izeneko iturriak emaniko informazio estatistikoari esker osatu diren hainbat adierazle kuantitatibo aztertuko ditugu. Hurrengoak jorratuko ditugu, zehazkiago:

- Jaiotza-tasa gordina: bizirik jaiotakoak, mila biztanleko.
- Ugalkortasun-indize sintetikoa: batez besteko ume-kopurua, potentzialki ugalkorra den kohorteko (15 eta 49 urte bitartekoak) emakume bakoitzeko.
- 15 - 19, 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko taldeen ugalkortasun-tasa: bizirik jaiotakoak, adin talde bakoitzeko 1.000 emakumeko.

²⁶ Javier San Vicente Alfambra (2005): 'Claves demográficas de la CAPV', en La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 40 orr.. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

→ Ezkongabeko ama gazteen erditzeen ehunekoak: 15 - 19, 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko amen erditzeak egondako erditze guztiekiko.


5.1. Euskadi eta Espainia

Ondoko taulan 1981 eta 2004ko jaiotza-tasa gordinak (JTG) jasoko ditugu: balio horietan, bai EAEn bai Espainian, gainbehera nabarmena gertatu dela hautematen dugu: Euskadin JTG, mila biztanleko, -3,4 jaitsi da eta Espainiako estatuan -3,5. Jaiotza-tasak atzera egitearen ondorioz, tasa hori 2004. urtean, 9,3 jaiotzakoa da, mila biztanleko Euskadin; Espainian, berriz, 10,6 jaiotzakoa mila biztanleko.

JAIOTZA-TASA GORDINAK 1981EAN ETA 2004AN (BIZIRIK JAIOTAKOAK MILA BIZTANLEKO)


	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
EAE	12,7	9,3	-3,4
Espainia	14,1	10,6	-3,5

Iturria: Oinarritzko adierazle demografikoak, INE.



Zergatik da JTG apalagoa Euskadin Espainiako batez bestekoa baino? Ugalkorra den kohorteko (15 eta 49 urte bitartekoak) emakumeen ugalkortasuna aintzat hartu behar dugu. Balioak belaunaldi-ordezkapenaren oso-oso azpitik (batez beste, 2,1 seme-alaba emakume bakoitzeko) dituen ugalkortasun urriko testuinguru orokorrean, Euskadin bizi diren kohorte ugalkorreko emakumeek (15 eta 49 urte bitartekoak) espainiarrek baino ugalkortasun-tasa apalagoa dute. Ondoko taulan ikus ditzakegu ugalkortasun-indize sintetikoak (UIS)²⁷: hor frogatzen da, bai 1981ean bai 2004an, Euskadiko kohorte ugalkorreko emakume bakoitzak batez beste ume gutxiago duela Espainiakoak baino. Nolanahi ere, aztertzen ari garen aldian, UISen gainbehera Espainiako estatuan (-0,71) handixeagoa izan da EAEn (-0,55) baino eta, emakume bakoitzeko, umeen kopurua bi lurraldeetan berdintsua izan da, behealdetan: 2004. urtean UIS 1,33 izan zen Espainian eta 1,18 Euskadin. Adieraz dezagun, 90eko hamarkadatik honantz, hala Euskadin nola Espainian, ugalkortasunak pitin bat gora egiten duela, atzerriko emakume etorkinen ugalkortasun handiagoaren ondorioz, hein handi batean. Adiera horretan, urte horretan bertan, Espainiako estatuan bizirik jaio ziren guztien %13,8 ama atzerritarren seme-alabak dira, baina Euskadin horrelakoak %6,6 baino ez dira: oso litekeena da EAeko UIS apalago hori bertoko biztanleen artean atzerriko etorkin gutxiago izatearen ondorio izatea.

²⁷ UIS: emakume bakoitzeko, ugalkortasunak dirauen bitartean, espero daitekeen ume kopurua da. Adinka, ugalkortasun-tasa berariazkoak batzean kalkulatu da datua, hots, adin jakin bateko amengandik jaiotako umeak zati adin horretako emakumezko guztiak.



UGALKORTASUN-INDIZE SINTETIKOAK 1981EAN ETA 2004AN (EMAKUMEEN SEME-ALABA KOPURUA, BATEZ BESTE)

	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
EAE	1,73	1,18	-0,55
Espainia	2,04	1,33	-0,71


Iturria: Oinarritzko adierazle demografikoak, INE.

Jarraian ezagutuko dugu emakume gazteen ugalkortasunaren bilakaera; horretarako, 15 - 19 urte, 20 - 24 urte eta 25 - 29 urte bitarteko adin-taldean ugalkortasun-tasa kalkulatu dugu. Adierazle horren balioak nabarmen jaitsi dira, hala EAEn nola Espainian. Horrela bada, 1981ekoaren aldean, 2004an Euskadin, ugalkortasun-tasa txikiagoa da (bizirik jaiotako -9,1 ume, mila emakumeko) 15 - 19 urte bitarteko taldean; balioa -64,9raino doa 20 - 24 urte bitarteko taldean eta -83,8raino, azkenik, 25 - 29 urte bitartekoetan.

UGALKORTASUN-TASAK ADIN-TALDEEN ARABERA, 1981EAN ETA 2004AN (BIZIRIK JAIOTAKOEN KOPURUA 1000 EMAKUMEKO)

	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
EAE			
15 eta 19	13,8	4,7	-9,1
20 eta 24	78,6	13,7	-64,9
25 eta 29	128,3	44,5	-83,8
Espainia			
15 eta 19	22,8	10,9	-11,9
20 eta 24	105,6	30,7	-74,9
25 eta 29	137,2	64,9	-72,3

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.



Espainiako estatuarekiko aldeei doakiela, aipa dezagun bai 1981ean bai 2004. urtean, Euskadin bizi diren emakume gazteen ugalkortasun-tasak nabarmen txikiagoak direla. Azken urtean, Espainiako 15 - 19 eta 20 - 24 urte bitarteko emakumeen ugalkortasun-tasak (bizirik jaiotako 10,9 eta 30,7 ume, mila emakumeko), adin berekoek Euskadin dituztenen bi halako eta gehiago dira: 4,7 eta 13,7 ume bizirik jaio dira mila emakumeko. Aldea urriagoa bada ere, Espainiako 25 – 29 urte bitarteko emakumeen

ugalkortasun-tasa ere handiagoa da Espainian (64,9), Euskadin baino (bizirik jaiotako 44,5 ume, mila emakumeko).


Ugalkortasun-tasen beherakada latz horretan eragina du, baita ere, emakumeek seme-alabak ekartzeko adina geroratu izanak, ume gehiago izateko aukerak murriztu egiten zaizkielako, denbora baliagarria laburragoa izatearen ondorioz. Joera hori hurrengo adierazlearen bidez atzeman daiteke: amatasunaren batez besteko adina. 1981ean, EAEn eta Espainian, 28,5 eta 28,2 urtekoa zen, hurrenez hurren, baina 2004an 32,4 eta 30,9 urteetaraino joan da. Horregatik, Euskadin ia 4 urtetan hazi da eta Espainiako estatuan ia 3 urtetan. Amatasunaren batez besteko adina, gainera, gehiago luzatu da Euskadin: 2004an, adierazle hori Espainiakoa baino 1,5 urte handiagoa da (gogoan izan 1981ean bien balioak antzekoak zirela).

AMATASUNAREN BATEZ BESTEKO ADINA 1981EAN ETA 2004AN

	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
EAE	28,5	32,4	3,9
Espainia	28,2	30,9	2,7

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

Ondoko grafikoan, ezkongabeko ama gazteengandik izaniko jaiotzen ehunekoak jaso ditugu. Ikusten dugun bezala, adina aurrera joan ahala adierazlea behera doa, balio gorenak 15 eta 19 urte bitartekoen taldean (%79,9 EAEn eta %81,9 Espainian) daude eta baxuenak, aldiz, 25 eta 29 urte bitartekoen taldean (%26,6 Euskadin eta %25,7 estatu espainiar osoan). Ama zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta aukera handiagoak ditugu desiratu gabeko amatasunik aurkitzeko; alderantziz, ordea, amak zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta aiseago aurkituko dugu 'izatezko bikote' baten barruko amatasun desiratua. Espainiarekin alderatuta, Euskadin bizi diren 20 eta 24 urte bitarteko ama gazte ezkongabeak Espainiako estatuko batez bestekoa baino dezente gorago dabilta: ama ezkongabeen jaiotzak %67,8 (EAEn) eta %57 (Espainian).



Euskadiko zein Espainiako emakume gazteen arteko ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalen zergatiak asko dira eta biziki konplexuak, elkarren eraginez diharduten arrazoiek antolatutako sare gisakoa baitugu aurrean: arrazoi ekonomikoak ez ezik, soziokulturalak eta instituzionalak ere tartekatzen dira bertan. Hurrengo baldintzatzaileak aipatuko ditugu:

- Pentsaera sozialetan izaniko aldaketek jaiotzaren aldeko ez diren balioen, jarreraren eta jokabideen orokortzea ekarri dute. Lehenago, herri-klase sozial apalek ugalkortasun altuagoa zuten goi-klaseetakoek baino. Herritar orok hezkuntza jasotzeak, korrante demokratizatzaileekin loturiko indibidualizazio prozesuak, patriarkatuaren krisiak eta emakumea askatzeko mugimendu soziala sortzeak, hezkuntza sistemaren bidezko sozializazioak eta bestek, jakina, ugalkortasuna eta jaiotza-tasa behetik berdintzen lagundu dute. Industriadoko gizarteetan, gainera, balio eta jokabide soziodemografiko berriak azkar asko hedatzen dira noranahi masa-hedabideen bitartez, lurraldeen arteko mugak eta klase-oztopoak aise asko gaindituta.

- Ugalkortasunaren eta jaiotza-tasaren beherakadak industriondoko gizarteak dinamizatzen dituen aldaketa soziokulturalaren adierazle demografikoak dira, izan ere, horrek tokian tokiko biztanlerien sekularizaziora jotzen baitu, berez. Gizarte industrialala balio eta praktika postmaterialistak²⁸ sustatzen dituen industriondoko gizarte bilakatzerakoan egoten den aldaketa soziokulturalaren erakusle behinetakoa da jaiotzaren aldekoitasunaren gainbehera. Litekeena da indarrean dagoen eraldaketa postmaterialista horren adierazpenik esanguratsuenetako bat izatea euskal eta espainiar gazteen pentsamoldearen sakoneko aldaketa eta, aldi berean, ugalkortasun eta jaiotza-tasaren beherakadan eraginik biziena izan duen faktoreetako bat ere izatea. Emakumearen askapenaren mugimendu sozialak auzitan jarri eta arbuia egin du kultura tradizionalak emakumeari esleitzen zion ‘ama – etxeandrea’ hutsaren rola eta adiera horretan, emakume gazteek lehenago gizasemeek beren buruarentzat gordetzen zituzten etxez kanpoko rol eta eginkizunak errebindikatu eta bereganatzea lortu dute.
- Ume gutxiago ekartzeko erabakia funtsezkoa da ugalkortasuna eta jaiotza-tasa jaisteko, baina erabateko elementua da gazteek orokorki antisorgailuak eskuratu ahal izatea, erabaki pertsonal hori benetakoa izatea ahalbidetzen dutelako. Ongizate-estatuaren garapena ez ezik, osasuna bermatzeko eta famili plangintza eratzeko dispositiboaren garapena ere gazteek metodo antikonzeptiboak eskura izan ditzaten berebiziko lagungarriak izan dira.
- Beste aldetik, gazteek hezkuntza-trebakuntzan eman beharreko etapa horren luzapena, lanean sartzea zaila delako eta familiak —beren seme-alabak klase sozioekonomikotik kanporatuak gertatzeko arriskutik urrun daitezten estrategia baliagarri gisa ikustearren— hezkuntza-prestakuntzari aitortzen dioten balioa handia delako. Derrigorrezko hezkuntza-maila gainditzen duten ikasleen ibilbideak, oro har, familiaren errentan oinarritu ohi direnez, familiarengandiko menpekotasunezko ibilbide horiek ezkongabe irautea eta lehen umea edukitzeko adina hainbat urtez luzatzea ondorioztatzen dute: hori, beraz, ugalkortasuna eta jaiotza-tasa urritzearen aldeko eragile bihurtzen da.
- Emakumeen jarduera-tasaren areagotzea intentsitate bizi-bizikoa izan da adin ugalkorreko kohorteko emakumeen artean, bi joeraren eragin konbinatuari esker: batetik, ezkongabe izateari utzi edota ama-munduan sartu ondoren, egoera hori

²⁸ Inglehart, Ronald (1991): El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas. CIS, Monografías 121 zk.. Argitaletxea: Siglo XXI, Madrid.

aspaldi utzi zuten emakume heldu batzuk sartu izana; bestetik, ezkongabe izateari utzi edota ama izanik ere, emakume gazte batzuek jarduera ekonomikoan iraun izana. Bi emakume-profil horietan ere ugalkortasun-tasa aski apala da.

- Lan-prekarietateak ere ama izatea geroratu egiten du. Kontratuen bidezko ezegonkortasuna, lanean eta langabezia txandaka ibili behar izatea, soldata txikiak eta antzekoak ez dira ugalkortasun eta jaiotza-tasarentzat batere mesedegarriak, seme-alabak ekarri ahal izateko, gurasoei behar bezainbesteko segurtasun ekonomikoa bermatuko dien lan-giroa erdiestea ezinbestekoa delako. Eskuarki, gazteek lan-egoera ahalik eta seguruen (kontratu finkoa eta soldata handiagoa) ikusi arte itxaroten dute umeak ekartzeko.
- Sexuen arteko desberdintasunak sortu, ugaltu eta areagotzen laguntzen duten lan-munduko aurreiritzi eta estereotipoek, ugalkorra den kohorteko emakumeek merkatuan negoziatzeko duten ahalmen soziala ahuldu egiten dute²⁹: lan-prekarietate gorriagoan jarduteko eta hierarkia profesionaleko behealdeko zereginak egiteko premian aritzera behartuta daude. Lan-ingurune diskriminatzaile horretan, emakume horiek enpleguan sartzeko eta lan batetik bestera aldatzeko dituzten aukerak gutxitu egiten ditu umeak erditu eta hazteak, enpresetako kudeatzaileek eta giza baliabide alorreko arduradunek amatasuna lan-absentismo handiagoarekin, lanerako jarrera uzkurragoarekin eta lanari emate urriagoarekin identifikatzeko joera izaten dutelako.
- Lana sexuen artean banatzerakoan, beti aitortu izan zaio emakumeari etxeko lanak egiteko *berezko gaitasuna*. Eta horrek indarrean segitzen duenez, ama gazte gehientsuenak 'bietan jardutera', hots, bi lanetan aritzera behartuak ikusten dira: etxeko lanak egin eta umeak haztera eta jarduera profesionallean aritzera. Egunero jasan behar duen gehiegizko karga horrek, seguru asko, ume bat baino gehiago izateko asmoa kentzen dio burutik ama gazteari.
- Umeen hazkuntza eta etxeko lanak lan-jarduera profesionalarekin elkargarriago bihurtzea helburu duten baliabide eta dispositibo publikoak (haurtzaindegia, ludotekak, etab.) urriak izateak ere ugalkortasuna ez areagotzen laguntzen du.

²⁹ Prieto, Carlos (1994): *Trabajadores y condiciones de trabajo*. Ediciones HOAC, Madril.

- Gazteek nozitzen duten ongizate pertsonal handiagoaz gozatzeko premia psikosozialak, kontsumismo-giroak, nahikunde hedonistak, asetasun subjektiboa berehala bilatzeko beharrak eta norberaren garapenean lana eta gizarte-alorra lehentasunezkoak izateak (etxe eta famili giroaren kaltetan) ere lagundu dute ugalkortasunak eta jaiotza-tasak behera egin dezaten.
- Seme-alabak balio adierazgarritzat, atsegingarritzat eta norberaren burua garatzeko baliagarritzat hartzea, gizarte industrialean zeukaten balio ekonomiko eta segurtasun-neurri izate harez bestela: horregatik lehenesten da egun kopurua kalitatearen gainetik umeak ekarri eta hazte-kontuetan.
- Seme-alabek gurasoen mendeko izateko epea dezente luzatzea eta haien hazkuntza eta hezkuntzaren kostu ekonomiko handiagoa: derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan ikasten segitzeko joera orokorra, enplegu egonkor eta ongi ordaindua eskuratzeko gazteak ohi dituen zailtasunak, gazteak bere burua emantzipatzeko unea geroratzea, etab.: faktore horiek familiaren tamaina eta, ondorioz, ugalkortasuna eta jaiotza-tasa txikitzen laguntzen dute.
- Jaiotza eta familia ez ezik, gazteen emantzipazioa ere sustatzeko politika publikoen ahulezia eta zekenkeria, oro har. Adiera horretan, higiezinen merkatuko prezio izugarriek ere eragotzi egiten dute ugalkortasuna etengabe beheraka segitu ordez, igotzen hastea, gazteek eskuratzeko moduko etxebizitzaren sustapena eragiteko ekimen publikoak bazter-bazterreko elementuak dituen testuinguru horretan: emantzipazioa lortzea ezinezkoa izateak estreinakoz ezkontzeko eta lehen aldiz ama izateko adina geroratu egiten du eta, noski, etxebizitzaren prezio garestiek seme-alaba bat baino gehiago izateko prest egotea oztopatu.
- Era berean, amatasunaren batez besteko adinaren atzerapen esanguratsuak³⁰ ume gehiago ekartzeko denbora-tartea nabarmen murrizten du. Javier San Vicente Alfambra³¹ autorearen iritziz: ‘Ugalkortasun-mailen murrizketa amatasunaren batez besteko adinaren geroratzearekin batera etorri da eta, gainera, beste fenomeno bat ikusten dugu: batez besteko adin horren inguruko denbora tarte labur batean erditzen ditu amak ume guztiak. Batez besteko adina, 1995. urtean, 31,3 urte

³⁰ Gogoan izan, 2004 urtean adin hori 30,8 urte da Espainiako estatuan eta 32,4 urte EAEn.

³¹ Javier San Vicente Alfambra (2005): ‘Claves demográficas de la CAPV’, in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 41 or. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

inguruan zebilen eta erditzeen ia %80 27 eta 36 urte bitartean gertatzen ziren. 1975ean, ordea, erditzeak ia hiru urte lehenago hasten ziren (28,6 urte) eta jaiotzen %61 bakarrik gertatzen zen adin-talde horren barruan (25 eta 34 urte bitartean).’


- Ama izateko adina atzeratzeak ugalkortasunaren eroriko latzagoa ondorioztatzen ari da ‘egutegi-efektuagatik’ Javier San Vicente Alfambra autoreak dioskunez, ‘... horixe da Euskadin azken 20 urteotan gertatzen ari dena: aita-ama izatea erabakitzen den adina behin eta berriro geroratzea ugalkortasunaren beherakadaren —ukaezina, bistan da— garrantzia handitzen ari da’.³² Eta testuinguru demografiko horretako joera sozial hedatua seme-alaba bakarra ekartzea izaten da.

Faktore soziokultural eta ekonomiko horiek, oro har, euskal eta espainiar gizarteetan ugalkortasuna eta jaiotza-tasa beheraka baldintzatzen dute. Nolanahi ere, horietako batzuk Euskadin intentsitate biziagoz eragiten dutela pentsa liteke: horregatik dira hemengo ugalkortasuna eta jaiotza-tasa apalagoak. Aipa dezagun, dena dela, Euskadin bizi diren kohorte ugalkorreko emakumeen artean, atzerriko emakume etorkinen presentzia biziki urria dela; beste hainbat autonomi erkidegotan, ostera, horien agerpen kuantitatibo handiagoaren ondorioz, ugalkortasuna eta jaiotza-tasa berriro hasi dira suspertzen.

5.2. Lurralde historikoak

Lurralde historikoetan, jaiotza-tasa gordinak biziki jaitsi dira 1981. eta 2004. urteen artean. Beherakada handienak Araban (bizirik jaiotako -4,7 ume, mila biztanleko) eta Bizkaian (-4,1 jaio bizi, mila biztanleko) jazo dira. Gipuzkoan 2004. urtean bizi zen biztanleriak zeukan JTG handiena (bizirik jaiotako 10 ume, mila biztanleko); ondotik Araba (9,6) zetorkiola. Bizkaiko biztanleriak zeukan tasa apalena (bizirik jaiotako 8,9 ume, mila biztanleko).

³² Javier San Vicente Alfambra (2005): ‘Claves demográficas de la CAPV’ in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 41. orr. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.




JAIOTZA-TASA GORDINAK 1981EAN ETA 2004AN (BIZIRIK JAIOTAKOAK 1000 BIZTANLEKO)

LH	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
Araba	14,3	9,6	-4,7
Bizkaia	13,0	8,9	-4,1
Gipuzkoa	11,7	10,0	-1,7

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

Ugalkortasun-indize sintetikoek adierazi digutenez, 1981. eta 2004. urteen artean, hiru lurralde historikoetako kohorte ugalkorreko emakumeen ugalkortasunak beherakada nozitu du. Latzenak gertatu dira Araban (-0,71 seme-alaba, emakume bakoitzeko) eta Bizkaian (-0,64); Gipuzkoan (-0,31 seme-alaba, emakume bakoitzeko), berriz, ez da horren bizia izan. 2004. urtean, seme-alaben batez besteko kopurua, emakume bakoitzeko, belaunaldien ordezkapenaren indizetik (2,1) dezente behera dabil: emakume bakoitzeko 1,27 seme-alaba Gipuzkoan, 1,17 seme-alaba Araban eta 1,13 seme-alaba Bizkaian.



UGALKORTASUN-INDIZE SINTETIKOAK 1981EAN ETA 2004AN (EMAKUMEEN SEME-ALABA KOPURUA, BATEZ BESTE)

LH	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
Araba	1,88	1,17	-0,71
Bizkaia	1,77	1,13	-0,64
Gipuzkoa	1,61	1,27	-0,31

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

Ugalkortasun-tasei goazkiela, hiru lurralde historikoetan ere atzera egin dute 1981etik 2004ra arte: gainbeherarik handienak Araban eta Bizkaian jazo dira. 2004. urtean Gipuzkoan bizi ziren 15 - 19 eta 20 - 24 urte bitarteko emakume gazteek ematen dituzte ugalkortasun-tasari apalenak (bizirik jaiotako 3,5 eta 12,4 ume, mila emakumeko); 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, aldiz, Bizkaian bizi direnek (bizirik

jaiotako 39,4 ume, mila emakumeko). Ugalkortasun-tasa handienak, berriz, hurrengoetan bizi diren emakume gazteek erakusten dituzte:

📁 Bizkaian (5,2) eta Araban (bizirik jaiotako 5,1 ume, mila emakumeko), 15 eta 19 urte bitartekoen taldean.


📁 Araban (bizirik jaiotako 15,6 ume, mila emakumeko) 20 eta 24 urte bitartekoen taldean.

📁 Gipuzkoan (bizirik jaiotako 52,3 ume, mila emakumeko) 25 eta 29 urte bitartekoen taldean.

UGALKORTASUN-TASAK ADIN-TALDEEN ARABERA, 1981EAN ETA 2005EAN (BIZIRIK JAIOTAKOAK 1000 EMAKUMEKO)

LH	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
Araba			
15 eta 19 urte bitartekoak	14,7	5,1	-9,6
20 eta 24 urte bitartekoak	88,3	15,6	-72,7
25 eta 29 urte bitartekoak	139,8	46,0	-93,8
Bizkaia			
15 eta 19 urte bitartekoak	14,8	5,2	-9,6
20 eta 24 urte bitartekoak	81,1	13,9	-67,2
25 eta 29 urte bitartekoak	129,6	39,4	-90,2
Gipuzkoa			
15 eta 19 urte bitartekoak	11,9	3,5	-8,4
20 eta 24 urte bitartekoak	70,7	12,4	-58,3
25 eta 29 urte bitartekoak	121,6	52,3	-69,3

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.



Ugalkortasun-tasen atzerapen latz hori amatasunaren batez besteko adinaren geroratze esanguratsurekin lotuta dago: 2004an, hiru lurralde historikoetan bizi ziren emakume gazteek 32 urte inguruan agertzen dute ama izateko joera, baina 1981ean 28,5 urterekin izaten ziren ama. Hots, ama izateko batez besteko adina 3 urtez baino gehiago atzeratu da: 3,6 urtez Araban, 3,7 urtez Gipuzkoan eta 3,8 urtez Bizkaian.

AMATASUNAREN BATEZ BESTEKO ADINA 1981EAN ETA 2004AN

LH	1981	2004	Diferentzia 2004 - 1981
Araba	28,5	32,2	3,6
Bizkaia	28,6	32,4	3,8
Gipuzkoa	28,7	32,4	3,7

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

Hiru adin-taldeei eta 2004. urteari dagokienez, ondoko taulan jaso ditugu ama ezkongabeen erditzeen ehunekoak. Bizkaian eta Gipuzkoan ehuneko horiek handiagoak dira 15 eta 19 urte bitartekoen taldean (%86,9 eta %74,5 hurrenez hurren), gainerako taldeetan poliki-poliki jaisten hasten dira. Araban, aldiz, ez da horrela gertatzen: ama ezkongabeengandiko jaiotzen ehunekorik handiena 20 eta 24 urte bitarteko taldeko amek ematen dute (%64,8). Hiru lurralde historikoak alderatuta, Bizkaian bizi diren ama gazteen artean daude seme-alabak matrimonioz kanpo gehien ekartzen dituzten amen kopururik handiena, bertan agertzen baitira hiru adin-taldeetan ehunekorik handienak.

AMA EZKONGABEEN JAIOTZEN EHUNEKOAK, ADIN-TALDEAREN ARABERA, 2004AN (JAIOTZA-KOPURU OSOAREKIKO)

LH	Ehunekoak
Araba	
15 eta 19 urte bitartekoak	60,6
20 eta 24 urte bitartekoak	64,8
25 eta 29 urte bitartekoak	25,7
Bizkaia	
15 eta 19 urte bitartekoak	86,9
20 eta 24 urte bitartekoak	72,4
25 eta 29 urte bitartekoak	30,2
Gipuzkoa	
15 eta 19 urte bitartekoak	74,5
20 eta 24 urte bitartekoak	60,7
25 eta 29 urte bitartekoak	22,3

Iturria: Oinarrizko adierazle demografikoak, INE.

5.3. Eskualdeak

Euskadiko 20 eskualdeetako Biztanleriaren Mugimendu Naturalaz EUSTATEk ematen duen informazio estatistikoa apalagoa denez, bi adierazleren gainean plazaratutako emaitzak bakarrik komenta ditzakegu: ugalkortasun-indize sintetikoa (UIS) eta amatasunaren batez besteko adina (ABBA), biak ere 1980/81 eta 1990/91 aldiei dagozkienak.

UIS indizeaz ari garela, 1980/81 eta 1990/91 aldien artean, eskualde guztietan, kohorte ugalkorreko emakume bakoitzeko (15 eta 49 urte bitartekoak) seme-alaben batez besteko kopuruak behera egin zuen. 8 eskualdetan, bereziki, Euskadin osoan gertaturiko beherakada (-0,84) gairitu zen:

- Arabako Lautada : -0,97
- Arratia Nerbioi : -0,93
- Bilbo Handia : -0,95
- Donostialdea : -0,85
- Durangaldea : -0,88
- Errioxa Arabarra : -1,01
- Gernika-Bermeo: -0,97
- Markina-Ondarroa: -0,99


UGALKORTASUN-INDIZE SINTETIKOAK 1980/81EAN ETA 1990/91N (EMAKUMEEN SEME-ALABA KOPURUA, BATEZ BESTE)

<i>Eskualdeak – Bi sexuetakoak</i>	1980/81	1990/91	Diferentzia 1990/91-1980/81
Arabako Ibarrek	1,47	0,73	-0,74
Arabako Lautada	2,03	1,06	-0,97
Arabako Mendialdea	1,53	0,73	-0,80
Arratia Nerbioi	1,91	0,98	-0,93
Bidasoa Beherea	1,94	1,13	-0,81
Bilbo Handia	1,89	0,94	-0,95
Deba Beherea	1,25	0,95	-0,30
Deba Garaia	1,58	0,96	-0,62
Donostialdea	1,87	1,02	-0,85
Durangaldea	1,87	0,99	-0,88
Enkartzioak	1,75	0,99	-0,76
Errioxa Arabarra	2,05	1,04	-1,01
Gernika-Bermeo	1,92	0,95	-0,97
Goierri	1,62	1,01	-0,61
Gorbeia Inguruak	1,59	1,05	-0,54
Kantauri Arabarra	1,73	0,98	-0,75
Markina-Ondarroa	2,02	1,03	-0,99
Plentzia-Mungia	2,01	1,19	-0,82
Tolosaldea	1,50	1,09	-0,41
Urola-Kostaldea	1,91	1,20	-0,71
Euskal Autonomia Erkidegoa	1,81	0,97	-0,84

Iturria: Adierazle demografikoak, EUSTAT.

1980/81 aldian 4 eskualdetako emakumezkoak batez bestekoa den muga (2 seme-alaba, alegia) horren gainetik zebiltzan, hau da, horien UISek belaunaldi-ordezkapena (2,1 seme-alaba, emakume bakoitzeko) bermatzen zuen ia: Arabako Lautada (2,03), Errioxa Arabarra (2,05), Markina-Ondarroa (2,02) eta Plentzia-Mungia (2,01). 1990/91 biurtekoan, eskualde bakar bateko UIS ere ez da emakume bakoitzeko 2,1 batez besteko baliora gerturatu; indizerik altuenera heldu dira Urola-Kostaldekoko emakumeak (1,2 ume emakume bakoitzeko) eta apalena, aldiz, (0,73 ume emakume bakoitzeko) Arabako Ibarrek eta Arabako Mendialdekoko landa-eskualdeetako emakumeak.

Horrenbestez, joan den mendeko 80ko hamarkadan, ugalkortasunaren gainbehera larritu egin zen eta, EAEko eskualdeetan bizi ziren emakumeen artean, UIS urri-urriak hedatu ziren, belaunaldi-ordezkapenaren indizeez azpi-azpitik, ondoko grafikoan ikus dezakegun modura.



1980/81 eta 1990/91 artean, ostera, amatasunaren batez besteko adina adierazten duten adierazleek gora egin zuten ia euskal eskualde guztietan, Arabako Ibarretan izan ezik: bertan beherakada arin-arina (-0,1) hauteman zen, agian 1980/81 biurtekoan ABBA altuena izatearen ondorioz (30,2 urte). Amatasunaren batez besteko adinak atzera egin zuen Euskadi osoan (1,4 urte), baina 4 eskualdetan datu hori berdindu edo gainditu egin zen, horra:

- Deba Beherea : 1,4 urte.
- Deba Garaia : 1,5 urte.
- Donostialdea : 1,5 urte.
- Kantauri Arabarra : 1,5 urte.


AMATASUNAREN BATEZ BESTEKO ADINA 1980/81EAN ETA 1990/91N

<i>Eskualdeak – Bi sexuetakoak</i>	1980/81	1990/91	Diferentzia 1990/91-1980/81
Arabako Ibarrak	30,2	30,1	-0,1
Arabako Lautada	28,6	29,6	1,0
Arabako Mendialdea	29,5	30,0	0,5
Arratia Nerbioi	29,1	29,9	0,8
Bidasoa Beherea	28,6	29,8	1,2
Bilbo Handia	28,8	30,0	1,2
Deba Beherea	29,0	30,4	1,4
Deba Garaia	29,1	30,6	1,5
Donostialdea	28,8	30,3	1,5
Durangaldea	28,8	30,0	1,2
Enkartzioak	28,8	29,4	0,6
Errioxa Arabarra	28,9	29,5	0,6
Gernika-Bermeo	28,8	30,0	1,2
Goierri	29,0	30,2	1,2
Gorbeia Inguruak	29,1	30,1	1,0
Kantauri Arabarra	28,5	30,0	1,5
Markina-Ondarroa	29,0	29,9	0,9
Plentzia-Mungia	28,7	30,0	1,3
Tolosaldea	29,2	30,2	1,0
Urola-Kostaldea	29,2	30,0	0,8
Euskal Autonomia Erkidegoa	28,6	30,0	1,4

Iturria: Adierazle demografikoak, EUSTAT.

Eta 1990/91 biurtekoan, amatasunaren batez besteko adinik handienak 7 eskualdetan bizi diren emakumeek agertzen dituzte, denak ere EAEko batez bestekoaren gainetik (30 urte): Arabako Ibarrak (30,1), Deba Beherea (30,4), Deba Garaia (30,6), Donostialdea (30,3), Goierri (30,2), Gorbeia Inguruak (30,1) eta Tolosaldea (30,2). Pentsa dezagun ABBA atzeratze horrek eragin kaltegarri nabarmena duela

ugalkortasunean, seme-alabak ekartzeko denbora-tarte horren iraupena laburtu egiten duelako.



5.4. Ondorioak

Finean, jaiotza-tasa (JTG 2004. urtean: bizirik jaiotako 9,3 ume, 1.000 biztanleko) eta ugalkortasun-tasa (UIS 2004. urtean: batez beste 1,18 ume, emakumeko) aski apalak dira EAEn. Ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalak beren balio urri horietan mantentzen badira, epe ertainetik aurrera, euskal biztanleriaren zahartze prozesua elikatuko duen faktore nagusia izango da. Areago, 'Damoklesen ezpata' gisa agertzen da, Euskadin Ongizate-estatuaren etorkizuneko bideragarritasuna arriskuan jartzen baitu. Bestela esatearren, ugalkortasun-indize sintetiko horrek berean jarraitzekotan (batez beste 1,18 ume emakume bakoitzeko), bidezkoa da etorkizun latza izango dugula pentsatzea, hots, *baby-boom* belaunaldi jendetsuaren (1959. eta 1975. urteen artean jaiotakoak) pentsioak bermatzea eta premia sozialak asetzea zaila izango da, herritar horiek 64 urtetik gorako kohorteko kidei bihurtzen direnean.

Goian esan dugu bezala, ugalkortasun eta jaiotza-tasa apalak errealitatea baldintzapean ezartzen duten faktore ekonomiko, soziokultural eta instituzionalek osaturiko sarea da. Eskuarki, emakume ugari lan-merkatuan sartzea ugalkortasun eta jaiotza-tasaren gainbeherarekin lotu izan da. Egun, ordea, Europako herrialde zenbaitetan, emakumearen okupazio-maila altuagoak ugalkortasun eta jaiotza-tasaren gehikuntza esanguratsuarekin lotzen dira, positiboki lotu ere³³. Zergatik ez da gorpuzten emakumearen lanbidea eta ugalkortasun eta jaiotza-tasaren arteko lotura positibo hori Euskadin eta Espainian? Seguru asko, elkarrekin loturik dauden faktore zenbaitengatik. Horietako batzuk nabarmenduko ditugu, hara:

- 📁 Familia sustatzeko helburu duten politiken ahulezia eta, era berean, famili giroko bizitza lan girokoarekin uztartzea erraztuko lukeen Ongizate-estatuaren baliabideen (haurtzaindegiak, ludotekak, etab.) gabezia.
- 📁 Lanean dabilzan emakumeen 'presentzia bikoitza', balio eta jokabide patriarkal batzuek indarrean irautearren: egunero, gizonezkoak baino ordu gehiago ematen ditu emakumeak etxeko lanetan eta seme-alaben zaintzan; baliteke aparteko lan-karga horrek beste seme-alabarik ekartzeko asmoa emakumeen burutik kentzen laguntzea.

³³ 2004 urtean, emakume bakoitzeko seme-alaben batez besteko kopurua 1,90 da Frantzian, 1,78 Danimarkan, 1,80 Finlandian, 1,75 Suedian, 1,74 Erresuma batuan eta 1,37 Alemanian.

📁 Emakumea lan-merkatuan diskriminatzea: soldata txikiagoak, langabezia eta behin-behinekotasun handiagoak, lan-kategoria apalagoetan jardutea, amatasuna lanera ez agertzearekin, lanerako joera txikiagoarekin eta lanean horren buru belarri ez aritzeko joerarekin automatikoki identifikatzen dituzten aurreiritzi eta estereotipoak, enpresarien aldetik.

Nolanahi ere, Espainian eta EAEn finkatu den Ongizate-estatuaren eredu instituzionala ere aipatu nahi dugu hemen, erregimen kontserbadore aski familiarista baita. Esping-Andersen³⁴ autoreak ongizatearen kapitalismoan hiru erregimen bereizi ditu: liberala, sozialdemokrata eta kontserbadorea.

👉 Erregimen liberalak (herrialde anglosaxoietan) merkatuko soluzioen sustapen eta arriskuen indibidualizazioa ditu ezaugarri nagusi, hots, estatuaren jardueren aurrean merkatua lehenesten da. Gizarte-ongizateko politika publikoak bigarren mailakoak dira, are marjinalak ere, merkatuaren 'esku ikusezinak' sorrarazitako gabezia edo arrisku onartezinak zuzentzeko ezartzen diren heinean (txiroentzako jardueratzat hartzeko joera dago). Familiak eta gizabanakoak merkatura jotzen dute, zerbitzu eta prestazioen bila: pentsio-plan indibidual edo korporatiboak, bizi-aseguruak, osasun-aseguruak, haurtzaindegiak, zaharren egoitzak, etab. Estatuak, gutxien-gutxienekoak bermatzeko, eskaintzen dituen programa eta zerbitzu mugatuetara jo dezake baliabiderik ez daukan gizakiak bakarrik: berariazko kolektiboen premia-egoerei erantzutea helburu duten gizarte-artapeneko politikak dira eta, horrenbestez, erregimen liberalean merkatuak eginkizun behinena betetzen du, Gizarte-ongizatean; estatua eta, areago, familiak ere, bazterreko betekizunez arduratzen dira.

👉 Erregimen sozialdemokrataren (eskandinaviar herrialdeetan) ezaugarria bestelakoa da: bokazio unibertsalista duen zerbitzu eta baliabide publikoak eskaintzen dira, hots, dirubideak dirubide, hiritar guztiek baliatzeko modukoak dira horiek. Erregimen honek guztizko arrisku-estaldura du, konpromisoa eta subsidio altuak bermatzen ditu. Eskubideak gizabanakoarekin lotzen dira eta hiritargoan oinarritzen dira, premian oinarrituak egon ordez. Erregimen honek, Gizarte-ongizateari dagokionez, estatuaren lehentasunezko rola bultzatzen duenez, merkatuarena bigarren mailan geratzen da eta ongizate-zerbitzu pribatuak marjinalak dira. Neurri handi batez, ongizatearen desmerkantilizazioa

³⁴ Esping-Andersen, G. (2000): Fundamentos sociales de las economías postindustriales. Editorial Ariel SA, Bartzelona.

ekarri du dotrina horrek. Era berean, erregimen sozialdemokratat eginkizun behinena betetzen du igualitarismoak, unibertsalismoaren praxitzat jotzen baita: edonori, aberats zein behartsu, eskubide eta subsidio berberak zor zaizkio. Gizarte-ongizate kontuetan, merkatuak eta familiak dituzten rolak marjinalak dira, ongizate-politikak familiaratik eta merkatutik atera dituelako erregimen honek.

- ↳ Erregimen kontserbadorearen bereizgarriak (Europa erdialde eta hegoaldekoan) estatus korporatibistaren segmentazioa (funtzionario publikoak bestelako gizarte-kolektiboen ginetik lehenesten dituen estatismoaren iraupena) eta familiarismoa (hegoaldeko herrialdeetan, batik bat) dira. Gizarte-ongizatean estatuak bigarren mailako rola betetzen du, familia bere kideen zaintzaz eta premiak asetzeaz arduratu behar den instituziotzat jotzen delako: hots, premia egoeretan, gurasoen (edo seme-alaben) ongizatearen arduradunak seme-alabak (edo gurasoak) dira. Erregimen kontserbadorean familia nuklearrari rol behinena aitortzen zaio eta, familia gauza ez denean, bakar-bakarrik, gutxieneko ongizatea bermatzeko, estatuaren esku-hartzea dago aurreikusita. Erregimen liberalean bezala, estatuak gizarte-artapeneko politikak ezartzen ditu, gizarte-eskubideen politikak ezarri ordez (sozialdemokratak dihardu honela). Erregimen liberalean ez bezala, bertako joerak korporatibistak dira, rol nagusia gizabanakoaren ordez familiak agertzeaz eta estatuak eginkizun subsidiarioa betetzeaz gainera. Erregimen horretan zerbitzuak eta prestazioak gizonezko famili buruaren alde eratuak daude, famili batasunaren irudia kontserbadorea baita.

Espainiako estatuan eta EAEn, ongizate-erregimen kontserbadoreak bere jokamolde familiaristak areagotu egin ditu, ideologia sozial katolikoak indar handiagoa duelako, seguru aski. Dena dela, Esping-Andersen³⁵ autoreak dioenez: ‘...garai hauetako paradoxa handia da, izan, familiak osatzea dela-eta, politika familiarista kaltegarria izatea (...) mundu osoan; Italiak eta Espainiak dituzte ugalkortasun-indizerik apalenak eta Eskandinaviako ongizateko erregimenekoak, berriz, familiari horrenbesteko garrantzia aitortzen ez badiote ere, Europako garaienen artean agertzen dira.’ Adiera horretan, zergatik Europako herrialde batzuetan (Frantzia, Norvegia, Danimarka, Suedia edota Erresuma Batuan) lotzen dira emakumeen okupazio-tasa altuak

³⁵ Esping-Andersen, G. (2000): 94 orr.

ugalkortasunaren gehikuntzarekin eta, alderantziz, Italian³⁶ eta Espainian (baita Euskadin ere) tasa horien beherakadarekin? Autore horri jarraiki, nabarmen ditzagun aipatutako puntu batzuk:

- Aldaketa soziokultural postmaterialistaren³⁷ ondorioz, kohorte ugalkorreko emakume gazte eta helduetako askok eta askok autonomia ekonomikoa erdietsi nahi dute eta, areago, lehenago gizonezkoek bakarrik betetzen zituzten etxetik kanpoko eginkizun eta jardueretan aritzea dute helmuga. Adiera horretan, emakumezkoek eskuratu duten hezkuntza-gradu handiagoa medio, alor profesional eta laboralera iristeko, beren garapenerako nahi eta itxaropenak ere erabakitzekeo bidean abiatu dira.
- Gizarte-ongizatea, batik bat, familien eskuduntzakoa den erregimen kontserbadore honetan lan-jarduera eta umeen erditze eta hazkuntza elkargarri bihurtu beharko luketen zerbitzu eta prestazio publiko nahikorik ez izateak emakumea zirt edo zart egitera ekarri du: ‘ama – etxekoandre’ rol hutsa betetzea, bere nahi eta asmo laboral eta profesionalei uko eginik, edo izari profesional eta laborala lehenestea, ama izatearen kaltetan. Ugalkortasun urri hau ikusirik, badirudi emakume italiar, espainiar eta euskal herritarrak, hein handiago batean, lan-alorra aukeratzen ari direla, erditzeak urrituz edo, areago, erditzeari uko eginez, lan-jarduera eta seme-alaben hazkuntza uztartzea objektiboki zail-zaila izaki.
- Gazteen ongizatea beren familien ardura ia eskusiboa denez, Europa hegoaldean indarrean dauden ongizatearen erregimen kontserbadoreen ezaugarri bereizgarria da gazteria alorreko politika ahul-ahulak aplikatzea (are ahulagoak oraino, gazteak lanpostuan sartzeko eta gurasoen etxetik irteteko erraztasunak eskaintzeari dagokionez). Ongizate familiarista nagusi eta gazteen artean lan-prekarietatea larria izanik, emantzipazioa gertatzeko eta familia berria osatzeko unea geroratu egiten da (30 urte inguruan); ondorioz, lehen umearen jaiotza eta hazkuntza ere atzeratu egiten dira.
- Aurreko lerroetan emaniko azalpenak aberasteko, aipa ditzagun familiek —seme-alabekiko— aplikatzen dituzten estrategiak, Gil Calvo soziologoak egin duen

³⁶ 2004 urtean, 1,33 seme-alaba dira Italian, emakume bakoitzeko.

³⁷ Inglehart, Ronald (1991): El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas. CIS, Monografías, 121 zk. Siglo XXI argit., Madril.

bezala³⁸. Orokorki, familien estrategien helburua egunetik egunera handiago bihurtzen ari den seme-alaben mugikortasuna lortzea da; hori erdietsi ezean, estatus familiar berbera errepikatzea, hots, seme-alaben endekapen sozioekonomiko edo klase-galerak ezarritako amildegia gainditzen saiatzen dira gurasoak. Testuinguru biziki aldagarrietan —gaurko honetan, adibidez— horrek agintzen du *birmoldaketa gauzatzeko estrategia familiarra* martxan jartzeko, inbertsio handia hezkuntzan egitea, seme-alabek, beste lanbide baten bidez, beren familien posizio erlatibo horri hel diezaioten. Lan-merkatuan etengabe gertatzen ari diren aldaketa eta birmoldaketa tekniko-ekonomikoak direla medio, erditzeak zirela eta, goranzko mugikortasun-estrategia (edo, hori ezean, klase-erreproduzioaren estrategia) blokeatu egin ohi denez, familiak hiru aukera ditu, bata bestearekin elkargarri direnak: a) ume gehiago ekartzeari uko egitea edo ume gutxiago ekartzea; b) umeen familiarekiko mendekotasuna geroz eta gehiago luzatzea, zortea noiz aldatuko zain, seme-alaba horiek, helduak izaki, gurasoen pareko enplegua hartuko dutelakoan; c) seme-alaben hezkuntzan egiteko inbertsioa hobea izan dadin familiaren esfortzua areagotzea, gazteek gurasoen pareko enplegua hartzeko prestakuntza hori aski izango den esperantzan. Aukera horietako bakoitzak (hirurak elkargarriak direla esana dugu), ongizate-erregimen kontserbadore eta familiaristadun herrialdeetan ugalkortasunak behera egin dezan laguntzen du: seme-alaben gorako mugikortasun soziala sustatzera doazen famili estrategien kostu ekonomiko eta psikosozialak edota estatus familiarrari eusteko kostua ere goraka doaz eta, hein handi batean, familiaren bizkarretik finantzatzen dira, familiak eta gazteria laguntzeko jomuga duten politika publikoak ahul-ahulak direlako.

³⁸ Gil Calvo, E. (2002): 'Emancipación tardía y estrategia familiar', in Revista de Estudios de Juventud, 58 zk.. INJUVE, Madril.

VI. ATZERRIKO BIZTANLERIA

Atzerritarren immigrazioa aski fenomeno berria da EAEn eta Espainian. Iraganean Espainiako estatuko hainbat autonomi erkidego izan dira beste estatu batzuetako sistema sozioekonomikoentzako lan-esku iturri: migrazio-fluxuei dagokiela, joera demografikoaren aldaketaren garrantziaz kontura gaitzen, gogora dezagun XX. mendean zehar, espainiar emigranteak uholdeka irten zirela beren herrietatik bizi eta lan-aukera berrien bila Europa eta Hegoamerikako hainbat herrialdetara. Espainia, lehenago, bera astintzen zuten era guztietako tentsio eta krisi estrukturaleri ihes eginez edo ezbehar horiek arintzearen, kanpora zihoazen gizaki-oldeak aldian-aldian —are ziklikoki ere— sortzen zituen sistema sozioekonomikoa bazen ere, joan den 90eko hamarkadaren erdialdean hasita, oinarritzko azpisektore (nekazaritza, etxegintza, ostalaritza, etxez etxeko zerbitzua, etab.) zenbaiten produkzio— eta lan-beharrak asetzeko, atzerriko langileen etengabeko ekarpenaren premia duen sistema bilakatu da. Adiera horretan, azken hamarkadan, izatez elkarren kontrakoak ditugun joera bi horien adierazpen diren bi fluxu demografiko batera gertatu dira: batetik, garai *fordistako* piztuera ekonomiko europarrean esku hartu zuten emigrante espainiar gehientsuenak beren herrira itzuli dira; bestetik, atzerriko langileen olde jendetsuak iristen hasi dira.

Espainiako estatua EEEEn sartzek (1986), *kopernikartzat* jo dezakegun aldaketa soziodemografiko hori gerta dadin aldeko baldintzak sortzen lagundu du: emigrazio lurralde zena atzerriko emigranteentzako erakarpen-gune bilakatu da. Europako Ekonomia Erkidegoan sartzeari esker, egun *globalizazio* deritzon fenomeno hori finkatzen eta erreproduzitzen lagundu duten nazioarteko harreman sozioekonomikoetan erabat sartu zen Espainia. Testuinguru horretan, urte-sasoi jakin batzuetan ez ezik, jarraituki ere arituko diren profesional, teknikari eta langile hutsak atzerritik ekarri beharko ditu sistema sozioekonomiko espainiarrak, horretara

bultzatzen duten aldaketak gero eta azkarragoak direlako Ikuspegi orokor eta estrukturaletik, premia hori sortarazi duten faktoreetako batzuk aipatuko ditugu³⁹, horra.

↳ Maila makrosozialean, nazioarteko lan-merkatuaren, herrialde batetik besterako alde ekonomikoen, jatorriko herrialdeetan gertatzen ari diren sistema politiko eta sozioekonomikoen endekapen eta desoreka ondoriozko fenomeno estrukturala da, batez ere, nazioarteko migrazio erraldoi hori. Indarrean dagoen globalizazio ekonomikoaren eragin esanguratsuenetako bat da: merkatu kapitalista planeta osoan hedatzeak desoreka latzak eta sakoneko krisiak sortarazten ditu, globalizazioa sustatzen eta arautzen duten nazioarteko erakundeek (Munduko Merkataritza Antolakundeak, Nazioarteko Moneta Funtsak eta Munduko Bankuak, batik bat) ezartzen dituzten logika eta jokamoldeen arabera lehiatzeko oso trebe ez diren sistema lokal eta nazionala. Horregatik, eredu sozioekonomiko berri horren periferia osatzen duten herrialdeek profesional, teknikari eta espezializatu gabeko langile hutsak esportatzen dituzte erdiguneko eta erdi-periferiako herrialdeetara. Hortxe agertzen da globalizazioaren kontraesanik behinenetako bat: kapitalen, baliabideen eta era askotako merkantzien mugimendua gertatzen ari den bitartean, gizakien mugimendua mugatu eta urritu egiten da, herrialde aurreratuenetarako norabidekoa, bereziki eta horrek atzerriko langileak oso 'merkantzia' berezia dela frogatzen du, argi eta garbi.

↳ Krisi ekonomikoa edo ingurugiroaren endekapena nozitzen duten, gatazka-egoeran edota zigortuak dauden herrialde behartsuetatik datozen gizaki-fluxuek ez ezik, herrialde garatu batetik bestera etxebizitza edo egoitzaz aldatzean gertatzen den mugikortasun horrek ere, osatzen dituzte nazioarteko migrazioak. Era horretako migrazio-fluxuari arreta sozial eta instituzional gutxiago ematen zaio, hedabideak eta eragile sozialak irudi soildua proiektatzen ari baitira: horrela, *globalizazioaren* erlazioetan zigortuen gertatu diren herrialdeetatik datozen migratzaile-fluxua baizik ez da atzerriko migrazioa. Espainiako Estatistika Institutuak emaniko datuetara begiratu baizik ez da, ordea, errealitateari tamaina hartzeko, hots: 2005eko urtarrilaren hasieran, Espainiako estatuan erroldaturik dauden atzerritarren %20,8 (Espainian) eta %17,2 (Euskadin) Europar Batasuneko herrialdeetako nazionalak dira. Horrenbestez, Espainiako estatura doan atzerriko migrazioaren fenomenoaren baitan dauden profil sozioekonomiko anitzen heterogeneotasuna aintzat hartu

³⁹ Javier Camacho eta Elías Trabada (2001): La inserción socio – laboral de los inmigrantes extranjeros residentes en Usera y Villaverde. Asociación Proyecto San Fermín y Dº Gª de Servicios Sociales de la Comunidad de Madrid

beharra dago. Nolanahi ere, Espainia Europar Batasunaren kide izatearen ondorioz, Europar Batasuneko beste herrialdeetako herritarrak Espainiako estatuko hainbat autonomi erkidegotara, lanera edota bizitzera, geroz eta jende gehiagok joko duela izan behar dugu gogoan.

- ↪ Maila mikrosozialean, emigrazioaren motibazio behinena ia beti, hobera egiteko mugikortasun profesional eta ekonomikoa izan ohi da, bestelako arrazoiak ere badiren arren. Adiera horretan, enplegu bila ibiltzea, norberaren edota familiaren egoera ekonomikoa hobetzea, bere herrian negozioa antolatzeko kapital bila irtetea, etab., ez dira zertan kausa bakartzat agertu: arrazoi-multzo bateko faktore nagusietako bat izaten dira, noski, baina horien artean, ezegonkortasun politikoa edota gerra-gatazka, esate baterako, behinenak dira batik bat Afrikatik eta Latinoamerikako herrialde batzuetatik datozen etorkin batzuei dagokienez. Era berean, ez da komeni alor psikosozialeko hainbat faktore gutxiestea (berez ekintzaile izatea, bestelako kulturak ezagutzeko egarria, mimetismoa, deserrotzea, etab.); horiek, jatorriko herrialde horretan ohikoa zen migratzeko nolabaiteko joerari gehituta, balizko emigrantearen baitan herritik alde egiteko gogoia eragiten dute.
- ↪ Herrialde bateko langileak hobeki ordaindutako eta alor soziokulturalean hobeki preziaturiko jarduera eta ibilbide batzuetara abiarazteak okerrago balioztatu eta okerrago ordaindutako enpleguetatik aldentzera bultzatzen ditu langile horiek: orduan hasiko dira hautematen bertako langileen eskasia, langabeziaren fenomenoak oraino ere espainiar biztanleria aktiboaren hainbat profiletan (gazte eta emakumeetan, bereziki) nabarmenki eragiten duen arren. Horregatik jotzen du enpresa-jendeak, langile espainiarrek bete ez dituzten lan-eskakizunak betetzeko unean, atzerriko langileak kontratatuzera. Orokorki, enplegu horiek kalifikazio apalekoak izaten dira eta baldintza eskasetan egiten dira: '*edonorentzako lanak*' dira horiek. Beste aldetik, gure herrian gero eta atzerriko langile gehiago izateak, lan-merkatuaren segmentazioan elementu etniko-kulturalak txertatu ditu.
- ↪ Erlazio ekonomikoen globalizazio edo mundializazioak soberako lehiakortasuna bereizgarri duen produkzio dinamika bultzatzen du. Teknologikoki atzeratuak dauden —horrenbestez, lan-eskua intentsiboa eskatzen duten— azpisektoreetan lehiakortasuna gerentziak langileen gainean presioa eraginez bermatzen da, bereziki, soldata-kostuei eutsi edo, areago, merkatzea eta, bide batez, langileko produktibitatearen gehikuntza lortu behar direnean. Helburu hori are errazago erdietsiko da *merkatuan negoziatzeko ahalmen soziala* biziki apaldua duten langile-

profilak kontratatzen direnean⁴⁰: horixe gertatzen zaie herrialde txiroetatik datozen etorkinei, egoera erregularizatua ez dutenean, batez ere.

- ↳ Gizarte honetan oraino ere, *sexuen araberako lan-banaketak* (etxeke lanak emakumearen zeregintzat jotzea) indarrean irauten duenez, 80ko hamarkadatik honantz, espainiar eta euskal emakumea masiboki sartu da lanean era iraunkorrean, baina horrek ordaina eskatu du: etxebizitza mantentzeko beharrezkoa den etxeke lan horren parte handi bat beste emakume batzuek egitea. Azpisektore horretan bertako langileak urri direnez —espainiarrak bestelako lan-alarretara joan direlako, hain zuzen—, atzerriko etorkinak ari dira premia hori betetzen, etxeke lanei dagokien alorrean sorturiko enplegu-aukerak baliatu ahal izan dituztelarik.
- ↳ Bestetik, atzerriko immigrazioaren feminizazio-prozesu latza gertatu da korrontemota guztietan eta eremu geografiko denetan. Emakumea, familien birsortze-mugimenduen funtsezko protagonista da baina, horrez gainera, lehenagoko gizasemeak bezala, berak bakarrik emigratzen du eta lan-korronteen oinarritzko osagaia da⁴¹.
- ↳ Espainiak beste hainbat herrialderekiko duen gertukotasun geografiko nahiz historiko-kulturalak ere bere erakarmena sustatzen laguntzen du, migrazio-mugimenduen helmuga gisa. Lehen kasuan, Espainiaren hegoaldean Marokko auzo-laguna agertzen da, *patera batean iristeko bezain hurbil*. Bigarrenean, Latinoamerikako herrialdeak, espainierarekin identifikatuak eta hizkuntza horren bitartez lotuak. Erakarmen hori areagotu egiten da arestian indarrean jarri den irudi horrekin: ongizatearen lurralde den Europa desiratuan sartzeko atea da Espainia. Nolanahi ere, hasieran, ustez edo asmoz, geroago Europar Batasuneko beste herrialdeetara igarotzeko aitzakiaz, behin-behineko egonaldia izango zen hura, aurreikusitakoa baino luzeago izatea ere ohiko fenomeno da.

⁴⁰ Hauxe da termino horrekin adierazi nahi duguna: gizaki edo gizatalde batek, soldata jakin bat eta lan-baldintza jakin batzuk eskaintzen zaizkionean, enplegua onartu edo arbuizatzeko duen gaitasun edo jarrera; horrek adierazten duen onarpen-mailatik behera, horrenbestez, enplegua hartzeko aukerak onartezinak lirateke. Prieto, Carlos (1994): *Trabajadores y condiciones de trabajo*. Ediciones HOAC, Madril.

⁴¹ Rafael Puyol Antolín (2005): 'La inmigración española: ¿solución demográfica o económica?' in *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*, 57 orr.. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

↳ Espainia dagoeneko ez da pasabideko lurralde hutsa, migrazio-fluxuen helmuga bihurtu da, globalizazio-prozesuek eskuarki areagotzen dituzten lan-merkatuaren nazioartekotzearen eta ipar-hegoaldearen arteko desberdintasunezko erlazio horien testuinguruan. Horrela bada, Espainiak eskaintzen dituen aukeren irudi estereotipatu eta idealizatuak akuilu-lanak egin ditu, herrialde txiroetatik doazen atzerritarren proiektuek estatu horretara begira dezaten. Horietako askok eta askok ez dute helmuga jakin bat hautatu; aitzitik, ordea, gorabehera familiarrek, pertsonalek, laborek, administratiboek edo bestelakoek toki zehatz baterako bidea aukerarazi diete edo, zenbaitetan, Espainia beren ibilbidean eskala hutsa izan da. Horixe da atzerriko etorkin askoren biografien bereizgarria: beren behin-behinekotasuna, beren ezegonkortasuna, egonaldia eta itzuleraren artean⁴².

Atzerriko etorkinak Espainiara iristea laguntzen duten faktore horietako batzuk adierazita, bidezkoa da geure azterlanaren lurralde-mugetan fenomeno demografiko horren adierazpen kuantitatiboan sartzea: EAE eta Espainian, lurralde historikoetan eta euskal eskualdeetan, alegia. Ondoren erabiliko ditugun datu estatistikoak bi denboraperi dagozkie:

- a) 1996tik 2005eko urtarrilaren 1era arte, EAE, Espainia eta hiru lurralde historikoetan.
- b) 2001etik 2005eko urtarrilaren 1era arte, Euskadiko 20 eskualdeetan. Izan ere, EUSTATEko datu-baseak eskualdekako datu bakanduak eskaintzen dizkigu, 1996. urteari dagokiola.

6.1. Euskadi eta Espainia

Joan den mendeko 90eko hamarkadaren hasierako krisialdia 1996. urtean amaitzean, enplegu ugariaren sorreran gorpuztu zen hazkunde-ziklo berriari ekin zitzaion. Lan-merkatuaren dinamismo indartsu horren ondorioz, Espainiako estatuan atzerriko etorkinen etorrera hasi da nabarmentzen, ondoko taulan ikus dezakegun bezala. Espainia osoan, adibidez, erroldaturiko atzerritarren biztanleria %687,9an hazi zen; gehikuntza hori EAEn gertatutakoa (%551,4) baino askoz ere handiagoa da.

⁴² Ramírez, E. Inmigrantes en España: vidas y experiencias. CIS, Monografía 147 zk., Madrid 1996.

ERROLDATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA, 1996TIK 2005-I-1 ARTE (1996=100)

	1996	2005
EAE	13.220	72.894
<i>Aldakuntza</i>	100,0	551,4
Espainia	542.314	3.730.610
<i>Aldakuntza</i>	100,0	687,9

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.


2005eko urtarrilean, Euskadiko udalerrietan erroldatuak dauden 72.894 atzerritarrak guztirako biztanleriaren %3,4 ziren; bitartean, Espainiako estatuko udaletan erroldatutako 3.730.610 atzerritarrak hango biztanleriaren %8,5 ziren. Bestela esateko, Espainiako atzerritarren indizea Euskadikoaren 2,5 aldiz handiagoa da. Hortaz, adierazle estatistiko horrek erakusten digunez, Espainiako estatura iristen den atzerriko etorkinen fluxua modu desberdinetan banatzen da Espainiako autonomi erkidegoetan, aukeran Madril, Katalunia edo Valentzia⁴³, iparraldeko autonomiak baino nahiago dituztelako. Adiera horretan, Euskadin erroldaturiko atzerritarrak Espainian erroldaturiko guztien %1,9 baizik ez dira; Katalunian erroldaturikoak, berriz, %21,4 dira, Madrilgo Erkidegokoak %20,9 eta Valentziako Autonomia Erkidegoan erroldaturikoak, estatuko guztien %15,6. Seguru asko, atzerritarrak kontratatze abegikortasun handiagoa erakusten duten azpisektore ekonomikoetako lan-merkatuek (etxegintza, ostalaritza, etab.) hiru erkidego horietan agertzen duten dinamismo biziagoa izan daiteke eskualde batetik bestera hautematen diren etorkinen banaketa desberdinen arrazoia, eskualde batetik bestera atzematen diren desberdintasunekin batera.

ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN INDIZEA 1996AN ETA 2005-I-1EAN

	1996	2005	Diferentzia 2005-1996
EAE	0,6	3,4	2,8
Espainia	1,4	8,5	7,1

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.

⁴³ 2005eko urtarrilaren 1ean, Madrilgo erkidegoan erroldaturiko atzerritarren indizea %13,1 da, Valentziako erkidegokoak %12,4 eta Kataluniakoak %11,4.




Adin-taldeen araberako egiturari goazkiola, erroldaturiko atzerritarrek biztanleria gazte samarra osatzen dute, ondoko taulan jasoko dugun atzerritar biztanleriaren baitako gazteria-indizeek adierazten diguten modura. 2005eko urtarrilaren 1ean, horien %33,3 Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko taldekoak dira: hori Espainiari dagokiona (%30,8) baino handiagoa da. Datu hauek eta biztanleria osoarenak elkarrekin konparatuz gero, naziotasunen araberako bereizketarik egin gabe (15 eta 29 urte bitarteko gazteen %18,6 Euskadin eta %21 Espainiako estatuan), Euskadi eta Espainiako demografiari atzerriko etorkinen fluxuak sortzen dizkien onurak agerian geratzen dira.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN EHUNEKOAK, ERROLDATUTAKO ATZERRITAR-KOPURU OSOAREKIKO, 1996AN ETA 2005-I-1EAN

	1996	2005	Diferentzia 2005-1996
EAE	28,1	33,3	5,2
Espainia	23,2	30,8	7,6

Iturria: Biztanleen Udal-errolaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.



Orokorki, hazkunde natural negatiboak (jaiotza baino heriotza ugariagoak) eraginiko biztanleriaren zahartze eta gainbehera hiru bidetatik geldiarazten laguntzen du atzerriko etorkinen fluxuak:

- 45 urtez beherako kide gazte eta helduak ugaltzen dituenek, bi kohorte horietan hautematen den gainbehera orekatzeko mesedegarri gertatzen da.
- Lan eta bizitoki aldetik, beren burua egonkor gizarteratzea erdiesten duten atzerriarrek familia osatzen dute bertan edo, bestela, jatorriko herrialdean utzitakoa ekarri egiten dutenez, urtetan urrituriko haur-kohortea ugaltzen egiten da.
- Herrialde zigortuetatik datozen etorkinen kasuan, horien ugalkortasun eta jaiotza-tasa bertokoenak baino handiagoak dira, umeak ugaltzearen aldekoitasun kulturean sozializatu direlako.

Sexuaren arabera, 2005eko urtarrilaren hasieran, erroldatuak izan diren 15 - 19 (108,3 gizonezko 100 emakumeko) eta 25 - 29 urte (105,1 gizonezko 100 emakumeko)

bitarteko emakume atzerritarren presentzia txikiagoa da gizonezkoena baino EAEn, baina 20 - 24 urte bitartekoen artean, alderantziz gertatzen da (95,2 gizonezko 100 emakumeko). Espainia osoari dagokiola, hiru adin-talde horietan gizonezkoak ugariagoak dira, 25 - 29 urte bitartekoen taldean, batik bat (121 gizonezko 100 emakumeko).

2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN MASKULINOTASUN-TASAK

	15-19	20-24	25-29
EAE	108,3	95,2	105,1
Espainia	108,2	105,9	121,0


Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.

2005eko urtarrilaren 1ean erroldaturiko 15 eta 29 urte bitarteko atzerritarren nazionalitateen arabera, kontinenteka egindako banaketaz ari garela, hala EAEn nola Espainian, Hego Amerikako herritarrak dira gehientsuenak (%44,5 eta %38,5), ondotik afrikarrak datozkiela (%20,6 eta %22,1). Hirugarrenik, Euskadin, Europar Batasuneko hiritarrak agertzen dira (%12,7) baina Espainian Europako beste herrialde batzuetakoak (%18,4) dira ugarienak. Laugarren, aurreko proportzioa alderantzikatu da: Euskadin 'Europako beste herrialde batzuetakoak' %10,5 dira eta Espainiako estatuan, aldiz, Europar Batasunekoak %11,5. Orokorki, EEEtik kanpoko europar herrialdeetako atzerritarren artean, lan-alorreko arrazoiengatik emigratzen dutenak dira gehientsuenak eta Europar Batasunetik iritsitakoetan, ugariagoak dira lanean ez diharduten pertsonak eta zaharrak.

2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO 15 ETA 29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN BANAKETA KONTINENTEEN ARABERA, NAZIONALITATEA KONTUAN HARTUTA

	EAE	Espainia
Europar Batasuna	12,7	11,5
Europako beste herrialde batzuk	10,5	18,4
Áfrika	20,6	22,1
Erdialdeko Amerika	4,1	3,2
Ipar Amerika	2,2	1,3
Hego Amerika	44,5	38,5
Asia	5,3	5,0
Ozeania	0,1	0,1
Herrigabeak	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.




6.2. Lurralde historikoak

1996. urtetik 2005eko urtarrilaren 1era arte, erroldaturiko atzerritarren biztanleria gehiago ugaltu zen Araban (806,7), Bizkaian (554,4) eta Gipuzkoan (447,7) baino. Halaz ere, Bizkaian bizi ziren atzerritar erroldatu gehien (36.217), ondotik Gipuzkoakoak zetoziela (21.536).

1996TIK 2005-I-1 ARTE ERROLDATUTAKO BIZTANLERIA ATZERRITARRAREN BILAKAERA (1996=100)

	1996	2005
Araba	1.877	15.141
<i>Aldakuntza</i>	100,0	806,7
Bizkaia	6.533	36.217
<i>Aldakuntza</i>	100,0	554,4
Gipuzkoa	4.810	21.536
<i>Aldakuntza</i>	100,0	447,7

Iturria: Biztanleen Udal-errodaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.




Aztertzen ari garen aldiari, atzerritarren indizeak nabarmen handitu ziren, hutsaren hurrengotik (%0,2 Bizkaian eta %0,7 Araba eta Gipuzkoan) hasita, dezente ugalduta zelako biztanleriaren zati hori. 2005eko urtarrilaren hasieran, indizerik altuena Araban dago (lurralde horretan erroldaturiko biztanleria osoaren %5), hots, Bizkaia (%3,2) eta Gipuzkoako (%3,1) indizeak baino ia 2 puntu gorago.


1996AN ETA 2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN INDIZEA

	1996	2005	Diferentzia 2005-1996
Araba	0,7	5,0	4,3
Bizkaia	0,2	3,2	3,0
Gipuzkoa	0,7	3,1	2,4

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.



Euskadin erroldaturiko atzerritarrak ezberdin banatu dira lurralde historikoetan barrena: gehientsuenak (erdiak., ia: %49,7) Bizkaira bildu baitira.



15 eta 29 urte bitarteko gazteek erroldaturiko atzerritar guztiekiko osatzen duten ehunekoa areagotu egin zen hiru lurralde historikoetan 1996 eta 2005eko urtarilaren artean, batez ere Bizkaian (+5,5 puntu) eta Gipuzkoan (+6 puntu). 2005. urtearen hasieran, Araban erroldaturiko atzerritar guztien %32,9 dira, %34,1 Bizkaian eta %32,3 Gipuzkoan. Horrenbestez, atzerritarrek zahartze prozesua geldiarazten laguntzen ari dira hiru lurralde historikoetan.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO ATZERRITAREN EHUNEKOA, 1996AN ETA 2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO ATZERRITAR-KOPURU OSOAREKIKO

	1996	2005	Diferentzia 2005-1996
Araba	31,5	32,9	1,4
Bizkaia	28,5	34,1	5,6
Gipuzkoa	26,3	32,3	6,0

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.

2005eko urtarilaren 1ean erroldaturiko 15 eta 29 urte bitarteko atzerritar erroldatuen sexua aintzat harturik, bost urteka sailkaturiko adinen arabera, maskulinitasun-tasak 100 baino txikiagoak dira, hots, gizonaek emakumeak baino urriagoak dira hurrengo taldeetan:

- Bizkaiko (89,9) eta Gipuzkoako (96,3 gizonetzko 100 emakumeko) 20 eta 24 urte bitartekoen taldean.
- Bizkaiko 25 eta 29 urte bitartekoen taldean (93 gizonetzko 100 emakumeko).

2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO 15-19, 20-24 eta 25-29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN MASKULINOTASUN-TASAK

	15-19	20-24	25-29
Araba	99,3	108,4	127,5
Bizkaia	116,4	89,9	93,0
Gipuzkoa	100,8	96,3	113,5

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.

Maskulinitasun-tasek, aldiz, gizonetzko gehiago agertzen dute hurrengoetan:


- Bizkaian bizi diren 15 eta 19 urte bitarteko gizakietan (116,4 gizonetzko 100 emakumeko).
- 20 eta 24 urte bitarteko Arabako erroldatuetan (108,4 gizonetzko 100 emakumeko).
- Araban bizi diren 25 eta 29 urte bitartekoetan (127,5 gizonetzko 100 emakumeko) eta Gipuzkoan bizi diren adin berekoetan (113,5 gizonetzko 100 emakumeko).

Ikus dezagun ondoren, nola banatzen diren erroldaturiko gazte atzerritarrak, nazionalitatearen arabera, jatorriko kontinenteak aintzat harturik. Hiru lurralde historikoetan, Hego Amerikako gazteak dira gehientsuenak: atzerritar guztien %36,3 dira Araban, %50,4 Bizkaian eta %39,9 Gipuzkoan. Nolanahi ere, Bizkaian duten agerpena nabarmendu beharra dago: erroldaturiko 15 eta 29 urte bitarteko atzerritarren erdiak Hego Amerikako herritarrak dira.

2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO 15 ETA 29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN BANAKETA KONTINENTEEN ARABERA, NAZIONALITATEA KONTUAN HARTUTA

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Europar Batasuna	12,0	9,2	19,3
Europako beste herrialde batzuk	10,0	11,2	9,7
Áfrika	31,1	18,6	16,8
Erdialdeko Amerika	4,0	2,8	6,3
Ipar Amerika	1,2	2,1	3,1
Hego Amerika	36,3	50,4	39,9
Asia	5,4	5	4,8
Ozeania	0,0	0,1	0,2
Herrigabeak	0,0	0,0	0,0
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: Biztanleen Udal-errolaren Ustiapena. INE eta EUSTAT.



Bigarren eta hirugarren tokian dauden artean agertzen dira lurralde historikoen arteko desberdintasunak:

- ↪ Bigarren tokian daudenak: afrikarrek osatzen dute gehiengoa Araban (%31,1) eta Bizkaian (%18,6), baina Gipuzkoan Europar Batasuneko herrialdeetako pertsonak dira (%19,3) gehiengoak.
- ↪ Hirugarren tokian daudenak: ez datoz bat hiru lurraldeetako datuak; Araban, Europar Batasuneko herrialdeetako gizakiak dira gehientsuenak (%12), Bizkaian Europako beste zenbait herrialdeetakoak (%11,2) eta Gipuzkoan Afrikako estatu etakoak (%16,8).

6.3. Eskualdeak

1996an erroldaturiko biztanleriaz Euskadiko 20 eskualdeen gaineko informazio estatistikorik ez daukagunez, 2001. urtea hartu behar izan dugu abiagune gure azterlanean. Ondoko taulan ikus dezakegunez, eskualde guztietan atzerritarrek osaturiko biztanleria dezente ugaltu zen 2001etik 2005eko urtarrilera arte.


- 3 eskualdetan hirukoiztu egin zen erroldaturiko atzerritar biztanleria: Arratia Nerbioin (%325,6), Gernika-Bermeon (%328,9) eta Kantauri Arabarrear (%371,8).
- 3 eskualde horietan ez ezik, beste 9tan ere gehikuntza EAEko batez bestekoa (%233,9) baino handiagoa izan zen: Arabako Lautadan (%240,9), Arabako Mendialdean (%267,7), Deba Garaian (%264,4), Durangaldean (%259,8), Enkartzioetan (%256,2), Errioxa Arabarrear (%295,7), Goierrin (%270,2), Tolosaldean (%244,9) eta Urola-Kostaldean (%247,2).

2001ETIK 2005-I-1 ARTE ERROLDATUTAKO ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA (2001=100)

Eskualdeak	2001	2005
Arabako Ibarrek	74	166
<i>Aldakuntza</i>	100,0	224,3
Arabako Lautada	5.511	13.280
<i>Aldakuntza</i>	100,0	240,9
Arabako Mendialdea	62	166
<i>Aldakuntza</i>	100,0	267,7
Arratia Nerbioi	191	622
<i>Aldakuntza</i>	100,0	325,6
Bidasoa Beherea	1.443	3.214
<i>Aldakuntza</i>	100,0	222,7
Bilbo Handia	12.395	28.408
<i>Aldakuntza</i>	100,0	229,2
Deba Beherea	694	1427
<i>Aldakuntza</i>	100,0	205,6
Deba Garaia	503	1330
<i>Aldakuntza</i>	100,0	264,4
Donostialdea	4.955	10.838
<i>Aldakuntza</i>	100,0	218,7
Durungaldea /	922	2.395
<i>Aldakuntza</i>	100,0	259,8
Enkartzazioak	274	702
<i>Aldakuntza</i>	100,0	256,2
Errioxa Arabarra	164	485
<i>Aldakuntza</i>	100,0	295,7
Gernika-Bermeo	432	1.421
<i>Aldakuntza</i>	100,0	328,9
Goierri	672	1.816
<i>Aldakuntza</i>	100,0	270,2
Gorbeia Inguruak	133	269
<i>Aldakuntza</i>	100,0	202,3
Kantauri Arabarra	170	632
<i>Aldakuntza</i>	100,0	371,8
Markina-Ondarroa	520	1.017
<i>Aldakuntza</i>	100,0	195,6
Plentzia-Mungia	856	1.768
<i>Aldakuntza</i>	100,0	206,5
Tolosaldea	381	933
<i>Aldakuntza</i>	100,0	244,9
Urola-Kostaldea	815	2.015
<i>Aldakuntza</i>	100,0	247,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	31.167	72.904
<i>Aldakuntza</i>	100,0	233,9

Iturria: 2001eko Biztanleriaren Zentsua eta 005-I-1eko Biztanleen Udal-errolaren Ustiapena. EUSTAT.

**ATZERRIKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA ESKUALDEEN
ARABERA, 2001 ETIK 2005-I-1 ARTE (2001=100)**



Atzerritarren indizeak ere dezente handitu ziren 2001etik 2005eko urtarrileko 1era arte.

- Hazkunde handienak Arabako Lautadan (%2,4tik %5,5eraino) eta Arabako Mendialdean (%2tik %5,2raino) gertatu ziren.
- Apalenak, berriz, Tolosaldean (%0,9tik %2,1raino) eta Deba Beherean (%1,3etik %2,6raino)

2001EAN ETA 2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN INDIZEA

<i>Eskualdeak</i>	<i>2001</i>	<i>2005</i>	<i>Diferentzia 2005-1996</i>
Arabako Ibarak	1,6	3,2	1,6
Arabako Lautada	2,4	5,5	3,1
Arabako Mendialdea	2,0	5,2	3,2
Arratia Nerbioi	0,9	2,8	1,9
Bidasoa Beherea	2,0	4,3	2,3
Bilbo Handia	1,4	3,3	1,9
Deba Beherea	1,3	2,6	1,3
Deba Garaia	0,8	2,2	1,4
Donostialdea	1,6	3,4	1,8
Durangaldea	1,0	2,6	1,6
Enkartzioak	0,9	2,3	1,4
Errioxa Arabarra	1,6	4,5	2,9
Gernika-Bermeo	1,0	3,2	2,2
Goierrri	1,1	2,8	1,7
Gorbeia Inguruak	1,9	3,5	1,6
Kantauri Arabarra	0,5	1,9	1,4
Markina-Ondarroa	2,0	3,9	1,9
Plentzia-Mungia	1,9	3,6	1,7
Tolosaldea	0,9	2,1	1,2
Urola-Kostaldea	1,2	2,9	1,7
Euskal Autonomia Erkidegoa	1,5	3,4	1,9

Iturria: 2001eko Biztanleriaren Zentsua eta 005-I-1eko Biztanleen Udal-errolaren Ustiapena. EUSTAT.

Dena dela, Euskadiko udalerrietan 2005eko urtarrilean erroldaturiko atzerritarren banaketak alde handiak erakusten ditu 20 eskualdeetan ere: hiru eskualderik urbanizatuenean eta jendetsuenean kolektibo osoaren %72,1 biltzen dute: Bilbo Handia (%39), Arabako Lautada (%18,2) eta Donostialdea (%14,9). Kolektibo horren txertatze laborala erabat errazten duen enplegu-eskaintza eskualde horietan biltzeagatik banatzen da, nagusiki, erroldaturiko atzerritar biztanleria lurraldeen arteko desoreka horiekin. Hamaika erakarpen-faktoreren artean, gainera, aintzat hartu behar da eskualde urbanoetan eta metropolietan biltzen dela alokatzeko etxebizitzaren parkea.


Izan ere, bizitegi-alorreko beharrak asetzeko, atzerriko etorkin gehien-gehienek edukitza-erregimen horretara jo ohi dute.

ESKUALDE BAKOITZEAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARRAK (BI SEXUETAKOAK),
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN
KOPURU OSOAREKIKO

<i>Eskualdeak</i>	<i>Atzerritarrak 2005</i>	<i>EAErekiko ehunekoak</i>
Arabako Ibarrek	166	0,2
Arabako Lautada	13.280	18,2
Arabako Mendialdea	166	0,2
Arratia Nerbioi	622	0,9
Bidasoa Beherea	3.214	4,4
Bilbo Handia	28.408	39,0
Deba Beherea	1427	2,0
Deba Garaia	1330	1,8
Donostialdea	10.838	14,9
Durangaldea	2.395	3,3
Enkartzioak	702	1,0
Errioxa Arabarra /	485	0,7
Gernika-Bermeo	1.421	1,9
Goierri	1.816	2,5
Gorbeia Inguruak	269	0,4
Kantauri Arabarra	632	0,9
Markina-Ondarroa	1.017	1,4
Plentzia-Mungia	1.768	2,4
Tolosaldea	933	1,3
Urola-Kostaldea	2.015	2,8
Euskal Autonomia Erkidegoa	72.904	100,0

Iturria: Biztanleen Udal-errolaren Ustiapena 2005-I-1. EUSTAT.

**EAEN 2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN
BANAKETA, ESKUALDEZ ESKUALDE, EHUNEKOTAN**



Hurrengo taula ikusirik, erraz egiaztatuko dugu, eskualdeen arabera, 2005eko urtarrilean errolaturiko atzerritar guztietatik, 15 eta 29 urte bitarteko atzerritarrek osatzen dutela %26 (Gorbeia Inguruetan) edo %37,3 (Arratia Nerbioi). 7 eskualdetan gainditu da Autonomia Erkidegoko batez bestekoa (%33,4), hara:

- Arabako Mendialdea (%35,5)
- Arratia Nerbioi (%37,3)
- Bilbo Handia (34,2%)
- Deba Beherea (%33,6)
- Deba Garaia (%35)
- Durangaldea (%36,5)
- Urola-Kostaldea (%36,4)

15 eta 29 urte bitarteko gizakiek errolaturiko atzerritar biztanlerian agertzen duten garrantzi erlatibo horrek etekin mesedegarriak sorrarazten ditu euskal eskualdeetako demografian, martxan dagoen zahartze prozesuaren abiadura moteldu egiten dutelako.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN (BI SEXUETAKOAK) EHUNEKOAK, 2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO ATZERRITARREN KOPURU OSOAREKIKO

<i>Eskualdeak</i>	<i>15 eta 29 urte bitarteko atzerritarrek</i>	<i>Atzerritarrek guztira</i>	<i>15-29koen ehunekoak / Guztira</i>
Arabako Ibarrek	45	166	27,1
Arabako Lautada	4.413	13.280	33,2
Arabako Mendialdea	59	166	35,5
Arratia Nerbioi	232	622	37,3
Bidasoa Beherea	962	3.214	29,9
Bilbo Handia	9.723	28.408	34,2
Deba Beherea	479	1.427	33,6
Deba Garaia	465	1.330	35,0
Donostialdea	3.433	10.838	31,7
Durangaldea	875	2.395	36,5
Enkartzioak	234	702	33,3
Errioxa Arabarra	162	485	33,4
Gernika-Bermeo	467	1.421	32,9
Goierry	600	1.816	33,0
Gorbeia Inguruak	70	269	26,0
Kantauri Arabarra	194	632	30,7
Markina-Ondarroa	326	1.017	32,1
Plentzia-Mungia	549	1.768	31,1
Tolosaldea	312	933	33,4
Urola-Kostaldea	733	2.015	36,4
Euskal Autonomia Erkidegoa	24.333	72.904	33,4

Iturria: Biztanleen Udal-eroldaren Ustiapena 2005-I-1. EUSTAT.


Bukatzeko, 2005. urtearen hasieran eskualdeetan erroldaturiko 15 eta 29 urte bitarteko atzerritarrek erakusten dituzten maskulinitasun-tasak aipatuko ditugu. 13 eskualdetan tasak 100 baino dezente altuagoak dira, horietan gizasemeak emakumeak baino ugariagoak direlako, hots, eskualde horietan atzerritar gazteen fluxua dezente maskulinitua dago. Eskualde horietatik bi nabarmentzen dira, gizonezkoak emakumeen halako bi direlako: Arabako Mendialdea (15 et 29 urte bitarteko 210,5 gizonezko 100 emakumeko) eta Markina-Ondarroa (213,5). Aipa ditzagun, bidenabar, gainerako 11 eskualdeak: Arabako Ibarrek (15 eta 29 urte bitarteko 150 gizonezko 100 emakumeko), Arabako Lautada (115,5), Arratia Nerbioi (144,2), Deba Beherea (111), Deba Garaia (124,6), Durangaldea (123,8), Enkartzioak (110,8), Goierri (119), Kantauri Arabarra (125,6), Tolosaldea (124,5) eta Urola-Kostaldea (15 eta 29 urte bitarteko 118,8 gizonezko 100 emakumeko).

2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO 15 ETA 29 URTE BITARTEKO ATZERRITARREN MASKULINITASUN-TASAK

<i>Eskualdeak</i>	<i>Gizonezkoak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Maskulinitasun-tasak</i>
Arabako Ibarrek	27	18	150,0
Arabako Lautada	2.365	2.048	115,5
Arabako Mendialdea	40	19	210,5
Arratia Nerbioi	137	95	144,2
Bidasoa Beherea	487	475	102,5
Bilbo Handia	4.618	5.105	90,5
Deba Beherea	252	227	111,0
Deba Garaia	258	207	124,6
Donostialdea	1.703	1.730	98,4
Durangaldea	484	391	123,8
Enkartzioak	123	111	110,8
Errioxa Arabarra	78	84	92,9
Gernika-Bermeo	233	234	99,6
Goierri	326	274	119,0
Gorbeia Inguruak	34	36	94,4
Kantauri Arabarra	108	86	125,6
Markina-Ondarroa	222	104	213,5
Plentzia-Mungia	250	299	83,6
Tolosaldea	173	139	124,5
Urola-Kostaldea	398	335	118,8
Euski Autonomia Erkidegoa	12.316	12.017	102,5

Iturria: Biztanleen Udal-erroldaren Ustiapena 2005-I-1. EUSTAT.

**2005-I-1EAN ERROLDATUTAKO 15 ETA 29 URTE BITARTEKO
ATZERRITARREN MASKULINOTASUN-TASAK, ESKUALDEZ
ESKUALDE**



5 eskualdetan, aldiz, emakumezkoak gizasemeak baino ugariago direnez, bertako tasak 100 baino txikiagoak dira. Lurralde-eremu horietan atzerritar gazteen fluxua feminizatua dago. Hona eskualdeak: Bilbo Handia (15 eta 29 urte bitartekoetan, 90,5 gizonezko 100 emakumeko), Donostialdea (98,4), Errioxa Arabarra (92,9), Gorbeia Inguruak (94,4) eta Plentzia-Mungia (83,6). Seguru aski, eskualde horietako lan-merkatuetan eskaintzen diren lan-jarduerak aproposagoak dira emakume atzerritarrek txertatzeko.

6.4. Ondorioak

Etorkinen fenomenoaren aresti samar hasitakoa da euskal eta espainiar gizarteetan, baina Espainiako estatuko beste autonomi erkidegoetan gertatu ez bezala, EAEn hartu duen dimentsio kuantitatiboa dezente apalagoa izan da orain arte: 2005eko urtarrilaren 1ean Euskadin erroldaturiko 72.894 atzerritarrek bertoko biztanleriaren %3,4 osatzen dute; Espainian, berriz, %8,5 dira. Atzerritarren presentzia handiena duten erkidegoetan, berriz, atzerritarrek %13,1 (Madril), %12,4 (Valentzia) eta %11,4 (Katalunia) osatzen dute.

Gogora ditzagun orain, egungo atzerritar etorkinen fluxuak Euskadin eta, orokorki, Espainian demografiari eragiten dizkion onurak:

- ☞ Herritar horietako gehienak gazteak eta helduak dira, lanean jarduteko modukoak: horrek adin horretako kohorteetako kideak ugaltzen ditu eta, gainera, 15 eta 29 urte bitarteko kohortea nozitzen ari den gainbehera luzearen karga orekatzeko biziki mesedegarria da. 2005eko urtarrilaren 1ean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteak, erroldaturiko pertsona guztien %18,6 (EAE) eta %21 (Espainia) baizik ez ziren; kohorte hori bera erroldaturiko atzerritarren %33,3 (EAE) eta %30,8 (Espainia) da.
- ☞ Gureak bezain garatuak ez dauden herrialdeetatik datozen atzerritar langileen ugalkortasuna eta jaiotza-tasak handiagoak izaten dira, jaiotzaren aldeko testuinguru soziokulturalean sozializatuak izan baitira: horrek haurren kohorte urria ugaltzen laguntzen du. Adiera horretan, ama atzerritarren ugalkortasun handiagoak, Espainian eta Euskadin, ugalkortasun-indize sintetikoak gora egin

dezan bultzatzen du: 2004an, seme-alaben kopurua, emakume bakoitzeko, 1,33 eta 1,18 umeraino igo zen⁴⁴. Jaiotza guztietatik, ama atzerritarrenak dira Espainiako estatuko guztien %13,8 eta Euskadin %6,6 baizik ez dira izan 2004an; oso litekeena da EAeko UIS txikiago hori euskal biztanlerian ama atzerritarren presentzia urriagoaren ondorio izatea. Atzerritarren presentzia handiena duten autonomi erkidegoetan, atzerritar amengandiko jaiotzak nabarmen ugariagoak dira: jaiotza guztien %19,9 Madrilgo Erkidegoan eta %19,1 Katalunian. Era berean, 2004ko UIS erkidego bi horietan handiagoa da: 1,38 Madrilan eta 1,43 seme-alaba emakume bakoitzeko Katalunian.

Kontuan hartu behar dugu, bestetik, atzerriko langileen etorrerak sorrarazitako emaitza mesedegarriek epe luzera moteltzeko joera hartzen dutela, ohiko kontua baita kolektibo horrek —bigarren belaunaldian, batik bat— bizitoki aukeratu duten gizartean nagusi diren balio eta jokaera demografiko berberak hartzea; beraz, horiek ugalkortasunean eta haur-kohortean izan dituzten eragin mesedegarriak epe luzera ahuldu egingo dira, euskal gizarteak egungo ugalkortasun eta jaiotza-tasa apaletan irauten badu.

Laburbilduz, EAeko egitura demografikoa gaztetuko bada, atzerritar gazteen bestelako fluxuen premia du, hots, munta eta iraupen handiagokoak izan behar dute, adibidez, Madrilgo Erkidegoan edo Katalunian gertatzen ari denaren ildotik. Euskadik Espainiako estatura doazen atzerritar langileen fluxuan izan dezakeen erakarmena indartzeko, ordea, enplegu gehiago sortuko dituzten lan-merkatu dinamikoagoak osatu behar dira.

Bere artikuluan Rafael Puyol-ek dioen legez: ‘Hazkunde demografikoko tasa altuen eta garapen ekonomiko eta sozial urriaren emaitzei ihes eginez, etorkinen etorrera beren herrietatik kanporatzeko gertatzen diren prozesuen ondorio ia bakarra dela uste du jende askok. Egiari zor, arrazoi horiengatik ere etortzen dira hona, baina ez horregatik soilik. Hemen behar ditugulako datoz, gure lan-merkatuko beheerenero mailetan toki egokia bilatzen dutelako. Ikuspegi horretatik ere, etorkinak beharrezkoak ditugu eta etorkizunean are premiazkoagoak izango dira.’⁴⁵ Dударik gabe, atzerriko etorkinak euskal eta espainiar ekonomien premiak betetzeko aukera paregabea dira eta etorkizunean ere izango dira. Hots, joan den mendeko 80ko hamarkadaz geroztik

⁴⁴ Horiek dira, hain zuzen IUS handienak Espainian 1992. urtetik (1,32) eta EAEn 1987tik (1,13 seme-alaba, emakume bakoitzeko).

⁴⁵ Rafael Puyol Antolín (2005): ‘La inmigración española: ¿solución demográfica o económica? in *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*, 59-60 orr.. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

hauteman ditugun ugalkortasun eta jaiotza-tasa urriak hurrengo urteetan euskal eta espainiar nazionalitateko gazteen kohortearen gabezia kuantitatiboa bihurtuko dira, lan-merkatutik langileak irtetearen ondorioz (erretiroa hartzea, gaixotasunengatiko bajak, ezintasunak, etc.) hutsik geratuko diren lanpostuak betetzeko. Lan-merkatuan emakume heldu gehiago sartu eta erretiroa hartzeko adina atzeratzen bada ere, adituen iritziz, 2014-15 urtetik aurrera, ekarpen horiek ez dira aski izango lanean aritzeko adina dutenek eta lanean dabiltzanek osaturiko biztanleria murriztearen aldeko joera orekatzeko; horrenbestez, 'horrelako egokiera baten aurrean, itxura guztien arabera, badirudi ezinbestekoa izango dela immigrazio handiago batera jotzea. Ikuspegi horretatik, herri bateko lan-merkatua bertoko demografiarekin asetzerik ez dagoenean, emigrazioa konponbide ekonomikotzat ikusi beharra dago.'⁴⁶

Atzerriko langileek, beste aldetik, beren kotizazioak ordainduz Gizarte-segurantzako kontuak orekatzen laguntzen dute. Horrez gainera, kontsumitzaile dira: beren hastapeneko biziraupeneko kontsumoa lehen premiakotzat jotzen ez diren gastuetara hedatzen da azkar asko (oporraldietako bidaiak, musika-ekipoak, ibilgailuak etab.). Etorrin ekonomikoen kontsumoa, beraz, pixkanaka beren maila sozioekonomikoa duten bertokoen kontsumo-ereduetara gerturatzen da. Izan ere, kontsumitze-rol hori, egungo gizarte aurreratuetan (kontsumo-gizarteak diren aldetik), hazkunde ekonomikoa eta enplegu berrien sorrera bihurtzen da ezinbestean⁴⁷.

Hausnartu egin beharko litzateke, ordea, ea euskal gizartea prest ote dagoen, ikuspegi laboral eta sozialetik epe ertainera txertatu beharko omen etorkin-fluxu handia onartzeko. Immigrazioaren Euskal Behategiak (IKUSPEGUI) 2004. urtean inkesta bat egin zuen⁴⁸, euskal biztanleriak atzerriko etorkinengana zituen jarrerak, pertzepzioak eta balioak ezagutzeko xedez. Bertako ondorioetatik hurrengoak hautatu ditugu:

- ◆ Euskal herritarrek diotenez, etorkin gutxi dauden auzoetan bizi dira eta horrelakoetan bizitzen segitu nahi lukete, gehienbat.

⁴⁶ Rafael Puyol Antolín (2005): 'La inmigración española: ¿solución demográfica o económica?' in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 65 orr. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

⁴⁷ Andrés Tornos Cubillo (2005): 'El papel de la inmigración económica en las sociedades avanzadas' in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 75 orr. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

⁴⁸ IKUSPEGUI - Observatorio Vasco de Inmigración (2004ko abendua): "Percepciones, valores y actitudes de la población vasca hacia la inmigración extranjera", 61-65 orr. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Saila.

- ◆ Euskal herritarren ustez, etorkinen etorrerak euskal ekonomian emaitza onuragarriak izango ditu; euskal herritarren %60ren iritziz, etorkinei esker ekonomiak hobe funtziona dezake, bertako biztanleriak nahi ez dituen lanpostuak betetzen dituztelako.
- ◆ Euskal biztanleriaren ustez, dagoeneko egoera larrian dauden sektoreei kalte egin diezaioke immigrazioak, baina aldi berean, Euskadiko esparru ekonomiko horietan atzematen diren premietarako, ekonomiaren eta lanaren aldetik etorkinak funtzionalak omen dira.
- ◆ Euskal herritarren aburuz, etorkinek aberaste kulturala eragiten dute; euskaldunen %70en ustez, ona omen da gizarteak hainbat kultura, etnia eta erlijio desberdinek osatuak izatea. Aniztasun kulturalaren aldekoa da, oro har.
- ◆ Nolanahi ere, %80 baino gehiagok uste du gauza ona dela gizartean hizkuntza bat, behintzat, komuna izatea.
- ◆ Gehien-gehientsuenek uste dute ikasgeletan haur etorkinak izatea mesedegarria eta aberasgarria izan daitekeela eta %60 inguru, berriz, ez datoz bat etorkinak egoteak irakaskuntzaren kalitatea galarazi egiten duela diotenekin.
- ◆ Euskal herritarren erdiek baino gehiagok diotenez, etorkinak egoteak hiritarren segurtasunean eragin kaltegarria izan du.
- ◆ Euskal herritarren %63k uste du atzerriko etorkinak etortzeak ez duela euskal abertzaletasunaren nahietan eraginik izango eta %70 ingururen iritziz, horrek ez du euskal nortasunaren galera ekarriko.
- ◆ Euskal biztanleriaren %70en aburuz, pertsona atzerritarren etorrerak ez du euskararen aurrerakuntza geldiaraziko, ez EAEn, ez eta euskara eguneroko hizkuntza nagusi duten tokietan ere.
- ◆ Euskal gizartearen gehiengoak pertsonen joan-etorri askearen aldekoa da. Era berean, 'zor etiko' dei dezakegun zerbait badagoela etsi-etsian sinesten du, biztanleriaren %75en iritziz, herrialde txiroetatik datozen pertsonak herrialde aberatsek jaso behar dituztelako.

- ◆ Etorrinekiko harreman eta kontaktuei dagokienez, euskal biztanleriari axola zaio seme-alabaren bat magrebtar batekin ezkontzea. Gainerako harremanetan, aldiz, etorkinak auzo-lagun, lankide edo nagusi gisara edukitzeak ez omen dio axola. Dena dela, datuak arretaz irakurriz gero ondoriozta daiteke euskal herritarrek horrelako egoera batzuk arazo modura ez ikusiagatik, kezka sorrarazten dietela bederen.
- ◆ Gizatalderik arbuatuenak magrebtar eta errumaniarrak dira. Euskal biztanleriak etsi-etsian sinesten du (%70) magrebtar biztanleriak ez duela bertan integratu nahi. Egoera berean omen daude errumaniarrak, txinatarrak eta afrikar beltzak, baina proportzio urriagotan. Beste aldetik, kolonbiarretan (%54,6) eta ekuadortarretan (%64,5) euskal gizartean txertatzeko interes handia hautematen du.
- ◆ Magrebtarren aldeko sinpatiarik ez du euskal gizarteak. Europar Batasuneko, Europa Ekialdeko eta Latinoamerikako jendea, aitzitik, atsegin zaio. Arrazoia zeinahi dela ere, Ipar Amerikako jendearenganako sinpatiarik eza ere nabarmentzekoa da.
- ◆ Euskaldun gehientsuenek diotenez, kulturen, erlijioen edo etnien aniztasuna positiboki baloratzen du eta, gainera, etorkinak erabat onartuak izan daitezen beren kultura bertan behera uzteari ez deritzote ongi. Kultura edo erlijio horietako zatiren bat legeriaren kontrako denean, ordea, mesfidantzak agertzen dira.
- ◆ Sexuen arabera, etorkinak mesedetzen dituzten kontu eta izari guztietan, gizonezkoak eskuzabalagoak dira emakumezkoak baino.
- ◆ Lurralde historikoen arabera ere konstante bat hautematen da: atzerriko immigrazioaren aurrean gipuzkoarrak dira irekienak, arabarrak itxienak eta bizkaitarrak batzuen eta besteen artean dabilta.

IKUSPEGI-k sustaturiko inkesta honetako ondorioak irakurriz gero atzeman dugunez, emaitza batzuek euskal biztanleriaren zati batek etnia eta nazionalitate jakin batzuen kontrako mesfidantzazko —eta, areago, ageri edo ezkutuko arbuiozko— balio eta jarrerak agertzen dituela adierazten dute. Adiera horretan, atzerritar etorkinen

presentzia handitzean, hauen gizarteratzeko eta erabat txertatzeko berariazko baliabide sozial eta kulturalak sustatu beharko dira. Era berean, herritarren artean balio eta jarrera psikosozial irekiak sustatu beharko dira; horrek esan nahi du informazioa, orientabidea eta sentsibilizazioa erdiesteko egintzak, atzerritar etorkinei ez ezik, euskal biztanleriari ere zuzendu behar zaizkiola, gizarteratze eta integratze-prozesuetan sor litezkeen elkarrenganako mesfidantza, arbuio eta beldurrak gainditzen laguntzeko. Atzerritar etorkin gehiago duten autonomi erkidegoetan, izan ere, eragozpenei abantailei baino garrantzi handiagoa aitortzen dion iritzi publikoa agertzen hasia da. Atzerritarren immigrazioa eta delinkuentzia ugaltzea identifikatzen dituen zeharkako iritzia finkatzen ari da eta horri aurka egin behar zaio eta gezurtatu, erakunde publiko eta sozialetatik. Rafael Puyol-en hitzetan: 'Atzerritarren presentzia ez da arazotzat jo behar, baina begi-bistakoa da horien hazkunde latzak ondorio tamalgarriren bat utzi duela. Kontuan har dezagun, etorkinen artean gaizkileak badira ere, ez dugula immigrazio guztia kriminalizatu eta deskalifikatu behar, bere emaitza onuragarriak ahaztuta'.⁴⁹

⁴⁹ Rafael Puyol Antolín (2005): 'La inmigración española: ¿solución demográfica o económica?' in La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social, 66 orr. Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, Gasteiz.

VII. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OSASUNA

Osasunaren soziologiak gizakiaren osasunean esku-hartzen duten dimentsio desberdin guzti-guztiak aintzat hartzearen garrantzia azpimarratu izan du, pertsonak bizitegi duten ingurune soziokulturala, ekonomikoa eta bizi-kalitatearen arteko elkarreragina inplikatzeko baitu osasunak. Inguruneareki harremanak izatea azken batean energia trukatzeko da eta, horrenbestez, osasuna trukatzeko da, eta hala ez bada, osasuna alferrik xahutzeko. Osotasunezko ikuspegi horretatik, ingurunearekiko harremanek, ingurunearen kalitateak, aisialdian eta lanean aritzeko baldintzek eta moduek, elikatzeko, kontsumitzeko eta dibertitzeko ohiturek eta beste hainbat faktorek baldintzatu egiten dituzte komunitate, klase sozial eta gizataldeen osasunerako joerak eta arriskuak. Hortaz, komunitate, klase sozial edo gizatalde bereko kide diren gizakien osasunean, gizarte hori osatzen dutenen bizitzeko modu desberdinek, bestela esanda, errealitatean diren balio, jarrera, pertzepzio, sinesmen eta praktika soziokulturalek, duten garrantzia azpimarragarria da, beren bizi-kalitatean eta osasun-mailan eragiten baitute.⁵⁰

Ongizate-estatua garatu ahala, Europar Batasuneko biztanleriaren osasun-maila dezente hobetu da, osasunaren arloko ekipamendu eta zerbitzuetan eginiko inbertsio publikoei, biztanleriaren hezkuntza eta prebentzioari eta saneamendu eta ingurugiroko berregokitze-lanei eta azpiegiturei esker, batik bat. Europako ongizatearen gizarteetan gorpuztu den osasunaren hobetze-prozesu hori ez zaio arrotz izan EAeko biztanleriari. Izan ere, Euskadik duen errenta-maila altuari esker, EAeko Administrazioak Espainiako estatuko osasun-sistematik hobereenetako bat inplementatu du.

Paradoxazkoa badirudi ere, euskal gazteen osasunaren arriskuak batzuk inguruneak aberastasun materialak elikaturiko 'desiratu gabeko ondorioetatik' datoz. Ba al liteke horrelakorik? 'Zenbat eta ongizate material handiagoa orduan eta osasun-gradu hobea' ekuazioak ez ote du balio dagoeneko? Derrigorrez ez, oro har. Gazteak bizi eta sozializatzen diren *kontsumo-giroak* ahuldu egiten dituelako gazteok, kontsumo eta hedonismoaren aldeko moden aginduen aurrean. Gazteak bizi duen aberastasun

⁵⁰ Salvador Giner, Emilio Lamo de Espinosa eta Cristóbal Torres (1998): Diccionario de Sociología, 723 orr.. Alianza Editorial SA, Madril.

eta oparotasun erlatiboa kontsumista da, batik bat, eta hainbat balio eta ohitura osasungarri eragin dezaketen kontrapisua bere sozializazio formal eta informalean ahultzen bada, sustatu egin ditzake jokabide goiztiarrak, gehiegikeriak, plazerra eta berehalako eskerrona bilatzen duten jokamoldeak.

Grosso modo, pubertaroaren eta hazkunde fisikoaren azkartzeak nerabe eta gazteen artean heltze fisiko goiztiarra eragin dute, baina heltze fisiko hori, beren osasunari buruzko erabakiak hartzea dela eta, ez doa heltze psikomentalaren eskutik. Horrenbestez, osasunarentzat kaltegarri izan daitezkeen jokabideak gara ditzakete gazteek, hedonismoaren eta kontsumoaren inguruko harreman eta jardueren, aisialdiaren balorazio handiegien eta, maiz konpulsiboak eta kontsumistak diren dibertsiozko praktika eta jarrerren bidez, plazerra eta berehalako eskerrona bilatzeak markaturiko inguruneak bultzatuta. Gazteriaren kontsumo-praktika eta jarduera asko eta asko aisi espazioan eta denboran gauzatzen direlako, hain zuzen ere, ingurune soziokultural horrexetan gorpuzten dira beren osasuna arriskuan jartzen duten jokabide gehienak. Nerabe eta gazteen osasunarentzat arriskutsu diren jokamoldetzat hartzen dira, oro har: erretzea, alkohola eta substantzia psikoaktiboak kontsumitzea, sexu-jarduera goiztiarra, dieta-jokabide desegokiak eta ibilgailuak ausarkeriaz gidatzea⁵¹.

Beste aldetik, *Gazteriaren Joerak 2006 – Lehen Txostena*⁵² ikerlanean, EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteek, 2006ko apirilean telefono bidez egin zitzairen inkestan islatu denez, 10 puntutik (erabateko garrantzia dauka) osasunari 9,26 puntu aitortu izanak esan nahi du euskal gazteek osasuna biziki preziaturiko ondasuntzat dutela. Gazteen Euskal Behatokiak eginiko inkesta horretatik hurrengo datuak jasoko ditugu:

- 📁 Gazteek beren osasunaz duten pertzepzioaz, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %17,8k bikaina dela diote; %69,1ek ona, %11,8k hala-moduzkoa eta %1,1ek erdipurdikoa edo txarra dela.
- 📁 Gazteen %10,3ek nozitzen duen gaixotasun kronikoa edo ezintasuna gaitz alergikoa da, batik bat (%70,1).

⁵¹ Pilar Brañas Fernández (2001): La juventud y los comportamientos de riesgo para la salud, in *Revista Estudios de Juventud*, 55 zk, 18 orr. INJUVE, Madril.

⁵² Gizaker (2006ko ekainean): *Gazteriaren Joerak, 2006 – Lehen Txostena*. Kultura Saileko Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritza.

- 📁 Gazteen %69,8 sendagilearengana joan da azken urtean; gehientsuenak familiako medikuarengana jo zuen (%68,4); bestelako espezialisten kontsulta gazteen ehuneko urriagoak bisitatu zuen: odontologia (%6,5), ginekologoa (%5,5), larrialdiak (%5,4).
- 📁 Inkesta bete duten gazteek, ia egunero edo astean behin, izaten dute nekea eta akidura (%32,1), suminkortasuna edo umore txarra (%20,3), urduritasuna (%19,7), bizkarreko mina (%14,1), lepoko edo sorbaldako mina (%12,9), lo egiteko zailtasunak (%11,1), burukomina (%8,6), aldarte ahul edo gogo txarra (%7,4), urdaileko mina (%4,1), beldurra (%2,9) edota zorabiatzeko sententzioa (%2,6).
- 📁 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %2,2 tratamendu psikologikoa hartzen ari da, tratatu beharreko arazoak hurrengoak izaki: depresioa (%22,6), antsietatea (%12,9), drogak (%6,5), trafiko-istripuaren osteko ondorio psikologikoak (%6,5), lagunekiko harreman-arazoak (%6,5), bortizkeria (%3,2), bulimia (%3,2) edota etxeke gorabeherak (%3,2).
- 📁 Nork bere gorputz edo pisua nola ikusten duen, berriz: gazteen %20,5ek gizen edo gizenegi dagoela uste du (nesken %24,5ek eta mutilen %16,5ek); gazteen %12,5ek, aitzitik, bere gorputza ikusten du argala (%10,6) edo argalegia (%1,9).

Hurrengo orrialdeetan, 15 eta 29 urte bitarteko kohorteari dagozkion hainbat osasun-adierazle aztertuko ditugu, ondorengo lau gai-esparrutan:

- a) Kontsultak: estatu espainiar osoaren eta hogeit hamar euskal eskualdeen gaineko daturik ez dugunez, EAE osoari eta hiru lurralde historikoei dagokien informazioa bakarrik aztertuko dugu.
- b) Haurdunaldiaren legezko etendura: honi buruz, Euskadiko datuez gainera, Espainiakoak ere baditugu baina ez, ordea, hiru lurralde historikoetakoak eta hogeit hamar euskal eskualdeetakoak.
- c) Droga-menpekotasunen aurkako tratamenduak: Espainiako estatuari eta hogeit hamar euskal eskualdeei buruzko daturik ez dugunez, azterketan EAE osoari eta hiru lurralde historikoei dagokien informazioaz bakarrik arituko gara.

d) Aitorturiko HIES kasuak: baditugu Euskadi eta Espainiari buruzko datuak, baita hiru lurralde historikoei buruzkoak ere, baina ez hogeitau euskal eskualdeen gainekoak.

Hasteko, Euskal Autonomia Erkidegora begira garatu den azterlaneko emaitzak ikusiko ditugu.

7.1. Euskadi eta Espainia

a) Osasun-kontsultak:

1992tik 2002ra arte, EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteek eginiko osasun-kontsultak %8,3 ugalduta ziren. Sexuen arabera, gehikuntza handia gizonezkoetan atzeman zen (%18,3), emakumeen hazkundera arina izan baitzen (%1,04).

OSASUN-KONTSULTEN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO KOHORTEAN, SEXUAREN ARABERA, 1992TIK 2002 ARTE

	1992	2002	Aldakuntza 2002/1992 (1992=100)
EAE			
<i>Gizonezkoak</i>	943.202	1.115.845	118,30
<i>Emakumeak</i>	1.298.648	1.312.117	101,04
<i>Bi sexuetoak</i>	2.241.850	2.427.962	108,30

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

15 eta 29 urte bitarteko kohorteak urtero egiten duen batez besteko osasun-kontsulten kopurua handitu egin zen 1992tik 2002ra. Bi sexuetoako pertsonak kontuan izaki, egindako osasun-kontsultak 4,2 izatetik 5,5 izatera pasatu zen. Sexuaren arabera, batez bestekoen hazkunderik nabarmenena gizonezkoek eragin zuten (+1,4: 3,5 osasun-kontsultatik 4,9ra); baina emakumeak dira urtearen buruan osasun-kontsulta gehien egin dituztenak, batez beste, bai 1992. urtean (5), baita 2002an ere (6,1).

15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN OSASUN-KONTSULTAK BATEZ BESTE, SEXUAREN ARABERA, 1992AN ETA 2002AN

	1992*	2002	Diferentzia 2002-1992
EAE			
<i>Gizonezkoak</i>	3,5	4,9	1,4
<i>Emakumeak</i>	5,0	6,1	1,1
<i>Bi sexuetaoak</i>	4,2	5,5	1,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baitaukagu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko datuak.


Azterketa konparatibo honetan adina aldagaia sartzean ikusiko dugunez, 15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira 1992an, osasun-konsulta gutxien egin dituztenak urtean (3,6); 2003. urtean, berriz, batez besteko handiena egin dute: 5,8 osasun-konsulta, 25 eta 29 urte bitartekoen taldeak agertu duen 5,7 horren gainetik; 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, aldiz, zifrak alderantziz aldatu ziren: 1992. urtean talde horretakoak izan ziren sendagilearengana gehienetan joan zirenak (4,7 aldiz) baina 2002an hiru taldeetako batez bestekorik apalena dute (5,1 osasun-konsulta).

15-19. 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN (BI SEXUETAKOAK) OSASUN-KONTSULTAK BATEZ BESTE, 1992AN ETA 2002AN

	1992*	2002	Diferentzia 2002-1992
EAE			
<i>15 – 19</i>	3,6	5,8	2,2
<i>20 – 24</i>	4,7	5,1	0,4
<i>25 -29</i>	4,3	5,7	1,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baitaukagu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko datuak.




Ikus dezagun jarraian zein bilakaera izan duten osasun-kontsultek, espezialitateen arabera, 1992 eta 2002 artean. Sei espezialitatetan, sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko gazteek eginiko osasun-kontsultak ugaltu egin ziren: medikuntza orokorrean (%+15,9), oftalmologian (%+23,9), otorrinolaringologian (%+135,6), traumatologian (%+62,3), dermatologian (%+143,6) eta erradiologian (%+77,4); ugaltzerik nabarmenenak, ikusi bezala, otorrinolaringologian eta dermatologian gertatu ziren. Osasun-kontsultak gehien urritu diren espezialitateen artean, odontologia (%-25,8), ginekologia (%-31,9) eta neumologia (%-5,4) daude.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OSASUN-KONTSULTEN BILAKAERA, ESPEZIALITATEAREN ARABERA, 1992TIK 2002 ARTE

<i>Bi sexuetakoak</i>	<i>1992</i>	<i>2002</i>	<i>Aldakuntza 2002/1992 (1992=100)</i>
EAE			
<i>Odontologia</i>	678.444	503.175	74,2
<i>Medikuntza Orokorra</i>	979.810	1.135.662	115,9
<i>Ginekologia</i>	147.628	100.539	68,1
<i>Oftalmologia</i>	41.678	51.631	123,9
<i>Otorrinolaringologia</i>	27.794	65.488	235,6
<i>Traumatologia</i>	120.042	194.855	162,3
<i>Arnas aparatua</i>	34.502	32.644	94,6
<i>Dermatologia</i>	32.136	78.288	243,6
<i>Erradiologia</i>	10.894	19.325	177,4
<i>Bestelakoak</i>	168.922	246.355	145,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

15 eta 29 urte bitarteko gazteek 2002. urtean eginiko osasun-kontsultei dagokienez, ondoko grafikoan jasotzen den eran banatu ziren, espezialitateen arabera: medikuntza orokorrekoek betetzen dute zati handiena (%46,8), ondotik odontologiari eginiko bisitak datoz (%20,7) eta hirugarren tokian traumatologiakoak (2002. urteko osasun-kontsulta guztien %8).



Espezialitateekin jarraituz, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek 1992 eta 2002 artean eginiko batez besteko osasun-kontsultak ugaldtu egin ziren hiru espezialitateetan: medikuntza orokorrean (1,8tik 2,6ra), traumatologian (0,2tik 0,4ra) eta dermatologian (0,1etik a 0,2ra). Horiek ez bezala, aipatutako aldi horretan, Euskadin bizi ziren 15 eta 29 urte bitarteko lagun eta urte bakoitzeko, osasun-kontsulten batez besteko kopurua jaitsi egin zen odontologian (1,3tik 1,1era) eta ginekologian (0,3tik 0,2ra).

15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK 1992AN ETA 2002AN EGINDAKO OSASUN-KONTSULTAK, ESPEZIALITATEAREN ARABERA, BATEZ BESTE

<i>Bi sexuetakoak</i>	<i>1992*</i>	<i>2002</i>	<i>Diferentzia 2002-1992</i>
EAE			
<i>Odontologia</i>	1,3	1,1	-0,2
<i>Medikuntza Orokorra</i>	1,8	2,6	0,8
<i>Ginekologia</i>	0,3	0,2	-0,1
<i>Oftalmologia</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Otorrinolaringologia</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Traumatologia</i>	0,2	0,4	0,2
<i>Arnas aparatua</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Dermatologia</i>	0,1	0,2	0,1
<i>Erradiologia</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Bestelakoak</i>	0,3	0,6	0,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.


(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baita ukagatu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko datuekin.

2002. urteari doakiola, 'sexua' aldagaia aztertzean, ia espezialitate guztietan, gizonezkoek urtean egiten dituzten batez besteko osasun-kontsulten kopurua emakumeenak baino txikiagoak direla ikusten dugu. Hots, batenaz beste, 2002. urtean 15 eta 29 urte bitarteko emakumeek sendagilea gehiagotan bisitatu zuten adin bereko gizonezkoek baino: emakumearen artapenean oinarritzen delako, ginekologia at utzirik, nabarmendu direnak dira medikuntza orokorra (2,7 osasun-kontsulta emakumeek eta 2,4 gizonezkoek) eta dermatologia (0,3 eta 0,0). Emakumeen nagusitasun handi horrek bi salbuespen ditu: neumologia espezialitatean batzuen eta besteen batez bestekoak berdin-berdinak dira (0,1) eta 'bestelakoak' itemean, gizonezkoen osasun-kontsultak emakumeenak baino ugariagoak dira (0,6 eta 0,5 hurrenez hurren).

15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEK 1992AN ETA 2002AN EGINDAKO OSASUN-KONTSULTAK, ESPEZIALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA, BATEZ BESTE

	<i>Gizonezkoak</i>	<i>Emakumeak</i>	<i>Diferentzia G - E</i>
EAE			
<i>Odontologia</i>	1,1	1,2	-0,1
<i>Medikuntza Orokorra</i>	2,4	2,7	-0,3
<i>Ginekologia</i>	0,0	0,5	-0,5
<i>Oftalmologia</i>	0,1	0,2	-0,1
<i>Otorrinolaringologia</i>	0,1	0,2	-0,1
<i>Traumatologia</i>	0,4	0,5	-0,1
<i>Arnas aparatua</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Dermatologia</i>	0,0	0,3	-0,3
<i>Erradiologia</i>	0,0	0,1	-0,1
<i>Bestelakoak</i>	0,6	0,5	0,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



b) Haurdunaldiaren legezko etendura:

Fenomeno honi dagokionez, Espainiako datuak baditugunez, horrek lurraldez lurraldeko azterketa konparatiboa egin dezagun bide ematen digu. Xede horrekin kalkulatu dugu legezko abortuen tasa, 15 - 19, 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko taldeetako 1.000 emakume bakoitzeko⁵³. Ondoko taulan ikus dezakegun modura, bai EAEn bai estatu espainiar osoan, tasa hori handitu egin zen 2002tik 2004ra arteko aldian hiru adin-taldeetan ere, 15 eta 19 urte bitarteko gazteetan bereziki. Halaz ere,


⁵³ Legezko abortuen tasa, adin-talde bakoitzean: legezko abortuen kopurua zati erroldaturiko emakumeen kopurua, bider 1.000.

balio garaienak 20 eta 24 urte bitarteko emakumeek agertzen dituzte (2004an, 7,4 legezko abortu Euskadin eta 15,4 Espainian, 20 eta 24 urte bitarteko 1.000 emakume bakoitzeko). Nolanahi ere, Euskadiri dagozkion tasak Espainiakoak baino arras apalagoak dira hiru adin-taldeetan: EAEn bizi diren emakume gazteen artean, legezko abortuen tasetako balioak bikoizturik (15 - 19 eta 25 - 29 urte bitartekoetan) eta hirukoizturik ere (25 - 29 urte bitartekoetan) agertzen baitira Espainiakoetan.

LEGEZKO ABORTUEN TASAK 1000 EMAKUMEKO, ADIN-TALDE BAKOITZEAN, 2002AN ETA 2004AN

	2002	2004	Diferentzia 2004 - 2002
EAE			
15 - 19	3,2	5,6	2,4
20 - 24	6,5	7,4	0,9
25 - 29	5,2	5,5	0,3
Espainia			
15 - 19	9,3	10,6	1,3
20 - 24	14,4	15,4	1,0
25 - 29	10,7	11,4	0,7

Iturria: Estadística de Interrupciones Voluntarias del Embarazo, Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



c) Droga-menpekotasunen aurkako tratamenduak:

Gai honetaz Espainiari buruzko informazioa ez daukagunez, azterlan honek Euskadi bakarrik hartuko du.

EAEEn, droga-menpekotasunen aurkako tratamenduen hasierak atzeraka egin zuen 1993tik 2004ra bitartean, 15 eta 29 urte bitarteko gazte-jendeari dagokiola, hots, sexu bietako pertsonen ari garela, 2004. urtean hasitako tratamenduak (814) %-42,1tan urritu ziren, 1993. urtekoen aldean (1.406). Sexuen arabera, gizonezkoen tratamenduak dezente gehiago egin ziren, hala 1993an nola 2004an, eta horien beherako bilakaera ez zen oso nabarmena (%-38,8 gizonezkoetan eta %-47,9 emakumeetan).

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO KOHORTEAN, SEXUAREN ARABERA, 1993TIK 2004 ARTE

	1993	2004	Aldakuntza 2004/1993 (1993=100)
EAE			
<i>Gizonezkoak</i>	1.089	667	61,2
<i>Emakumeak</i>	282	147	52,1
<i>Bi sexuetoak</i>	1.406	814	57,9


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Sexu bietako pertsonen ari garela eta bost urteko sailkaturiko taldeak aintzat hartuta, drogen aurkako tratamenduen hasierako bilakaera positiboa izan zen 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean (%+5,4), 20 eta 24 urte bitarteko gazteen eta 25 eta 29 urte bitarteko artean ez bezala, hauetan negatiboa izan baitzen, argi eta garbi (%-37,9 eta %-51).

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, 1993AN ETA 2004AN

	1993	2004	Aldakuntza 2004/1993 (1993=100)
EAE			
<i>15 - 19</i>	112	118	105,4
<i>20 - 24</i>	475	295	62,1
<i>25 - 29</i>	819	401	49,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



15 eta 29 urte bitarteko biztanlerian drogen aurkako tratamenduen hasierako tasak kalkulatzeko⁵⁴ ikusi dugunez, balioak beherantz doaz 1993tik 2004ra. Hortaz, sexu bietako pertsoez ari garela, Euskadi bizi ziren 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko, 205,5 tratamenduri ekin zitzaion 2004an; 1993. urtean, berriz, 263,6 tratamendu hasi ziren. Sexuen arabera, hala 1993an nola 2004an, tasa horiek handiagoak dira gizonezkoetan (15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gizasemeko, 400,3 eta 327,7 tratamendu hasi ziren) emakumezkoetan baino (15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko, 107,9 eta 76,3 tratamendu hasi baitziren).

⁵⁴ Drogen aurkako tratamendu-hasieraren tasak: tratamenduen hasiera-kopurua 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, zati urte horretan eroldaturiko 15 eta 29 urte bitarteko biztanlerian, bider 100.000.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ARABERA, 1993AN ETA 2004AN; 100.000 BIZTANLEKO

	1993*	2004	Diferentzia 2004-1993
EAE			
<i>Gizonezkoak</i>	400,3	327,7	-72,6
<i>Emakumeak</i>	107,9	76,3	-31,6
<i>Bi sexuetaoak</i>	263,6	205,5	-58,1

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baita ukagu adinaren eta sexuaren arabera 1993ko datuak.

Adinen arabera sailkaturiko bosturteko hiru taldeetatik, 100.000 laguneko, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen taldean bakarrik handitu ziren tasak 1993tik 2004ra: 62 eta 125,1, hurrenez hurren. Nolanahi ere, 2004. urtean, 20 - 24 urte bitarteko taldeko tasak (230,9) eta 25 - 29 urte bitarteko taldekoenak (230,4) 15 - 19 urte bitarteko tasaren (125,1 tratamendu-hasiera, 100.000 laguneko) halako bi da. Nabarmen dezagun, beste aldetik, 25 eta 29 urte bitarteko taldean hautemaniko tasen beherakada: 100.000 laguneko, tratamenduen hasiera-kopurua 466,8tik 230,4ra jaitsi da.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN TASAK 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 1993AN ETA 2004AN: ADIN-TALDE BAKOITZEKO 100.000 BIZTANLEKO

	1993*	2004	Diferentzia 2004-1993
EAE			
<i>15 - 19</i>	62,0	125,1	63,1
<i>20 - 24</i>	268,1	230,9	-37,2
<i>25 - 29</i>	466,8	230,4	-236,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baita ukagu adinaren eta sexuaren arabera 1993ko datuak.


Droga mota aintzat hartzean, mota guztien aurkako tratamenduen hasierari buruzko datuak ez dugu 1993. urteaz; beraz azterketa honetan 1998. urtea hartu dugu abiagune, 2004rekin alderatzeko. Ondoko taulan jaso dugunez, mota gehienetan bilakaera positiboa izan zen, estasi eta heroinaren kasuetan izan ezik: hauetan, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, tratamenduen hasieran beherakada nabarmena hauteman da: heroinan %-78,2 jaitsi da eta estasian %-83,3. Tratamenduen hasieren hazkunde handienak, aldiz, kokainaren kasuan (%+342,5) kanabisenean (%101,6) gertatu dira, anfetaminen (%+68,8) eta alkoholarenean (%+34,5) gertatzen diren estatik urrun.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA, DROGA MOTAREN ARABERA, 15 ETA 29 URTE BITARTEKOEN KOHORTEAN, 1998TIK 2004 ARTE

<i>Bi sexuetakoak</i>	1998	2004	<i>Aldakuntza 2004/1998 (1993=100)</i>
EAE			
<i>Heroina</i>	528	115	21,8
<i>Kokaina</i>	87	385	442,5
<i>Anfetaminak</i>	32	54	168,8
<i>Speed-a</i>	37	37	100,0
<i>Estasia</i>	12	2	16,7
<i>Kanabisa</i>	62	125	201,6
<i>Alkohola</i>	55	74	134,5
<i>Beste batzuk</i>	19	22	115,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Ondoren, EAERI goazkiola, droga-menpekotasunen aurkako tratamenduen banaketa 2004. urtean nolakoa izan den ikusiko dugu, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, droga-motaren arabera.



Kokainak agertzen du ehunekorik altuena (tratamenduen hasiera guztien %47,3), bigarren kannabisak (%15,4), hirugarren heroinak (%14,1) eta laugarren mailan alkoholak (%9,1), datozkion droga-motetatik aski urruti.

Sexuaren arabera, droga-menpekotasunen aurkako tratamenduek 1998tik 2004ra bilakaera positiboa izan zuten bost droga-motatan, hala 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoetan nola adin bereko emakumezkoetan. Bietan bilakaera progresiboa hauteman da, hurrengo substantzietan: kokaina, anfetaminak, kanabisa eta alkohola. Aldeak agertzen dira speed-ean (emakumezkoen tratamenduen hasierak gora doaz, gizonezkoenak behera datozen bitartean), bestelako substantzietan (tratamenduen hasierak goraka doaz gizonezkoetan, baina emakumeetan, behera) eta estasian (emakumeen tratamenduen hasierek bere horretan diraute eta gizonezkoetan jaitsi egin dira). Heroinaren aurkako tratamenduen hasierei doakiela, berriz, bai emakumezkoek bai gizonezkoek behera egin dute.


DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA, DROGA-MOTAREN ARABERA, 15 ETA 29 URTE BITARTEKO KOHORTEAN, 1998TIK 2004 ARTE, SEXUAREN ARABERA

EAE	1998	2004	Aldakuntza 2004/1998 (1993=100)
Gizonezkoak			
<i>Heroina</i>	405	88	21,7
<i>Kokaina</i>	77	326	423,4
<i>Anfetaminak</i>	29	43	148,3
<i>Speed-a</i>	29	27	93,1
<i>Estasia</i>	11	1	9,1
<i>Kanabisa</i>	56	108	192,9
<i>Alkohola</i>	42	58	138,1
<i>Beste batzuk</i>	12	16	133,3
Emakumeak			
<i>Heroina</i>	117	27	23,1
<i>Kokaina</i>	9	59	655,6
<i>Anfetaminak</i>	3	11	366,7
<i>Speed-a</i>	7	10	142,9
<i>Estasia</i>	1	1	100,0
<i>Kanabisa</i>	6	17	283,3
<i>Alkohola</i>	11	16	145,5
<i>Beste batzuk</i>	7	6	85,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Sexu bietako pertsonen dagokiela eta 2004. urteaz ari garela, droga-menpekotasunen aurkako tratamenduen hasieren ehuneko araberako banaketa kalkulatzeko, berdintasunak eta aldeak nabaritu direla ikusi dugu:

- Drogen aurkako tratamenduen hasieren ehuneko handienak erakusten dituen droga kokaina da, bai sexu bateko bai besteko pertsonetan, gerora intzidentzia larriagoa badu ere gizonezkoetan (%48,8) emakumeetan baino (%40,1).



- Heroína, anfetamina, speed-a, estasia, alkohola eta bestelako substantzien aurkako tratamenduen hasierak ugariagoak dira emakumezkoetan.

- Kanabisaren aurkako tratamenduen hasieretan, ugariago agertzen dira gizonezkoak emakumeak baino: %16,2 eta %11,6 hurrenez hurren.

Bost urteka sailkaturiko adin-taldeen ari garela, hiru taldeetan jaitsi ziren, 1998tik 2004ra arte, heroina eta estasiaren aurkako tratamenduen hasierak; kokaina, anfetamina eta kanabisaren aurkako tratamenduen hasierek, berriz, gora egin dute.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA, DROGA-MOTAREN ARABERA, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 1998TIK 2004 ARTE

EAE	1998	2004	Aldakuntza 2004/1998 (1993=100)
15 – 19			
<i>Heroina</i>	18	6	33,3
<i>Kokaina</i>	6	29	483,3
<i>Anfetaminak</i>	7	14	200,0
<i>Speed-a</i>	8	12	150,0
<i>Estasia</i>	6	2	33,3
<i>Kanabisa</i>	26	44	169,2
<i>Alkohola</i>	6	5	83,3
<i>Beste batzuk</i>	5	6	120,0
20 – 24			
<i>Heroina</i>	169	27	16,0
<i>Kokaina</i>	27	155	574,1
<i>Anfetaminak</i>	19	24	126,3
<i>Speed-a</i>	16	12	75,0
<i>Estasia</i>	2	0	0,0
<i>Kanabisa</i>	23	53	230,4
<i>Alkohola</i>	8	22	275,0
<i>Beste batzuk</i>	8	2	25,0
25 - 29			
<i>Heroina</i>	341	82	24,0
<i>Kokaina</i>	54	201	372,2
<i>Anfetaminak</i>	6	16	266,7
<i>Speed-a</i>	13	13	100,0
<i>Estasia</i>	4	0	0,0
<i>Kanabisa</i>	13	28	215,4
<i>Alkohola</i>	41	47	114,6
<i>Beste batzuk</i>	6	14	233,3


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Batetik besterako aldeak hurrengo droga-motetan gertatu dira:

- Speed-a: 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean, droga honen aurkako tratamenduen hasierak ugaltu egin ziren, 20 eta 24 urte bitartekoetan urritu eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteetan mantendu egin ziren.
- Alkohola: tratamenduen hasierak 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean gutxitu egin ziren, baina 20 eta 24 urte bitartekoen artean eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteetan, berriz, ugaltu egin ziren.
- Bestelako substantziak: tratamenduen hasieren kopurua jaitsi egin zen 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, 15 - 19 eta 25 - 29 urte bitartekoen artean ez bezala: adin-talde hauetan igo egin zen kopuru hori.

Zein droga-motatako tratamenduak ugaltu ziren gehien? Lehen-lehenik, kokainaren aurkako tratamenduak: kohorte gazteak osaturiko hiru adin-taldetakoek agertzen dute ezaugarri hori; bigarren mailan, berriz, aldeak agertzen dira: 15-19 eta 25–29 urte bitarteko gazteenak anfetaminena erakusten du eta 20–24 urte bitartekoenak, alkoholaren aurkakoa.

Hiru adin-taldeekin segituz, 2004. urteko tratamenduen hasieretan droga-mota bakoitzak duen garrantziari dagokionez, ehuneko handienetik txikienera kokainak betetzen du lehen tokia 20 - 24 urte (%52,4) eta 25 - 29 urte bitarteko gazteetan (%50,1); kanabisak, berriz, 15 - 19 urte bitartekoen taldean (tratamenduen hasieren %37,3). Bigarren tokikoetan ez dago berdintasunik hiru adin-taldeetan: 15 – 19 urtekoetan kokaina da nagusi (%24,6), kanabisa (%17,9) 20 - 24 urte bitartekoetan eta heroina (%20,4) 25 - 29 urte bitartekoetan. Hirugarren tokian agertzen direnekin ere beste horrenbeste gertatzen da, adin-talde bakoitzean droga-mota bat nabarmentzen baita: 15 - 19 urte bitartekoetan, anfetaminak (%11,9); 20 - 24 urte bitartekoetan, heroina (%9,1); eta 25 - 29 urte bitartekoetan, alkohola (%11,7).



d) Aitortutako HIES kasuak

1993tik 2005era arte, urterik urte aitortutako HIES kasuak nabarmen jaitsi ziren: EAEn, sexu bietako 15 eta 29 urte bitartekoek dagokionez, %-93,4 jaitsi zen. Bost urteka sailkaturiko taldeei dagokienez, 20 eta 24 urte bitartekoetan (%-94,4) eta 25 eta 29 urte bitartekoetan (%-94,1) portzentajezko jaitsiera antzekoa izan zen; 15 eta 19 urte bitartekoek taldean, aldiz, aitortutako kasu bakarra izan zen.

HIES KASU AITORTUAK 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), EAEN, 1993AN ETA 2005EAN

EAE	15 – 19	20 – 24	25 -29	Guztira 15-29
1993	1	18	118	137
2005	1	1	7	9
Δ % 2005 / 1993	0,0	-94,4	-94,1	-93,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

2005. urterako badaukagu estatu espainiar osoari dagokion informazioa. Sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko biztanlerian aitorturiko HIES kasuen tasak kalkulatzean, EAEko tasa (2,27 kasu aitortuak, 100.000 laguneko) Espainiari dagokionaren biko da (1,12 kasu aitortuak, 100.000 laguneko).

HIES KASU AITORTUAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 2005EAN

EAE	Absolutuak	Tasak 100.000 biztanleko
EAE	9	2,27
Espainia	104	1,12


Iturria: Instituto de Salud Carlos III (HIESaren aurkako nazio-planaren Idazkaritza) Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Bost urteka sailkaturiko hiru adin-taldeetako tasak Euskadin handiagoak dira Espainiako estatukoan baino. Horietan, adin handieneko euskal gazteen tasa (4,02) nabarmentzen da, ia-ia espainiarraren (2,32) biko baita, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko.

HIES KASU AITORTUAK 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN (BI SEXUETAKOAK), 2005EAN: TALDE BAKOITZEKO 100.000 BIZTANLEKO

EAE	15 – 19	20 – 24	25 -29
EAE	1,06	0,78	4,02
Espainia	0,08	0,43	2,32

Iturria: Instituto de Salud Carlos III (HIESaren aurkako nazio-planaren Idazkaritza) Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



Sexuaren arabera, 2005ean gizonezkoen tasak emakumeenak baino altuagoak dira 15 eta 29 urte bitarteko kohortean, hala EAEn nola Espainian. Euskadiko tasak Espainiakoen gaitetik doaz, bai gizonezkoetan (2,90 eta 1,51 kasu hurrenez hurren, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 gizasemeko) bai emakumezkoetan ere (1,56 eta 0,71 kasu hurrenez hurren, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko).

AITORTUTAKO HIES KASUEN TASAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN, SEXUAREN ARABERA, 2005EAN

	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK	
	Absolutuak	Tasak, 100.000 laguneko	Absolutuak	Tasak, 100.000 laguneko
EAE	6	2,9	3	1,56
Espainia	72	1,51	32	0,71

Iturria: Instituto de Salud Carlos III (HIESaren aurkako nazio-planaren Idazkaritza) Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Transmisio-kategoria aintzat hartuta, aitorturiko kasuetan erlazio heterosexuala da ohikoena 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, 2005. urtean; ondotik, bide parenteraletik droga hartzen duten erabiltzaileak datoz. Euskadin, bi transmisio-kategoria hauek Espainian baino eragin handiagoa dute (%66,7 heterosexualak eta %33,3 bide parenteralekoak (EAE) eta %39,4 eta %27,9 hurrenez hurren (Espainia)); harreman homo eta bisexualetan, aldiz, kontrakoa gertatzen da: ez bata, ez bestea ez dira agertzen Euskadin aitorturiko kasuetan, bai estatu espainiar osoan aitorturiko kasuen %25,9tan.

HIES KASU AITORTUAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN (BI SEXUETAKOAK), TRANSMISIO-KATEGORIAREN ARABERA, 2005EAN: EHUNEKOAK, GUZTIAREKIKO

	<i>Homo-bisexuala</i>	<i>Heterosexuala</i>	<i>Bide parenteraleko droga erabiltzaileak</i>	<i>Beste bat* eta ez da ageri</i>
EAE	0,0	66,7	33,3	0,0
Espainia	25,9	39,4	27,9	6,8

Iturria: Instituto de Salud Carlos III (HIESaren aurkako nazio-planaren Idazkaritza) Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
Beste bat: Ama - seme-alaba


Azterlanean 'sexua' aldagaia sartzean ikusi dugu transmisio-kategorien artean alderik ez dagoela EAEn, hots, 2005ean atzemaniko kasuak era berdintsuan banatuak daudela gizonezko eta emakumezkoen artean: %66,7 harreman heterosexualengatik eta %33,3 bide parenteraletik drogak hartzeagatik. Espainian ez bezala, estatu horretan transmisio-kategorien arteko aldeak hautematen baitira, sexuen arabera: emakumezkoetan erlazio heterosexualak dira nagusiak (%62,5), urrutitik bide parenteraletiko drogen kontsumoa datorrela (%21,9); gizonezkoek, berriz, portzentajezko banaketa gorabeheratsuagoa edo heterogeneoagoa agertzen dute: harreman homo edo bisexualek betetzen dute lehen tokia (%37,5), bide parenteraletik hartzen diren drogek bigarrena (%30,5) eta harreman heterosexualak hirugarrena (%29,2).

HIES KASU AITORTUAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN, SEXUAREN ETA TRANSMISIO-KATEGORIAREN ARABERA, 2005EAN: EHUNEKOA, GUZTIAREKIKO

	Homo-bisexuala	Heterosexuala	Bide parenteraleko droga erabiltzaileak	Beste bat* eta ez da ageri
EAE				
Gizonezkoak	0,0	66,7	33,3	0,0
Emakumeak	0,0	66,7	33,3	0,0
Espainia				
Gizonezkoak	37,5	29,2	30,5	2,8
Emakumeak	0,0	62,5	21,9	15,6

Iturria: Instituto de Salud Carlos III (HIESaren aurkako nazio-planaren Idazkaritza) Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Beste bat: Ama - seme-alaba



Bost urteka sailkaturiko adin-taldeei dagokiela, gaztearen adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta aniztasun handiagoa hautematen da transmisio-kategorietan. EAEn, harreman heterosexualak nagusi dira 15 eta 19 urte bitartekoen taldean (%100), eta bide parenteraletik hartutako drogak 20 eta 24 urte bitartekoen taldean (%100), baina 25 eta 29 urte bitartekoen taldean bi kategoriak agertzen dira: harreman heterosexualak (%71,4) eta bide parenteraletik hartutako drogak (%28,6). Espainiaren aldean, Euskadik transmisio-kategoriaren arabera banaketa homogeenagoa agertzen du: harreman heterosexualek garrantzi txikiagoa dute Espainian eta harreman homo eta bisexualek eta bide parenteraletik hartutako drogek handiagoa: gazteenetatik (15 eta 19 urte bitartekoak) zaharretara doaz (25 eta 29 urte bitartekoak) tasak.

HIES KASU AITORTUAK 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN (BI SEXUETAKOAK), TRANSMISIO-KATEGORIAREN ARABERA, 2005EAN: EHUNEKOA, ADIN-TALDE BAKOITZAREN GUZTIAREKIKO

	<i>Homo-bisexuala</i>	<i>Heterosexuala</i>	<i>Bide parenteraleko droga erabiltzaileak</i>	<i>Beste bat* eta ez da ageri</i>
EAE				
<i>15 – 19</i>	0,0	100,0	0,0	0,0
<i>20 – 24</i>	0,0	0,0	100,0	0,0
<i>25 - 29</i>	0,0	71,4	28,6	0,0
Espainia				
<i>15 – 19</i>	0,0	50,0	0,0	50,0
<i>20 – 24</i>	30,7	53,8	7,6	7,6
<i>25 - 29</i>	25,8	37,1	31,5	5,6

Iturria: Instituto de Salud Carlos III (HIESaren aurkako nazio-planaren Idazkaritza) Osasun eta Kontsumo Ministerioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
Beste bat: Ama - seme-alaba

7.2. Lurralde historikoak

a) Osasun-kontsultak:

1992tik 2002ra arte, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek eginiko osasun-kontsultek etengabeko bilakaera izan zuten Araban (%+32,5) eta Gipuzkoan (%+15,2); Bizkaian, berriz, jaitsi egin ziren (%-1,5).

OSASUN-KONTSULTEN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKOEN KOHORTEAN (BI SEXUETAKOAK), 1992TIK 2002 ARTE

<i>Bi sexuetaoak</i>	<i>1992*</i>	<i>2002</i>	<i>Aldakuntza 2002/1992 (1992=100)</i>
Araba	330.824	438.364	132,5
Bizkaia	1.271.452	1.252.879	98,5
Gipuzkoa	639.574	736.715	115,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baitaukagu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko datuak.


Laguneko, 15 eta 29 urte bitarteko taldeak urtean batez beste eginiko osasun-kontsultak ugaldtu egin ziren hiru lurralde historikoetan; Araban 4,8tik (1992) 6,9ra igo ziren (2002). Lurralde horretan bizi diren gazteak, hain zuzen, batez besteko garaian agertzen dituzte; ondoren Bizkaia datorkio (4,4 osasun-kontsulta 1992an eta 5,3 osasun-kontsulta 2002an).

URTEKO OSASUN-KONTSULTAK, BATEZ BESTE, 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLE BAKOITZEKO, 1992AN ETA 2002AN

<i>Bi sexuetaoak</i>	<i>1992*</i>	<i>2002</i>	<i>Diferentzia 2002-1992</i>
Araba	4,8	6,9	2,1
Bizkaia	4,4	5,3	0,9
Gipuzkoa	3,7	5,2	1,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baitaukagu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko datuak.



Bost urteka sailkaturiko adin-taldeei goazkiela⁵⁵, 1992 eta 2002 elkarrekin alderatzean ikus dezakegunez, hiru lurralde historikoetan urteko osasun-konsulten batez bestekoak ugaldtu egin ziren. Hazkunde handienak hauexek izan ziren:

- 15 eta 19 urte bitarteko taldean, Araban (3,2tik 7,7ra) eta Gipuzkoan (3,5etik 6,3ra).
- 25 eta 29 urte bitarteko taldean, Bizkaian (4,4tik 5,8ra).

Beste aldetik, 2002. urtean, 15 eta 19 urte bitarteko gazteak izan ziren Araban osasun-konsulta gehien egin zituztenak; Bizkaian, berriz, 25 eta 29 urte bitarteko lagunak (5,8) eta Gipuzkoan 15 eta 19 urte bitarteko gazteak (6,3 osasun-konsulta batez beste, 2002an).

⁵⁵ Lurralde historikoen gaineko sexuen araberako informaziorik ez dugu.

URTEKO OSASUN-KONTSULTAK, BATEZ BESTE, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLE BAKOITZEKO, 1992AN ETA 2002AN

<i>Bi sexuetakoak</i>	<i>1992*</i>	<i>2002</i>	<i>Diferentzia 2002-1992</i>
Araba			
15 – 19	3,2	7,7	4,5
20 – 24	5,5	7,3	1,8
25 -29	5,7	6,0	0,3
Bizkaia			
15 – 19	3,8	4,9	1,1
20 – 24	4,9	5,0	0,1
25 -29	4,4	5,8	1,4
Gipuzkoa			
15 – 19	3,5	6,3	2,8
20 – 24	4,1	4,5	0,4
25 -29	3,5	5,2	1,7

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baita ukagu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko daturik.

Espezialitatez ari garela, 1992. eta 2002. urteen artean, hiru lurralde historikoetan 15 eta 29 urte bitarteko gazteek odontologoarenean eta ginekologoarenean eginiko osasun-kontsultak urritu ziren. Hiru lurralde historikoetan ugaltu ziren, aldiz, traumatologia eta dermatologiakoak. Bi lurraldetan ugaltu ziren espezialitateak aipatuko ditugu ondoren:

- Medikuntza orokorra: Araba eta Gipuzkoako gazteen artean.
- Oftalmologia: Araba eta Bizkaiko gazteen artean.
- Otorrinolaringologia: Araba eta Gipuzkoako gazteen artean.

Portzentajezko hazkunde handiena Araban gertatu zen, otorrinolaringologian; gainbeherarik larriena, berriz, Araban, ginekologian.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OSASUN-KONTSULTEN BILAKAERA ESPEZIALITATEAREN ARABERA, 1992TIK 2002 ARTE

<i>Bi sexuetakoak</i>	1992	2002	<i>Aldakuntza 2002/1992 (1992=100)</i>
Araba			
<i>Odontologia</i>	122.798	94.199	76,7
<i>Medikuntza Orokorra</i>	114.244	198.619	173,9
<i>Ginekologia</i>	49.348	12.506	25,3
<i>Oftalmologia</i>	5.174	17.128	331,0
<i>Otorrinolaringologia</i>	-	4.944	-
<i>Traumatologia</i>	7.644	16.424	214,9
<i>Arnas aparatua</i>	-	7.020	-
<i>Dermatologia</i>	5.018	24.873	495,7
<i>Erradiologia</i>	5.018	4.182	83,3
<i>Bestelakoak</i>	21.580	58.469	270,9
Bizkaia			
<i>Odontologia</i>	324.818	287.118	88,4
<i>Medikuntza Orokorra</i>	637.442	602.479	94,5
<i>Ginekologia</i>	45.240	38.459	85,0
<i>Oftalmologia</i>	11.440	15.055	131,6
<i>Otorrinolaringologia</i>	25.766	40.037	155,4
<i>Traumatologia</i>	77.298	134.849	174,5
<i>Arnas aparatua</i>	26.078	21.511	82,5
<i>Dermatologia</i>	16.796	30.157	179,5
<i>Erradiologia</i>	5.876	9.152	155,8
<i>Bestelakoak</i>	100.698	74.062	73,5
Gipuzkoa			
<i>Odontologia</i>	230.828	121.858	52,8
<i>Medikuntza Orokorra</i>	228.124	334.562	146,7
<i>Ginekologia</i>	53.040	49.573	93,5
<i>Oftalmologia</i>	25.064	19.449	77,6
<i>Otorrinolaringologia</i>	2.028	20.507	1011,2
<i>Traumatologia</i>	35.100	43.581	124,2
<i>Arnas aparatua</i>	8.424	4.112	48,8
<i>Dermatologia</i>	10.322	23.258	225,3
<i>Erradiologia</i>	0	5.991	-
<i>Bestelakoak</i>	46.644	113.824	244,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Espezialitateen araberrako urteko batez besteko osasun-kontsultak kontuan hartzean ikusi dugu Araban bakarrik jaitsi zirela honako balioak: odontologian (-0,3, izan ere, 1,8tik 1,5era pasa zen osasun-kontsulten batez bestekoa, 15 eta 29 urte bitarteko lagun bakoitzeko,) eta ginekologian (-0,5, izan ere, 0,7tik 0,2ra pasa zen kontsultakopurua, 15 eta 29 urte bitarteko lagun bakoitzeko). Hiru lurralde historikoetan, 1992tik 2002ra arteko epean, espezialitate batzuk ugaltu (medikuntza orokorra,

otorrinolaringologia eta traumatologia) eta beste batzuk mantendu egin ziren (erradiologia).

Hiru lurralde historikoetan, 2002. urtean, medikuntza orokorra da 15 eta 29 urte bitarteko kohorteko lagun gehien hartu dituen espezialitatea. Ondoren odontologia dator. Hirugarren tokian ez datoz bat hiru lurraldeak: dermatologia da nagusi Araban eta traumatologia Bizkaian eta Gipuzkoan.

15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN OSASUN-KONTSULTEN BATEZ BESTEKOA, ESPEZIALITATEAREN ARABERA, 1992AN ETA 2002AN

<i>Bi sexuetakoak</i>	<i>1992</i>	<i>2002</i>	<i>Diferentzia 2002-1992</i>
Araba			
<i>Odontologia</i>	1,8	1,5	-0,3
<i>Medikuntza Orokorra</i>	1,6	3,1	1,5
<i>Ginekologia</i>	0,7	0,2	-0,5
<i>Oftalmologia</i>	0,1	0,3	0,2
<i>Otorrinolaringologia</i>	0,0	0,1	0,1
<i>Traumatologia</i>	0,1	0,3	0,2
<i>Arnas aparatua</i>	0,0	0,1	0,1
<i>Dermatologia</i>	0,1	0,4	0,3
<i>Erradiologia</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Bestelakoak</i>	0,3	0,9	0,6
Bizkaia			
<i>Odontologia</i>	1,1	1,2	0,1
<i>Medikuntza Orokorra</i>	2,2	2,6	0,4
<i>Ginekologia</i>	0,2	0,2	0,0
<i>Oftalmologia</i>	0,0	0,1	0,1
<i>Otorrinolaringologia</i>	0,1	0,2	0,1
<i>Traumatologia</i>	0,3	0,6	0,3
<i>Arnas aparatua</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Dermatologia</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Erradiologia</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Bestelakoak</i>	0,3	0,3	0,0
Gipuzkoa			
<i>Odontologia</i>	1,3	1,6	0,3
<i>Medikuntza Orokorra</i>	1,3	2,7	1,4
<i>Ginekologia</i>	0,3	0,4	0,1
<i>Oftalmologia</i>	0,1	0,1	0,0
<i>Otorrinolaringologia</i>	0,0	0,2	0,2
<i>Traumatologia</i>	0,2	0,5	0,3
<i>Arnas aparatua</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Dermatologia</i>	0,1	0,2	0,1
<i>Erradiologia</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Bestelakoak</i>	0,3	0,8	0,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.


(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baitaukagu adinaren eta sexuaren arabera 1992ko datuak.

2002. urteko osasun-kontsultak, espezialitateen arabera banatuz gero ikusten da, hiru lurralde historikoetako 15 eta 29 urte bitarteko gazteek osasun-kontsulta gehien medikuntza orokorrean egin zituztela eta ondoren odontologian. Hirugarren tokian ez datoz bat hiru lurraldeak: dermatologia da nagusi Araban, traumatologia Bizkaian eta ginekologia Gipuzkoan.

15 ETA 29 URTE BITARTEKOEK 2002AN EGINDAKO OSASUN-KONTSULTEN BANAKETA, EHUNEKOTAN, ESPEZIALITATEAREN ARABERA

<i>Bi sexuetakoak</i>	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>
<i>Odontologia</i>	21,5	22,9	16,5
<i>Medikuntza Orokorra</i>	45,3	48,1	45,4
<i>Ginekologia</i>	2,9	3,1	6,7
<i>Oftalmologia</i>	3,9	1,2	2,6
<i>Otorrinolaringologia</i>	1,1	3,2	2,8
<i>Traumatologia</i>	3,7	10,8	5,9
<i>Arnas aparatua</i>	1,6	1,7	0,6
<i>Dermatologia</i>	5,7	2,4	3,2
<i>Erradiologia</i>	1,0	0,7	0,8
<i>Bestelakoak</i>	13,3	5,9	15,5

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila



b) Droga-menpekotasunen aurkako tratamenduak:

Hiru lurralde historikoetan, droga-menpekotasunen aurkako tratamendu-hasierak atzerako bilakaera izan zuten 1993tik 2004ra arte, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean. Sexu bietan ere, beherakada handienak Gipuzkoan (%-50,2) eta Bizkaian (%-40,1) gertatu ziren. Sexua aldagaia aintzat harturik, hiru lurralde historikoetan tratamendu-hasierak urritu egin ziren gizonezko eta emakumeetan, baina bigarrenen izan zuten jaitziera handiagoa: %-12,5 eta %-3,2, Araban; %-47,7 eta %-38,5, Bizkaian; %-54,3 eta %-45,6, Gipuzkoan.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIEREN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKOEK KOHORTEAN, SEXUAREN ARABERA, 1993TIK 2004 ARTE

	1993	2004	Aldakuntza 2004/1993 (1993=100)
Araba			
Gizonezkoak	62	60	96,8
Emakumeak	16	14	87,5
Bi sexuetoak	78	74	94,9
Bizkaia			

<i>Gizonezkoak</i>	685	421	61,5
<i>Emakumeak</i>	174	91	52,3
<i>Bi sexuetoak</i>	870	512	58,9
Gipuzkoa			
<i>Gizonezkoak</i>	342	186	54,4
<i>Emakumeak</i>	92	42	45,7
<i>Bi sexuetoak</i>	458	228	49,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

Bost urteka sailkaturiko adin-taldeetan ere badira aldeak hiru lurralde historikoetan:

- Araban, tratamendu-hasierak ugaltu egin ziren 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean (%+16,7) eta 20 eta 24 urte bitartekoen artean (%+14,8); 25 eta 29 urte bitartekoen artean, aldiz urritu egin ziren (%-20).
- Bizkaian, tratamendu-hasierak beheraka egin zuten hiru adin-taldeetan: %-19,2, 15 eta 19 urte bitartekoetan, %-33,8, 20 eta 24 urte bitartekoetan eta %-49, 25 eta 29 urte bitartekoetan.
- Gipuzkoan, 15 eta 19 urte bitarteko taldean tratamendu-hasierak ugaltu egin ziren (%+71,4), urritu, berriz, 20 eta 24 urte bitartekoen artean (%-55,3) eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean (%-59,7).

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIEREN BILAKAERA 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 1993AN ETA 2004AN

	1993	2004	Aldakuntza 2004/1993 (1993=100)
Araba			
15 – 19	6	7	116,7
20 – 24	27	31	114,8
25 - 29	45	36	80,0
Bizkaia			
15 – 19	78	63	80,8
20 – 24	296	196	66,2
25 - 29	496	253	51,0
Gipuzkoa			
15 – 19	28	48	171,4
20 – 24	152	68	44,7
25 - 29	278	112	40,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

Tratamenduen hasiera-tasei dagokienez, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gazte bakoitzeko, 1993tik 2004ra arte urritu egin ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, baina Araban


ugaldu. Atzerapen handienak Bizkaia eta Gipuzkoako gizonezkoek agertu zituzten; Araban, berriz, gizonezkoen tasa areagotu egin zen.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIEREN TASAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ARABERA, 1993AN ETA 2004AN: 100.000 BIZTANLEKO

	1993*	2004	Diferentzia 2004-1993
Araba			
<i>Gizonezkoak</i>	177,3	196,1	18,8
<i>Emakumeak</i>	46,7	49,0	2,3
<i>Bi sexuetoak</i>	112,6	125,0	12,4
Bizkaia			
<i>Gizonezkoak</i>	461,0	388,9	-72,1
<i>Emakumeak</i>	121,6	88,0	-33,6
<i>Bi sexuetoak</i>	298,3	241,9	-56,4
Gipuzkoa			
<i>Gizonezkoak</i>	407,2	287,6	-119,6
<i>Emakumeak</i>	104,0	69,3	-34,7
<i>Bi sexuetoak</i>	265,6	182,0	-83,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baita ukagu adinaren eta sexuaren arabera 1993ko daturik.



Hiru lurralde historikoetan, droga-menpekotasunen aurkako tratamendu-hasieren tasak dezente handiagoak dira gizonetzkoetan, hala 1993an nola 2004an: oro har, emakumezkoen tasen lau halako dira.

2004. urtean, tratamendu-hasieren tasa handienak Bizkaian bizi diren gazteek dituzte: 241,9 tratamendu-hasiera, sexu bietako 100.000 gazte bakoitzeko; 388,9 tratamendu-hasiera 100.000 gizasemeko; eta 88 tratamendu-hasiera 15 eta 29 urteko 100.000 emakumeko. Tratamenduen hasiera-tasarik apalenak Araban dira: 125 tratamendu-hasiera sexu bietako 100.000 gazte; 196,1 tratamendu-hasiera 100.000 gizasemeko; eta 49 tratamendu-hasiera 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko.


Bi sexuez eta bost urteka sailkaturiko adin-taldeez ari garela droga-menpekotasunen aurkako tratamenduen hasiera-tasek gora egin zuten hiru lurralde historikoetan 15 eta 19 urte bitartekoen taldean eta behera 25 eta 29 urte bitartekoen taldean. 20 eta 24 urte bitartekoen taldean, eboluzioak desberdinak izan ziren: Araban ugaldu egin zen eta Bizkaia eta Gipuzkoan urritu. Orokorki, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen tasak apalagoak dira. 2004. urteko tasa garaienak 20 eta 24 urte bitarteko gazteek erakutsi dituzte Araban (161 tratamendu-hasiera 100.000 laguneko) eta Bizkaian (285,6 tratamendu-hasiera 100.000 laguneko). Gipuzkoan, berriz, urteko tasarik altuena 25 eta 29 urte bitarteko gazteena da (201,8 tratamendu-hasiera 100.000 laguneko).

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIEREN TASAK 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 1993AN ETA 2004AN: TALDE BAKOITZEKO 100.000 BIZTANLEKO

	1993*	2004	Diferentzia 2004-1993
Araba			
15 – 19	25,1	50,1	25,0
20 – 24	118,4	161,0	42,6
25 - 29	199,6	138,7	-60,9
Bizkaia			
15 – 19	79,9	124,9	45,0
20 – 24	305,4	285,6	-19,8
25 - 29	510,9	273,2	-237,7
Gipuzkoa			
15 – 19	47,3	160,4	113,1
20 – 24	264,8	170,6	-94,2
25 - 29	498,0	201,8	-296,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

(*) 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria 1991n erroldatutakoa da, ez baitaukagu adinaren eta sexuaren arabera 1993ko datuak.




Droga-motei dagokiela, mota guztiez 1993. urteko informaziorik eskura ez dugunez, azterlan honetako epea 1998 – 2004 izango da. Ondoko taulan ikusten dugunez, heroinaren aurkako tratamendu-hasierak jaitsi egin ziren, hiru lurralde historikoetan, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean; speed-aren aurkakoak, berriz, Araba eta Gipuzkoako gazteen artean urritu egin ziren eta estasiaren aurkako tratamendu-hasierak urritu egin ziren Bizkaia eta Gipuzkoako gazteen artean. Beste muturrean, tratamendu-hasieren ugaltzean, alegia, kokainan, anfetaminetan, kanabisean eta alkoholean gertatu diren gehikuntzak ditugu azpimarratzekoak.

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIERAREN BILAKAERA, DROGA-MOTAREN ARABERA, 15-29 URTE BITARTEKOEN KOHORTEAN (BI SEXUETAKOAK), 1998TIK 2004 ARTE

<i>Bi sexuetaoak</i>	1998	2004	<i>Aldakuntza 2004/1998 (1998=100)</i>
Araba			
<i>Heroina</i>	39	7	17,9
<i>Kokaina</i>	10	30	300,0
<i>Anfetaminak</i>	5	13	260,0
<i>Speed-a</i>	2	0	0,0
<i>Estasia</i>	0	0	-
<i>Kanabisa</i>	3	14	466,7
<i>Alkohola</i>	1	10	1000,0
<i>Beste batzuk</i>	1	0	0,0
Bizkaia			
<i>Heroina</i>	336	79	23,5
<i>Kokaina</i>	59	265	449,2
<i>Anfetaminak</i>	11	15	136,4
<i>Speed-a</i>	16	24	150,0
<i>Estasia</i>	8	2	25,0
<i>Kanabisa</i>	37	66	178,4
<i>Alkohola</i>	44	50	113,6
<i>Beste batzuk</i>	8	11	137,5
Gipuzkoa			
<i>Heroina</i>	152	29	19,1
<i>Kokaina</i>	18	90	500,0
<i>Anfetaminak</i>	17	26	152,9
<i>Speed-a</i>	18	13	72,2
<i>Estasia</i>	4	0	0,0
<i>Kanabisa</i>	22	45	204,5
<i>Alkohola</i>	10	14	140,0
<i>Beste batzuk</i>	11	11	100,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Droga-moten araberako tratamendu-hasieren portzentajezko banaketa kontuan izanik, sexu bietako lagunez ari garela, kokaina-menpekotasunaren aurkako tratamendu-hasiera da ugariena hiru lurralde historikoetako gazteen artean: %40,5 Araban, %51,8 Bizkaian eta %39,5 Gipuzkoan. Bigarren tokian kanabisa dator Araban (%18,9) eta Gipuzkoan (%19,7), eta heroina Bizkaian (%15,4). Hirugarrenean agertzen dira lurralde batetik besterako alde handienak: Araban anfetaminaren aurkako tratamendu-hasierak agertzen dira (%17,6), Bizkaian kanabisaren aurkako tratamendu-hasierak (%12,9%) eta Gipuzkoan heroinaren aurkako tratamendu-hasierak (%12,7). Aipa dezagun, nolana ere, Araba eta Gipuzkoako ehunekoan araberako banaketa gorabeheratsuagoa dela Bizkaikoa baino.



Sexuen araberako banaketaz ari garela, 15 eta 29 urte bitarteko gizonezko zein emakumeetan kokaina-menpekotasunaren aurkako tratamendu-hasierak dira ugariena hiru lurralde historikoetan: %40 gizonezko eta %42,9 emakume Araban; %53,4 gizonezko eta %44 emakume Bizkaian; %41,4 gizonezko eta %31 emakume Gipuzkoan. Ehunekoan araberako sailkapenean, bigarren tokian aldeak agertzen dira, batetik bestera:

- Kanabisaren aurkako tratamendu-hasierak Araba (%21,7) eta Gipuzkoako (%19,4) gizonezkoetan; Bizkaian ehunekoak ia berdintsuak dira heroinaren kasuan (%14,3) eta kanabisarenean (%14).
- Heroinaren aurkako tratamendu-hasierak Araba (%21,4) eta Bizkaiko (%20,9) emakumeetan, baina Gipuzkoan kanabisen aurkakoa da nagusi (%21,4).

DROGA-MENPEKOTASUNEN AURKAKO TRATAMENDU-HASIEREN BANAKETA, DROGA-MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA, 15-29 URTE BITARTEKOEN KOHORTEAN, 2004AN: EHUNEKOAK, SEXUAREKIKO ETA LURRALDE HISTORIKOAREKIKO

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEAk	BI SEXUETAKOAK
Araba			
<i>Heroina</i>	6,7	21,4	9,5
<i>Kokaina</i>	40,0	42,9	40,5
<i>Anfetaminak</i>	18,3	14,3	17,6
<i>Speed-a</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Estasia</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Kanabisa</i>	21,7	7,1	18,9
<i>Alkohola</i>	13,3	14,3	13,5
<i>Beste batzuk</i>	0,0	0,0	0,0
Bizkaia			
<i>Heroina</i>	14,3	20,9	15,4
<i>Kokaina</i>	53,4	44,0	51,8
<i>Anfetaminak</i>	2,4	5,5	2,9
<i>Speed-a</i>	4,3	6,6	4,7
<i>Estasia</i>	0,2	1,1	0,4
<i>Kanabisa</i>	14,0	7,7	12,9
<i>Alkohola</i>	9,0	13,2	9,8
<i>Beste batzuk</i>	2,4	1,1	2,1
Gipuzkoa			
<i>Heroina</i>	12,9	11,9	12,7
<i>Kokaina</i>	41,4	31,0	39,5
<i>Anfetaminak</i>	11,8	9,5	11,4
<i>Speed-a</i>	4,8	9,5	5,7
<i>Estasia</i>	0,0	0,0	0,0
<i>Kanabisa</i>	19,4	21,4	19,7
<i>Alkohola</i>	6,5	4,8	6,1
<i>Beste batzuk</i>	3,2	11,9	4,8

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

c) Aitortutako HIES kasuak:


Ondoren, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, lurralde historiko guztietan, banan-banan, aitortu diren HIES kasuen eboluzioaren berri emango dugu. Sexu bietako kohorte osoari dagokiola, goitik behera joan zen eboluzioa 1993tik 2005era arte: Aitortutako HIES kasuak gehiago urritu ziren Gipuzkoan (%-97,4), Bizkaian (%-93,7) eta Araban baino (%-83,3). Bost urteka sailkaturiko adin-talde guztietan atzerapen latzak jazo ziren, Arabako 15 eta 19 urte bitartekoen taldean izan ezik, lehenago kasurik ez bazegoen ere, kasu bakarra aitortu baitzen adierazitako epean. Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren 25 eta 29 urte bitarteko gazteetan eta 20 eta 24 urte bitartekoetan aitorturiko HIES kasuen murrizketa dugu azpimarratzekoa.

15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK) IZANDAKO HIES KASU AITORTUEN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA, 1993AN ETA 2005EAN

	15 – 19	20 – 24	25 -29	Guztira 15-29
Araba				
1993	0	1	17	18
2005	1	0	2	3
Δ % 2005 / 1993	-	-100,0	-88,24	-83,3
Bizkaia				
1993	1	10	69	80
2005	0	1	4	5
Δ % 2005 / 1993	-100,0	-90,0	-94,2	-93,7
Gipuzkoa				
1993	0	7	32	39
2005	0	0	1	1
Δ % 2005 / 1993	-	-100,0	-96,9	-97,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

2005. urtean, hiru lurralde historikoetan aitortutako HIES kasuak 25 eta 29 urte bitartekoen taldean bildu ziren: %66,7 Araban, %80 Bizkaian eta %100 Gipuzkoan. Horrenbestez, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, adinean joan ahala, HIES kasuak atzemateko aukera handiagoa izango da.




Sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko kohorteari dagokionez, 2005. urtean aitortutako HIES kasuen tasei goazkiela, tasarik handiena Arabako gazteek ematen dute (5,1 HIES kasu aitortuak, 100.000 laguneko) eta txikiena Gipuzkoakoek (0,8 kasu); bi horien artean Bizkaiko tasa gorantz dator (2,4 HIES kasu aitortuak, 100.000 laguneko).

HIES KASU AITORTUEN TASAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 2005EAN

	<i>Absolutuak</i>	<i>Tasak 100.000 biztanleko</i>
Araba	3	5,07
Bizkaia	5	2,36
Gipuzkoa	1	0,80

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



Azterlanean bost urteka sailkaturiko adin-taldea sartzean, 2000. urterako berriazko tasetan alde esanguratsuak hauteman ditugu, hara:

- 📁 15 eta 19 urte bitartekoetan, Araban bizi diren gazteen artean, aitortutako HIES kasu bakarra egon zen: horrenbestez, lurralde horretako tasa 7,1 HIES kasu da, 100.000 laguneko.
- 📁 20 eta 24 urte bitartekoetan, Bizkaian bizi diren gazteen artean, aitortutako HIES kasu bakarra bat egon zen: horrenbestez, lurralde horretako tasa 1,5 HIES kasu da, 100.000 laguneko.
- 📁 25 eta 29 urte bitartekoetan, hiru lurralde historikoek dituzte bertako biztanleen artean 2005. urtean aitorturiko HIES kasuak; Arabako gazteek dute tasarik handiena (7,7) eta Gipuzkoan bizi direnak agertzen dira beste muturrean (1,8 HIES kasu aitortuak, 100.000 laguneko).
- 📁 Hiru lurralde historikoetako hiru adin-taldeetan, tasarik altuenak 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean agertu ziren.

HIES KASU AITORTUEN TASAK 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), 2005EAN: TALDE BAKOITZEKO 100.000 KIDEXO

	15 – 19	20 – 24	25 -29
Araba	7,15	0,0	7,71
Bizkaia	0,0	1,46	4,32
Gipuzkoa	0,0	0,0	1,81

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

‘Sexua’ aldagaia kontuan izaki, 15 eta 29 urte bitarteko kohorte osoari dagokionez, 2005. urtean aitorturiko HIES kasuen tasak emakumezkoetan apalagoak dira gizonezkoetan baino, hiru lurralde historikoetan ere: gizasemeen tasak emakumeenen bikoia dira, ia-ia. Sexuen arabera, tasa handienak Araban daude (6,5 HIES kasu aitortuak, 100.000 gizasemeko eta 3,5 kasu 100.000 emakumeko) eta txikienak Gipuzkoan (1,5 HIES kasu aitortuak, 100.000 gizasemeko eta 0,0 kasu 100.000 emakumeko).

HIES KASU AITORTUEN TASAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ARABERA, 2005EAN

	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK	
	Absolutuak	Tasak 100.000 biztanleko	Absolutuak	Tasak 100.000 biztanleko
Araba	2	6,54	1	3,49
Bizkaia	3	2,77	2	1,93
Gipuzkoa	1	1,55	0	0,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Ikus ditzagun, jarraian, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean 2005. urtean aitorturiko HIES kasuak, transmisio-kategoriaren arabera. Hiru lurralde historikoetan bi transmisio-kategoria bakarrik hauteman dira: heterosexuala eta bide parenteraleko drogen kontsumoa. Bi horietatik, harreman heterosexualak dira gazteen arteko transmisio-kausa behinena, Gipuzkoan batik bat: aitorturiko kasu guztien %100; Araban kasu guztien %66,7 dira eta Bizkaian %60.

HIES KASU AITORTUAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN (BI SEXUETAKOAK), TRANSMISIO-MOTAREN ARABERA, 2005EAN: EHUNEKOA KOPURU OSOAREKIKO

	Homo-bisexuala	Heterosexuala	Bide parenteraleko droga erabiltzaileak	Beste bat eta ez da ageri
Araba	0,0	66,7	33,3	0,0
Bizkaia	0,0	60,0	40,0	0,0
Gipuzkoa	0,0	100,0	0,0	0,0


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Amaitzeko, sexua aldagaia dela eta, Araban eta Bizkaian bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoen artean aitorturiko HIES kasuen transmisio-kategoriak gehiago dira, bai harreman heterosexualak agertzen direlako (%50 Araban eta %66,7 Bizkaian), bai eta bide parenteraleko drogen kontsumoa agertzen baita (%50 Araban eta %33,3 Bizkaian); Gipuzkoan, harreman heterosexualen bidezkoak soilik agertu dira (%100). Bestetik, 15 eta 29 urte bitarteko emakumeetan aitorturiko HIES kasuen artean, Araban eta Bizkaian aldeak agertzen dira: lehen kasuan, harreman heterosexualak baizik ez dira agertzen (%100) eta bigarrenean, horrelako harremanak ez ezik (%50), bide parenteralek kontsumituriko drogak ere hautematen dira (%50). Gipuzkoako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean aitortutako HIES kasu bakar bat ere ez zen izan.

HIES KASU AITORTUAK 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ETA TRANSMISIO-MOTAREN ARABERA, 2005EAN: EHUNEKOA, SEXU BAKOITZAREN KOPURU OSOAREKIKO

	<i>Homo-bisexuala</i>	<i>Heterosexuala</i>	<i>Bide parenteraleko droga erabiltzaileak</i>	<i>Beste bat eta ez da ageri</i>
Araba				
<i>Gizonezkoak</i>	0,0	50,0	50,0	0,0
<i>Emakumeak</i>	0,0	100,0	0,0	0,0
Bizkaia				
<i>Gizonezkoak</i>	0,0	66,7	33,3	0,0
<i>Emakumeak</i>	0,0	50,0	50,0	0,0
Gipuzkoa				
<i>Gizonezkoak</i>	0,0	100,0	0,0	0,0
<i>Emakumeak</i>	0,0	0,0	0,0	0,0

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



7.3. Ondorioak

Ondoren, Euskadi osoko emaitzarik esanguratsuenak bilduko ditugu, aztertu ditugun lau gaiei dagokienez:

a) Osasun-kontsultak:

- 1992tik 2002ra arte, EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteek eginiko osasun-kontsultak ugaltu egin ziren, batez ere, gizonezkoen artean (%18,3); emakumeek eginiko kontsulten kopurua, aldiz, igoera arina egin zuen (%1,1).
- Gazte bakoitzeko eta urteko, osasun-kontsulten batez bestekoa 4,2 osasun-kontsultatik 5,5era igo zen, sexu bat zein besteko lagunen artean. Batez bestekoen hazkunderik handiena gizonezkoek erakutsi zuten (+1,4: 3,5etik 4,9ra) baina, bai 1992an bai eta 2002an ere, emakumeek osasun-kontsulta gehiago egin zituzten, urteko,: 5 eta 6,1 osasun-kontsulta, hurrenez hurren.
- Sei espezialitatetako osasun-kontsultak ugaltu egin ziren, sexu bateko zein besteko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean: medikuntza orokorra (%+15,9), oftalmologia (%+23,9), otorrinolaringologia (%+135,6), traumatologia (%+62,3), dermatologia (%+143,6) eta erradiologian (%+77,4). Beste aldetik, ordea, zenbait osasun-kontsulta urritu egin ziren, hala nola odontologian (%-25,8), ginekologian (%-31,9) eta neumologian (%-5,4).
- 15 eta 29 urte bitarteko gazteek 2002an eginiko osasun-kontsultak espezialitateen arabera banatzean, medikuntza orokorrekoek osatzen dute zatirik handiena (%46,8), ondotik odontologia (%20,7) eta traumatologia (%8) datozkiela.

Gazteen Euskal Behatokiak egin duen *Gazteriaren Joerak 2006 – Lehen Txostena*⁵⁶ inkestatik, kapitulu honetan jorratutako osasun-zerbitzuez hainbat ondorio atera ditzakegu, hara:

⁵⁶ Gizaker (2006ko ekainean): *Gazteriaren Joerak 2006 – Lehen Txostena*. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteen Euskal Behatokia.

- EAEn bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko gazteek, osasun-arazorik dutenean gehien erabiltzen dituzten osasun-zerbitzuak publikoak dira (%84,6), ondotik pribatuak edo aseguruaren bat datozela (%11,4).
- Osasun-kontsulta egin zaion sendagilea biziki baloratzen du pazienteak (10etik 9,14 puntu), baina osasun-zerbitzuen gaineko balorazioa ez ohi da horren garaia (6,95).
- Hainbat osasun-arazo tratatzea dela eta, osasun-zerbitzuen baliagarritasunaz, inkestari erantzun dioten 15 eta 29 urte bitarteko gazteek 'baliagarri edo aski baliagarritzat' baloratzen dituzte: sexu bidez transmititzen diren gaitzetan (%58,2), sexualitate-arazoetan (%51,7), desiratu gabeko haurdunaldian (%51,5), arazo psikologikoetan (%49,4), droga-arazoetan (%44,3), depresioetan (%42,6), anorexia kasuetan (%42,2) eta erretzeari uztean (gazteen %37,9k arazo hau tratatzeaz arduratzen diren osasun-zerbitzuak "baliagarri edo aski baliagarritzat" jo dituzte).

b) Haurdunaldiaren legezko etendura:

- Euskadiko 15 eta 29 urte bitartekoen kohorteko 1.000 emakumeko, haurdunaldiaren legezko etendura-tasak nabarmen txikiagoak dira Espainiakoak baino, hiru adin-taldeetan ere, hango balioak hemengoak bi halako (15 - 19 eta 25 - 29 urte bitartekoetan) edo hiru halako (25 - 29 urte bitartekoetan) baitira. Nolanahi ere, baliorik altuenak 20 eta 24 urteko emakumeetan agertzen dira: 2004. urtean, 7,4 legezko etendura izan ziren Euskadin eta 15,4 legezko etendura Espainian, 1.000 emakumeko.

Gazteen Euskal Behatokiak eginiko inkesta horretatik honakoak ondoriozta ditzakegu:

- 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %49,1en ustez, osasun-zerbitzuak biziki baliagarriak dira desiratu gabeko haurdunaldiak prebenitzeko.
- Sexuen araberako aldeei goazkiela, emakumeetan gizonezkoetan baino ugariagoak dira zerbitzu horiek biziki baliagarritzat jotzen dituztenak: %52,1 eta %46,2, hurrenez hurren.

- Adin-taldeen arabera, desiratu gabeko haurdunaldiak prebenitzeko, osasun-zerbitzuak biziki baliagarritzat jotzen dituztenen ehunekoa handiagoa da gazteen artean: %57,7 (15 eta 19 urteko bitartetan), %48,3 (20 eta 24 urte bitartekoetan), %42,8 (25 eta 29 urte bitartekoetan).

c) Droga-menpekotasunen aurkako tratamenduak:

- Droga-menpekotasunen aurkako tratamenduen hasierak EAEn atzeraka eboluzionatu zuen 1993tik 2004ra arte, 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen artean. Sexu bietako lagunez ari garela, 2004an hasitako tratamenduak (814) %42,1 urritu ziren 1993. urtekoen aldean (1.406). Sexuen arabera, askoz ere tratamendu gehiago hasi ziren gizonezkoen artean, hala 1993an nola 2004an, eta horren eboluzioak ez zuen biziki behera egin (%-38,8 gizonezkoetan eta %-47,9 emakumeetan). Bost urteka sailkaturiko adin-taldeetan, drogen aurkako tratamendu-hasieren eboluzioa positiboa izan zen 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean (%+5,4), baina 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko gazteek, aldiz, atzerakako eboluzioa erakutsi zuten (%-37,9 eta %-51).
- Drogen aurkako tratamenduen hasiera-tasek, 15 eta 29 urte bitarteko biztanlerian, behera egin du 1993tik 2004ra arte. Sexu bietako lagunez ari garela, 2004an 205,5 tratamendu hasi ziren, Euskadin bizi ziren 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko; 1993an berriz, 263,6 tratamendu hasi ziren. Sexuen arabera, hala 1993an nola 2004an, tasa horiek handiagoak izan ziren gizonezkoen artean (400,3 eta 327,7 tratamendu hasi ziren, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 gizasemeko) emakumeetan baino (107,9 eta 76,3 tratamendu hasi ziren, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko).
- Bost urteka sailkaturiko hiru adin-taldeetatik, 15 eta 19 urte bitarteko gazteenean bakarrik ugaltu ziren tasak 1993tik 2004ra arte: 62 eta 125,1, alegia. Nolanahi ere, 2004. urtean, 20 - 24 (230,9) eta 25 - 29 urte bitarteko (230,4) gazteei dagozkien tasak, 15 - 19 urte bitartekoenaren (125,1 tratamendu-hasiera, 100.000 laguneko) bi halako dira, ia-ia. Beste aldetik, 25 - 29 urte bitarteko taldeari dagozkion tasen beherakada nabarmentzekoa da: 466,8 tratamendu-hasieratik 230,4ra jaitsi zen, 100.000 laguneko.

- 2004. urteko tratamendu-hasieretan, kokaina da droga ugariena (tratamendu-hasiera guztien %47,3), hurrengo tokietan agertzen diren droga-mota guztietatik urrutiti: %15,4, kanabisa, %14,1 heroína, %9,1, alkohola.
- Sexu bateko zein besteko pertsonak bat datoz: kokaina da 2004an tratamendu-hasieren kopuru erlatibo handiena agertzen duen droga, gizonezkoetan (%48,8) eragin handiagoa duen arren, emakumezkoetan baino (%40,1). Kanabisa, berriz, tratamendu-hasierak direla eta, gizonezkoetan ugariago agertzen da emakumezkoetan baino: %16,2 eta %11,6.
- Hiru adin-taldeen ari garela, 2004ko tratamendu-hasieretan droga-mota bakoitzak agertzen duen ehunekoak direla eta, handitik txikira, kokaina agertzen da lehen tokian 20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean (%52,4) eta 15 eta 29 urte bitartekoetan (%50,1); kanabisa (tratamendu-hasieren %37,3), berriz, 15 eta 19 urte bitartekoen taldean agertzen da.

Gazteen Euskal Behatokiak egin duen *Gazteriaren Joerak 2006 – Lehen Txostena* inkestatik, droga-menpekotasunen tratamenduarekin zerikusia duten ondorio batzuk aterako ditugu:

- 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %36,2ren ustez, osasun-zerbitzuak biziki baliagarriak dira tabakoaren kontsumoa prebenitzeko, %33,5en iritziz alkohol gehiegi kontsumitzea prebenitzeko eta %32ren aburuz, legez kanpoko drogen kontsumoa prebenitzeko.
- Adin-talde batetik bestera aldeak agertzen dira: 15 eta 19 urte bitarteko gazte gehiagok baloratzen dituzte biziki baliagarritzat osasun-zerbitzuak tabakoaren, alkoholaren eta legez kanpoko drogen kontsumoa prebenitzeko.

d) Aitortutako HIES kasuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan, sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko kohortean aitortutako HIES kasuen kopurua jaitsi egin zen (%-93,4) 1993. eta 2005. urteen artean. Portzentajezko jaitsiera antzekoa izan zen, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen (%-94,4) artean eta 25 eta 29 urte bitartekoen artean (%-94,1); 15 eta 19 urte bitarteko gazteen artean, aitortutako kasu bakarra izan zen, berriro ere.
- 2005ean, sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko biztanlerian aitortutako HIES kasuen EAeko tasa (2,27 kasu aitortu, 100.000 laguneko) Espainiakoaren biko da (1,12 kasu aitortu, 100.000 laguneko). Adin-taldeen arabera berariazko tasak ere handiagoak dira Euskadin. Adin handieneko euskal gazteen tasa nabarmentzen da, batik bat, espainiarraren biko baita: 4,02 eta 2,32 kasu aitortu, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko.
- Sexuari dagokiola, 2005. urtean, 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoen tasak emakumeenak baino handiagoak dira, hala EAEn nola Espainian. Dena den, euskal tasak espainiarrez goitik doaz, bai gizonezkoetan (2,90 eta 1,51 kasu aitortu, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 gizasemeko) baita emakumezkoetan ere (1,56 eta 0,71 kasu aitortu, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko).
- 2005. urtean, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean aitortutako kasuetan, transmisio-kategoriarik ohikoena harreman heterosexuala da, bide parenteraletik drogak hartzea ondotik datorkiola. Euskadin, transmisio-kategoria bi horiek eragin handiagoa dute Espainian baino (%66,7 heterosexual eta %33,3 bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoa, %39,4 eta %27,9 tasen aurrean). Aurkakoa gertatzen da harreman homo eta bisexualetan: horrelakorik ez da agertzen Euskadin aitortutako kasuetan; bai, ordea, estatu espainiar osoan aitorturiko kasuen %25,9tan.
- 2005. urtean aitortutako kasuak, transmisio-kategoriaz ari garela, era berdintsuan banatzen dira gizonezko eta emakumezkoetan: %66,7 harreman heterosexualengatik eta %33,3 bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoagatik. Espainian, berriz, sexuaren arabera, transmisio-kategoria

batetik bestera dezenteko aldeak agertzen dira: emakumezkoen artean, harreman heterosexualak dira nagusi (%62,5) urrutitik bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoa datorkiela (%21,9). Gizonezkoek portzentajezko banaketa heterogeneo edo bakanduagoa erakusten dute: harreman homo eta bisexualak datoz lehen tokian (%37,5), bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoa ondoren (%30,5) eta harreman heterosexualak hirugarren (%29,2).

- Gaztea adinean joan ahala, transmisio-kategorien arteko desberdintasunak are nabarmenago agertzen dira. EAEn, harreman heterosexualak nagusi dira 15 eta 19 urte bitartekoen taldean (%100), baita bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoa 20 eta 24 urte bitartekoen taldean (%100). 25 eta 29 urte bitartekoen taldean, ostera, bi kategoriak agertzen dira: harreman heterosexualak (%71,4) eta bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoa (%28,6). Espainiaren aldean, Euskadik agertzen duen transmisio-kategorien araberako banaketa homogeneoagoa da: harreman homo eta bisexualen mesedetan eta bide parenteraletik hartutako drogen kontsumoaren mesedetan, harreman heterosexualek garrantzia galtzen dutenez, adin txikieneko gazteetatik (15 eta 19 urte bitartekoak) adin handienekoetara igaro gara (25 eta 29 urte bitartekoak).

Gazteen Euskal Behatokiak egin duen *Gazteriaren Joerak 2006 – Lehen Txostena* inkestatik, HIES prebenitzeko osasun-zerbitzuen baliagarritasunaz hurrengo azpimarratuko dugu:

- 2006ko apirilean inkestari erantzun dioten gazteen %59,4ren iritziz, osasun-zerbitzuak biziki baliagarriak dira HIES prebenitzeko.
- Horrelako iritzia dutenak ugariagoak dira gazteen artean (15 eta 19 urte bitartekoen %64 eta 25 eta 29 urte bitartekoen %53,3) eta beren burua klase ertain - altukotzat daukatenen artean (%64,9) klase ertain – apalekotzat daukatenen artean baino (%48).

Bukatzeko, Osasunerako Hezkuntza-programa publikoak sustatzeko premia aipatu behar da hemen, sexu-transmisio bidezko gaitzak —HIES, bereziki, EAEn bizi den 15 eta 29 urte bitarteko biztanlerian, 2005. urtean aitortutako HIES kasuen tasa

espainiarraren bikoia baita— prebenitu eta orientatzeari dagozkionak, batik bat. Adiera horretan, gazteen arteko koitodun sexu-harremanen goiztiartasuna osasun-arriskuko elementu erantsia da, sortzearen aurkako babeskuntza osa eskasa baita, kondoia ez erabiltzearen eta, esan gabe doa, hori era eraginkorren erabiltzeko behar diren trebeziak oraino ezezagunak dituztelako gazteek. Era berean, badirudi sexua babesik gabe praktikatzearen ondorioz, sexu-gaitzik nozitzeko arriskuaren pertzepzioa ere galtzen ari direla. Hainbat azterlanen arabera, egun, gazteen artean kondoia erabiltzearen hedaduraren etsai nagusia, ez erabiltzekotan gozamen handiagoa erdiesteko itxaropena da. Jarrera hori gazteenek, babesik gabeko sexu-praktikan 'metodo salbatzaile' izenekoari (biharamuneko pilulari) esker indartu dute⁵⁷.

⁵⁷ Juan Carlos Diezma (2001): Promoción de la salud y prevención de enfermedades sexuales, in Revista Estudios de Juventud 55 zk., 22 orr.. INJUVE, Madril.

VIII. 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN HILKORTASUNA

Hilkortasuna fenomeno demografiko orokorra (gizabanako guztiak hiltzen dira) eta ez-berriztagarria da (behin bakarrik hiltzen gara) eta gizakiaren adina baldintzatzaile latza da horretan: zenbat eta zaharragoa, orduan eta hiltzeko aukera handiagoa (haurtzaroan izan ezik)⁵⁸.

Bosgarren kapituluan, ugalkortasunaz eta jaiotza-tasaz ari garenean, Trantsizio Demografikoaren eredu teorikoaren aipamena egin dugu: hilkortasunaren fenomenoan gertatu diren aldakuntza historikoak azaltzeko biziki baliagarria da eredu hori. Euskal gizarteak, industrializazio eta urbanizazio prozesuetan sartzean, erregimen demografiko zaharretik modernorako trantsizioa bizi izan zuen. Erregimen zaharrean hilkortasun-tasa handia zen, haurren hilkortasuna eta ezbeharren (goseteak, izurriteak eta gerrak) ondoriozko hilkortasunagatik. Erregimen modernoan ez bezala, alegia: orain hilkortasun-tasa apala da, bizi-kalitatean —elikaduran, higienean, etxebizitzan eta osasunean, batik bat— gertatu diren hobekuntzei esker. Trantsizio Demografikoan, beraz, bizi-itxaropena hirukoiztu egin da, hilkortasuna biziki urritu izanaren ondorioz.

Hilkortasun-tasak, oro har, aurreko hamarkadetan jaitsi egin dira, hurrengo faktoreen elkarreraginaren ondorioz:


- Ongizate-estatuaren eta, bereziki, osasun alorreko gizarte-zerbitzu eta baliabideak ezarri eta garatzeri esker.
- Europar Batasuneko gizarte modernoetan gizarteak duen ongizate handiari esker: gizarte tradizionalen hilkortasun-tasa dezente handiagoa zen, txiro bizi ziren gizarte-estratuetan, batez ere.
- Erditzean eta haurtzaroko lehen urteetan hilkortasun-tasa hutsaren hurrena izateari esker. Esate baterako, urtebetetik beherakoei dagokienez, 1975. urtean

⁵⁸ Salvador Giner, Emilio Lamo de Espinosa eta Cristóbal Torres (1998): Diccionario de Sociología, 505 orr., Alianza Editorial SA, Madril.

hilkortasun-tasa 18,88 heriotza izan zen Espainian eta 18,56 heriotza Euskadin (jaiotako 1.000 haurreko); 2004. urterako 3,99ra eta 3,68ra jaitsi ziren balioak. Bizitzako lehen urteko hilkortasun-tasa, izan ere, herrialde batek hartu duen garapen sozioekonomikoaren adierazle egokia da.

- Biztanleriaren artean, hezkuntza sistemaren bitartez eta informazio eta sentsibilizazio kanpainen bidez, osasunera begirako heziketa eta higienari buruzko ezagutza praktikoak hedatzeari esker.
- Adineko pertsonen duten bizi-itxaropen handiagoa, etengabe goraka doana: aurreko faktore horien —bereziki, gizarte eta osasun alorretan jazo diren aurrerakuntzen— ondorioetako bat da hau.

Nolanahi ere, egun hilkortasun-tasa gordina berriz ere hasi da goraka, biztanleriaren zahartze prozesua dela medio (gogoan izan adinen arabera egitura demografikoaren eraginaren baldintzapean dagoela hilkortasun-tasa). Ondoko grafikoan argi eta garbi ikusten dugu EAEn hasitako gorakada hori: hilkortasun-tasa gordina 1981ean 6,82 heriotza zelarik (1.000 biztanleko), 2004. urtean 8,9 heriotzaraino iritsi zen.



Hurrengo orrietan, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen hilkortasun-tasak aztertuko ditugu EAEn eta Espainian ez ezik, gure lurralde historiko bakoitzean ere. Euskal hogeiki eskualdeei buruzko datu ofizialik ez dugunez, azterketak maila hori ere jorratu gabe utziko du. Hurrengo adierazle kuantitatiboak landuko ditugu, bereziki:

- Hilkortasun-tasak 1980/81 eta 2003/04 biurtekoetan, adin-taldearen eta sexuen arabera. Esate baterako, Euskadin bizi den sexu bietako 15 eta 29 urte bitartekoen kohortean, 2003. eta 2004. urteetan gertaturiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotzak aintzat hartuz kalkulatu da; kopuru hori zati bi banatuta, 2001eko urtarrilaren 1ean Euskadin erroldatua zegoen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaz zatitzen da eta emaitza bider 100.000 egiten da.

- Hilkortasun-tasak, zergati nagusien arabera, 1992/96 eta 2002/03 epeetan⁵⁹. Esate baterako, EAEn bizi ziren gazteei dagokiela, motordun ibilgailuarekin gertaturiko trafiko-istripuen ondoriozko 2003-2003 biurteko hilkortasun-tasa, kausa hori dela medio, 2002 eta 2003an jazo ziren 15 eta 29 urte bitarteko gazteen heriotzak aintzat hartuz kalkulatzen da; kopurua bitan zatitzen da eta emaitza hori, 2003ko urtarrilaren 1ean Euskadin erroldatua zegoen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleriaz zatitzen da; azkenean, kopuru hori bider 100.000 kalkulatu behar da.

8.1. Euskadi eta Espainia


Gazteen hilkortasun-tasak nabarmen jaitsi ziren 1980/81 eta 2003/04 biurtekoetan, bai EAEn bai eta Espainiako estatuan ere. Ondoko taulan ikusten dugunez, jaitsiera handienak Euskadin gertatu ziren, 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko gazte-taldeetan. 1980/81 biurtekoan, bi adin-talde horiei zegozkien hilkortasun-tasak handiagoak ziren Euskadin, baina 2003/04 biurtekoan, hiru adin-taldeetan, espainiar tasak hemengoak baino handiagoak dira, proportzioa alderantzikatu egin baitzen. 2003/04 biurtekoan, urteko hilkortasun-tasak 40,8 dira Espainian eta 31,6 EAEn, 15 eta 19 urte bitarteko 100.000 laguneko; urtero 52,8 heriotza daude estatu espainiar osoan eta 39,7 hildako Euskadin, 20 eta 24 urte bitarteko 100.000 laguneko; eta urtero 55,4 heriotza Espainian eta 45,8 Euskadin, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko.

HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, 1980/81 ETA 2003/04 URTEETAN

Bi sexuetakoak	1980/81			2003/04			Diferentzia 2003/04 – 1980/01		
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29
EAE	50,1	86,3	84,5	31,6	39,7	45,8	-18,5	-46,6	-38,7
Espainia	55,3	74,7	79,4	40,8	52,8	55,4	-14,5	-21,9	-24,0

Iturria: Movimiento Natural de la Población, INE.

⁵⁹ Hilkortasunaren arrazoi nagusiei dagokienez, ez daukagu datu ofizialik 1980/81 eta 2003/04 biurtekoetz.



Sexua aldagaia aintzat hartuta, 2003/04 biurtekoan gizonzkoen hilkortasun-tasak emakumeenak baino nabarmen handiagoak dira, bost urtez sailkaturiko hiru taldeetan, hala EAEn nola Espainian. Dena dela, tasa espainiarrak EAEkoak baino handiagoak dira, gizonzkoetan batik bat, 20 eta 24 urte bitarteko taldeetan (urtean 78,7 hildako Espainiako estatuan eta 55,7 Euskadin, 100.000 gizasemeko), eta 25 eta 29 urte bitarteko taldeetan (81,0 Espainian eta 63,8 EAEn, 100.000 gizasemeko), bereziki.

HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO GIZONEZKO ETA EMAKUMEEN ARTEAN, 2003/04 URTEETAN

	Gizonezkoak			Emakumeak			Diferentzia Gizonezkoak - emakumeak		
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29
EAE	41,7	55,7	63,8	21,0	22,8	26,7	+20,7	+32,9	+37,1
Espania	57,0	78,7	81,0	23,7	25,8	28,3	+33,3	+52,9	+52,7

Iturria: Movimiento Natural de la Población, INE.

Zein dira gazteen hilkortasunaren arrazoi nagusiak EAEn? 2002/03 biurtekoan, 15 eta 29 urte bitartekoen kohorte osoaz ari garela, motordun ibilgailuarekin gertaturiko trafiko-istripuen ondoriozkoa da lehena (urtean 17,8 hildako, 100.000 laguneko). Bigarren tokian, suizidioak eta auto-lesioak datoz (sexu bietako pertsonaz ari garela, 4,0 heriotza urtean, 100.000 laguneko). Hirugarrenik, bi arrazoi agertu dira: nerbio-sistemako eta organoetako bestelako gaitzak (sexu bietako pertsonaz ari garela, urtean 1,6 heriotza 100.000 laguneko) eta drogak hartzearen istripuzko pozoidurak (sexu bietako pertsonaz ari garela, urtean 1,6 heriotza 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko).

Sexuaren arabera, 2002/03 biurtekoan hainbat desberdintasun agertu dira: hilkortasunaren arrazoi nagusi guztiek 15 eta 29 urte bitarteko gizonezkoetan eragin handiagoa dute emakumeetan baino. Bi arrazoi nagusiren ondoriozko hilkortasun-tasetan agertutako aldeak nabaritzen dira, bereziki:


- Motordun ibilgailuarekin gertaturiko trafiko-istripuak: gizonezkoetan, 26,2 hildako 100.000 gizasemeko, emakumezkoetan, 9 heriotza 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko.
- Suizidioak eta auto-lesioak: gizonezkoetan, 7,3 hildako 100.000 gizasemeko; emakumezkoetan, 1,9 hildako, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko.

HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15 ETA 29 URTE BITARTEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEZKOEN ARTEAN, ARRAZOI NAGUSIEN ARABERA, 1992/96 ETA 2002/03 URTEETAN

	1992/96			2002/03			Diferentzia 2002/03 – 1992/96		
	G	E	AS	G	E	AS	G	E	AS
Ibilgailu motordunekin izandako trafiko-istripuak	29,3	7,0	18,3	26,2	9,0	17,8	-3,1	2,0	-0,5
Suizidioa eta auto-lesioa	8,0	3,4	5,8	7,3	1,9	4,0	-0,7	-1,5	-1,8
Nerbio-sistemako	*	*	*	2,3			*	*	*

eta organoetako beste gaixotasun batzuk				1,0	1,6				
Leuzemiak	*	*	*	1,8	1,0	1,4	*	*	*
Istripuzko pozoidura, drogek eragina	10,4	1,4	6,0	2,7	0,2	1,6	-7,7	-1,2	-4,4
HIES	21,1	11,6	16,4	1,4	0,2	0,8	-19,7	-1,2	-15,6
GUZTIRA	118,1	42,9	81,3	63,7	25,4	45,1	-54,4	-17,5	-36,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
 (*): ez dago 1992/96ko daturik




2002/2003 biurteko datu hauek 1992/1996 aldikoekin alderatuz gero, aldaketa esanguratsuak gertatu direla hautemango dugu:

- Sexu bietakoei eta gizonezkoei dagokiela, hilkortasunaren arrazoi nagusiak beherantz etorri dira, egun drogen eraginagatik egondako istripuzko pozoidurak eta HIES nabarmentzen direlarik. Emakumeen artean, berriz, salbuespena agertzen da: motordun ibilgailuko trafiko-istripuek gora egin dute: urtean, 15 eta 29 urteko 100.000 emakumeko, 7,0 heriotza ondorioztatzetik 9,0 heriotzetara pasa dira).
- HIES egun ez da hilkortasun-arrazoiengan bigarrena 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean (sexu bietakoei dagokiela, urtean 16,4 heriotza 100.000 laguneko), 2002/03 biurtekoan seigarren tokira jaitsi baita (sexu bietakoei dagokiela, urtean 0,8 heriotza, Euskadin erroldaturiko 100.000 laguneko).
- Drogen eraginez egondako istripuzko pozoidura, sexu bietakoei dagokiela, gazteen arteko hilkortasun-arrazoiengan hirugarrena izatetik laugarren bihurtu da: urtean, 6,0 heriotzatik 1,6 heriotzara Euskadin erroldaturiko 100.000 laguneko.

Bost urteka sailkaturiko hiru adin-taldeak aintzat hartzean, 2002/03 biurtekoan, bai motordun ibilgailuko trafiko-istripuak, bai suizidio – auto-lesioak ere 15 - 19 urte, 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko gazteen hilkortasun-arrazoiengan lehena eta bigarrenak dira. Nolanahi ere, hurrengo arrazoi behinenetan, batetik bestera aldeak hautematen dira:

- Hirugarrenik, 15 eta 19 urte bitartekoen artean hiru arrazoi agertzen dira (nerbio-sistemako eta organoetako bestelako gaitzak, leuzemiak eta HIES); 20 eta 24 urte bitarteko gizakietan bi arrazoi (leuzemia eta drogen eraginez egondako istripuzko pozoidura); 25 eta 29 urte bitarteko gazteetan arrazoi bakarra dago (nerbio-sistemako eta organoetako bestelako gaitzak).
- Laugarren tokian, 15 - 19 eta 25 - 29 urte bitarteko gazteetan, drogen eraginez egondako istripuzko pozoiduragatik hilkortasuna hauteman dugu. 20 eta 24 urte bitarteko lagunetan, berriz, laugarren tokian nerbio-sistemako eta organoetako bestelako gaitzak agertzen dira.

**HILKORTASUN-TASAK, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO
EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN, ARRAZOI NAGUSIEN
ARABERA, 2002/03 URTEETAN - EAE
(Talde bakoitzeko 100.000 biztanleko)**



2002/03 eta 1992/96 epeetako hilkortasunaren arrazoi nagusiak elkarrekin konparatzean nabarmentzen diren aldeak, bost urteka sailkatutako adin-taldean arabera, hurrengoak dira:

- Hiru adin-taldeetatik, 15 eta 19 urte bitartekoan bakarrik izan dute etengabeko bilakaera hilkortasunaren hiru arrazoi nagusien tasek: motordun ibilgailuaren trafiko-istripuak (urtean, 12,2 hildako izatetik 17,6 hildako izatera pasatu dira,

100.000 laguneko), suizidioa – auto-lesioak (urtean, 2,5 heriotza izatetik 2,9 heriotza izatera pasatu dira, 100.000 laguneko) eta HIES (urtean, 0,2 heriotza izatetik 1,0 heriotza izatera pasatu dira, Euskadin erroldaturiko 15 eta 19 urte bitarteko 100.000 laguneko).

- 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitartekoen taldeetan, hilkortasunaren arrazoi nagusi guztietan tasak urritu diren arren, atzerakada nabarmena agertu du HIESk, 20 eta 24 urte bitartekoen taldean erabatekoa izan baita (urtean 100.000 laguneko 5,5 heriotza izatetik heriotzarik ez izatera pasatu da) eta aparta 25 eta 29 urte bitartekoen taldean (urtean 43,2 heriotza izatetik 1,4 hildako izatera, 100.000 laguneko). Ondoren, drogen eraginez egondako istripuzko pozoiduren tasaren gainbehera nabarmentzen da: urtean, 4,8 heriotza izatetik 1,4 izatera pasatu da 20 eta 24 urte bitarteko 100.000 laguneko, eta 12,0 heriotza izatetik 2,2 heriotza izatera, Euskadin erroldaturiko 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko.


HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, ARRAZOI NAGUSIEN ARABERA, 1992/96 ETA 2002/03 URTEETAN

Bi sexuetaoak	1992/96			2002/03			Diferentzia 2002/03 – 1992/96		
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29
Ibilgailu motordunekin izandako trafiko-istripuak	12,2	23,9	18,6	17,6	20,6	15,9	5,4	-3,3	-2,7
Suizidioa eta auto-lesioak	2,5	7,1	7,5	2,9	4,2	6,1	0,4	-2,9	-1,4
Nerbio-sistemako eta organoetako beste gaixotasun batzuk	*	*	*	1,0	0,7	2,8	*	*	*
Leuzemiak	*	*	*	1,0	1,4	1,7	*	*	*
Istripuzko pozoidura, drogek eragina	1,0	4,8	12,0	0,5	1,4	2,2	-0,5	-3,4	-9,8
HIES	0,2	5,5	43,2	1,0	0,0	1,4	0,8	-5,5	-41,8
GUZTIRA	40,7	73,1	128,6	36,1	44,9	50,4	-4,6	-28,2	-78,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila
(*): Ez dago 1992/96 aldiko daturik

8.2. Lurralde historikoak

Hiru lurralde historikoetan, bost urteka sailkaturiko adin-taldeetako gazteen hilkortasun-tasak ere dezente jaitsi ziren 1980/81tik 2003/04ra arte. Beherakadarik nabarmenenak 20 eta 24 urte bitarteko taldean gertatu ziren; ondotik, 25 eta 29 urte bitarteko gazteen taldekoak zetozkien. Hiru adin-taldeei goazkiela, bai 1980/81ean, bai 2003/04an, hilkortasun-tasarik altuenak Bizkaian erroldaturiko gazteek agertzen zituzten eta apalenak, Araban bizi diren gazteek: urtean, 31,7 eta 23,1 heriotza hurrenez hurren, 15 eta 19 urte bitarteko 100.000 laguneko, 42,7 eta 18,8 heriotza 20 eta 24 urte bitarteko 100.000 laguneko eta 51,5 eta 32,6 heriotza urtean hurrenez hurren, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko.



HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, 1980/81 ETA 2002/03 URTEETAN

Bi sexuetakoak	1980/81			2003/04			Diferentzia 2003/04 – 1980/01		
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29
Araba	37,9	73,6	65,0	23,1	18,8	32,6	-14,8	-54,8	-32,4
Bizkaia	55,6	92,9	88,5	31,7	42,7	51,5	-23,9	-50,2	-37,0
Gipuzkoa	45,0	79,3	85,2	31,0	31,0	41,1	-14,0	-48,3	-44,1

Iturria: Movimiento Natural de la Población, INE.


Azterlanean sexua aldagaia sartzen badugu, 2003/04 biurtekoan eta hiru lurralde historikoetan, hiru adin-taldeetako gizonezkoen hilkortasun-tasak adin bereko emakumeenak baino handiagoak dira. Hilkortasun-tasarik handiena, Bizkaian errolaturiko 25 eta 29 urte bitarteko gizonezkoek dute (urtean 72,7 heriotza, 100.000 gizasemeko) eta txikiena Araban bizi diren 20 eta 24 urte bitarteko emakumeek (urtean, 9,6 heriotza 100.000 emakumeko). Zehazkiago agertzearren:

- Gizonezkoetan Gipuzkoak dauka hilkortasun-tasarik garaiena 15 eta 19 urte bitarteko gazteen taldean (urtean 47,9 heriotza 100.000 laguneko); Bizkaian, berriz, hilkortasun-tasarik altuena beste bi taldetan du: 20 - 24 urte (57,0 heriotza 100.000 laguneko) eta 25 - 29 urte bitartekoen artean (72,7 heriotza 100.000 laguneko).
- Emakumeei dagokiela, hilkortasun-tasarik altuenak Bizkaian bizi diren hiru taldeetako gazteetan agertzen dira (urtean 26,1 heriotza 15 eta 19 urte bitartekoen taldean, 27,8 heriotza 20 eta 24 urte bitartekoen taldean eta 29,1 heriotza 25 eta 29 urte bitartekoenean, talde bakoitzeko 100.000 emakumeko). Tasa apalenak, berriz, Gipuzkoan agertzen dira 15 - 19 urte bitartekoen taldean (12,9 heriotza urtean 100.000 emakumeko) eta 25 - 29 urte artekoenean (21,4 heriotza 100.000 emakumeko); Araban, ordea, tasarik baxuenak 20 - 24 urte bitartekoen taldean (9,6 heriotza 100.000 emakumeko).

HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-19, 20-24 ETA 25-29 URTE BITARTEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN, 2002/03 URTEETAN

	Gizonezkoak			Emakumeak			Diferentzia Gizonezkoak - Emakumeak		
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29
Araba	32,2	32,2	36,8	13,6	9,6	28,1	18,6	22,6	8,7
Bizkaia	37,1	57,0	72,7	26,1	27,8	29,1	11,0	29,2	43,6
Gipuzkoa	47,9	53,9	59,3	12,9	18,3	21,4	35,0	35,6	37,9

Iturria: Movimiento Natural de la Población, INE.



Sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko gazteen hilkortasunaren arrazoi nagusiez ari garela, hurrengo datuak ikusi ditugu:

- Hiru lurralde historikoetan, lehen tokian agertzen dira motordun ibilgailuen trafiko-istripuak, hilkortasun-tasa Gipuzkoan dezente handiagoa bada ere: 21,4


heriotza urtean 100.000 laguneko; Bizkaian 16,9 heriotza 100.000 laguneko eta Araban 13,6 heriotza 100.000 laguneko.

- Suizidioa eta auto-lesioak dira hiru lurralde historikoetan hilkortasunaren bigarren arrazoi nagusia eta Bizkaian du baliorik garaiena: 5,3 heriotza urtean 100.000 laguneko; Gipuzkoan, 4,1 heriotza 100.000 laguneko eta Araban 4,0 heriotza 100.000 laguneko.
- Hilkortasunaren hirugarren arrazoi nagusia ezberdina da lurralde historiko bakoitzean: drogak hartzearen istripuzko pozoidura Araban (2,4 heriotza 100.000 laguneko), nerbio-sistema eta organoen bestelako gaitzak Bizkaian (2,2 heriotza urtean 100.000 laguneko) eta leuzemia Gipuzkoan (2,2 heriotza urtean 100.000 laguneko).

HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-29 URTE BITARTEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN, ARRAZOI NAGUSIEN ARABERA, 2002/03 URTEETAN


	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	G	E	AS	G	E	AS	G	E	AS
Ibilgailu motordunekin izandako trafiko-istripuak	18,6	8,3	13,6	24,4	9,0	16,9	32,7	9,2	21,4
Suizidioa eta auto-lesioak	7,8	0,0	4,0	7,3	3,2	5,3	7,1	0,8	4,1
Nerbio-sistemako eta organoetako beste gaixotasun batzuk	0,0	0,0	0,0	2,6	1,8	2,2	2,8	0,0	1,5
Leuzemiak	0,0	0,0	0,0	1,7	0,9	1,3	2,8	1,5	2,2
Istripuzko pozoidura, drogek eragina	4,7	0,0	2,4	3,0	0,5	1,8	2,8	0,0	1,5
HIES	3,1	0,0	1,6	2,1	0,5	1,3	0,0	0,0	0,0
GUZTIRA	40,31	23,19	32,03	64,73	28,37	47,01	72,61	21,39	47,91

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.



Sexua aldagaia sartzen badugu, 2002/03 biurtekoan honako datuak ikusiko ditugu:

- Hiru lurralde historikoetan, motordun ibilgailuen trafiko-istripuak agertzen dira gizonezko eta emakume gazteen hilkortasunaren lehen arrazoi nagusi gisara, baina horren eragin kuantitatiboa dezente handiagoa da gizonezkoetan.
- Hilkortasunaren bigarren arrazoi nagusian ez datoz bat gizonezkoak eta emakumezkoak: hiru lurralde historikoetako gizasemeetan suizidioa eta auto-lesioak dira bigarren arrazoiak, eta emakumeetan aldeak daude, lurralde batetik bestera, esate baterako, Bizkaian ere suizidioa eta auto-lesioak agertzen dira, baina Gipuzkoan leuzemia da heriotza ekartzen duen bigarren arrazoiak.



Bost urtez sailkaturiko adin-taldean arabera, 2002/03 biurtekoan, gazteen hilkortasunaren arrazoi nagusiak direla-eta, hurrengo alderdiak aipatuko ditugu:

- Motordun ibilgailuen trafiko-istripuak dira hiru lurralde historikoetako gazteen hilkortasunaren lehen arrazoa. Kausa horrengatik hilkortasun-tasak gorenera iritsi dira 20 eta 24 urte bitarteko taldean: 16,47 heriotza urtean 100.000 laguneko Araban, 20,7 heriotza 100.000 laguneko Bizkaian eta 22,2 heriotza urtean 100.000 laguneko Gipuzkoan.
- Bigarren tokian suizidioa eta auto-lesioak agertzen dira. Baina adin-talde desberdinean du eragin larriena lurralde historiko bakoitzean: Araban, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen taldean eragiten du heriotza gehien (6,61 heriotza urtean, 100.000 laguneko), Bizkaian 25 eta 29 urte bitarteko taldean (7,90 heriotza urtean, 100.000 laguneko) eta Gipuzkoan, berriz, 20 eta 24 urte bitarteko taldean (5,6 heriotza urtean, 100.000 laguneko).

HILKORTASUN-TASAK, 100.000 BIZTANLEKO, 15-19, 20-24 eta 25-29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, ARRAZOI NAGUSIEN ARABERA, 2002/03 URTEETAN

Sexu bietakoak	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29	15 - 19	20 - 24	25 - 29
Ibilgailu motordunekin izandako trafiko-istripuak	9,92	16,47	13,42	18,1	20,7	13,1	20,2	22,2	21,4
Suizidioa eta auto-lesioak	6,61	4,71	5,75	2,7	3,9	7,9	3,1	5,6	3,4
Nerbio-sistemako eta organoetako beste gaixotasun batzuk	0,0	0,0	0,0	0,0	1,3	3,2	0,0	0,0	3,4
Leuzemiak	0,0	0,0	0,0	0,0	1,3	2,1	1,6	2,2	1,7
Istripuzko pozoidura, drogek eragina	0,0	0,0	5,75	1,8	1,9	2,1	0,0	2,2	1,7
HIES	3,30	0,0	0,0	1,8	0,0	2,6	0,0	0,0	0,0
GUZTIRA	26,46	28,24	38,36	40,7	45,31	51,98	32,57	52,17	53,07

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila

8.3. Ondorioak

Laburbilduz, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean, hilkortasunaren fenomeno demografikoak behera egin du 1980/81 eta 2003/04 biurtekoen arteko bilakaeran, hala EAEn nola Espainian; beherakada handienak Euskadin gertatu dira, 20 - 24 eta 25 - 29 urte bitarteko taldeetan. 2003/04 biurtekoan bost urteka sailkatutako hiru adin-taldeetako hilkortasun-tasak Euskadin baino handiagoak dira Espainian: 40,8 heriotza Espainiako estatuan eta 31,6 heriotza EAEn, 15 eta 19 urte bitarteko 100.000 laguneko; 52,8 eta 39,7 heriotza hurrenez hurren, 20 eta 24 urte bitarteko 100.000 laguneko; eta 55,4 eta 45,8 heriotza, 25 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko.

Hala EAEn nola Espainian, gizonezkoen artean hilkortasun-tasak nabarmen handiagoak dira emakumeen artekoak baino, adin-talde guztietan. Halaz ere, tasa espainiarrak Euskadikoak gainetik dabilta, gizonezkoen artean, bi taldeetan: 20 eta 24 urte bitarteko taldean (urtean 78,7 heriotza Espainiako estatuan eta 55,7 Euskadin, 100.000 gizasemeko) eta 25 eta 29 urte bitartekoek osatutakoan (81,0 heriotza Espainian eta 63,8 EAEn, 100.000 gizasemeko).

2002/03 biurtekoan, EAEn bizi zen sexu bietako 15 eta 29 urte bitarteko kohorte osoari dagokionez, motordun ibilgailuen trafiko-istripuak dira hilkortasunaren lehen arrazoa (17,8 heriotza urtean 100.000 laguneko). Bigarren tokian, suizidioak eta auto-lesioak datoz (4,0 heriotza urtean 100.000 laguneko). Hirugarren tokian, bi arrazoi agertzen dira: nerbio-sistemako eta organoetako beste gaitz batzuk (1,6 heriotza urtean 100.000 laguneko) eta drogak hartzeagatik egondako istripuzko pozoidura (1,6 heriotza urtean, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 laguneko). 15 eta 29 urte bitarteko emakumeetan baino gizonezkoetan dute eragin handiagoa hilkortasunaren arrazoi nagusi guztiek, baina batez ere motordun ibilgailuen trafiko-istripuek eragindako hilkortasun-tasetan agertzen dira alderik handienak hilkortasun-tasetan (gizonezkoetan, 26,2 heriotza 100.000 gizasemeko eta emakumeetan, 9 heriotza 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko); alde handia agertzen da, halaber, suizidio eta auto-lesioen kasuetan ere (gizonezkoetan, 7,3 heriotza eragiten dituzte 100.000 gizasemeko eta emakumeetan 1,9 heriotza, 15 eta 29 urte bitarteko 100.000 emakumeko).

Horrenbestez, gazteen artean hilkortasunaren arrazoi nagusiak exogenoak dira—ingurune soziokultural eta ekonomikoaren eraginen ondoriozkoak, alegia—eta hauetan bada oraino zer aztertua eta zer erabakia, beren izari kuantitatiboa murrizteko. Adiera horretan, Euskadiko erakunde publikoek eta sozialek trafiko eta osasun alorretako

heziketa-programen eraginkortasuna eta, bide batez, ahaleginak biderkatu beharko lituzkete, 15 eta 29 urte bitarteko gazteek ohikoak dituzten ingurune eta ekipamendu kolektiboetan garatzen diren jardueri dagokiela, batik bat. Esate baterako, bi aholku orokor aipatuko ditugu hemen:

- EAEn bizi diren gazteen osasuna eta bizia bera arriskuan jartzen duten faktore behinenetako bat alkoholaren eta bestelako substantzia adiktiboen eraginpean motordun ibilgailua gidatzea denez, trafiko-alorreko segurtasuna eta ardurazko aisialdi-praktika osasungarriak sustatzeko sentsibilizatzeko eta prebenitzeko kanpainak indartzeko premia berebizikoa da. Kanpaina horiek hezkuntza-zentroetan ez ezik, gizataldeak biltzen diren espazioetan ere jarri behar dira martxan (kirol ekipamenduetan, espazio kulturaletan, gazte jendea jasotzen duten taberna, pub, diskoteka eta antzekoak dituzten kaleetan, etab.).
- Suizidioa eta auto-lesioen prebentzioa eta informazioa hedatzeko kanpainak eta egintzak 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean inplementatzea. Jarduera eta egintza horiek ez dute kasuan kasukoak izan behar, programa jarraituak baizik, arreta psikologikoari buruzko aholkularitza emanez, ikastegietan ez ezik, gazteek ohikoak dituzten ekipamendu kolektiboetan ere orientazio-egintzak praktikan jarriko dituztenak.

BIBLIOGRAFIA

- BRAÑAS FERNANDEZ, Pilar. "La juventud y los comportamientos de riesgo para la salud". *Revista de Estudios de Juventud* nº 55. Madrid: INJUVE.
- OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIOI SAILA: Ekonomia eta Plangintza zuzendaritza. *El envejecimiento de la población vasca: sus consecuencias económicas y sociales*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005.
- CÁRCELES BREIS, Javier. "El reto de los servicios de educación en el nuevo orden demográfico". *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*. Vitoria-Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2005.
- CAMACHO, Javier y TRABADA, Elías. *La inserción socio-laboral de los inmigrantes extranjeros residentes en Usera y Villaverde*. Madrid: Asociación Proyecto San Fermin y D^o G^a de Servicios Sociales de la Comunidad de Madrid, 2001.
- DIEZMA, Juan Carlos. "Promoción de la salud y prevención de enfermedades sexuales". *Revista de Estudios de Juventud* nº 55. Madrid: INJUVE.
- ESPING-ANDERSEN, Gosta. *Fundamentos sociales de las economías postindustriales*. Barcelona: Editorial Ariel, 2000.
- GIL CALVO, Enrique. "Emancipación tardía y estrategia familiar". *Revista de Estudios de Juventud*, nº 58, INJUVE.
- GIDDENS, Anthony. *Sociología*. Madrid: Alianza Universidad Textos, 1993.
- GINER, Salvador, et al. *Diccionario de Sociología*. Madrid: Alianza Editorial, 1998.
- GRANDE ESTEBAN, Ildefonso. "Influencia del cambio demográfico sobre la estructura del consumo, ahorro y endeudamiento de los hogares". *La evolución*

demográfica: impacto en el sistema económico y social. Vitoria-Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2005.

- INGLEHART, Ronald. *El cambio cultural en las sociedades industriales avanzadas*. Madril: CIS y Siglo XXI, 1991.
- IKUSPEGI (Observatorio Vasco de Inmigración-Inmigratioaren Euskal Behatokia). *Percepciones, valores y actitudes de la población vasca hacia la inmigración extranjera*. EAE: Eusko Jaurlaritzza, Etxebizitza eta Gizarte gaietako saila; Euskal Herriko Unibertsitatea, 2004ko Abendua.
- MORAL SATIN, J. et al. *Crecimiento económico y crisis estructural en España (1959-1980)*. Madril: Akal Textos, 1981.
- GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. *Tendencias de la Juventud 2006*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia= Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006ko Ekaina.
- PUYOL ANTOLÍN, Rafael. "La inmigración española: ¿ solución demográfica o económica?". *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*. Vitoria-Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2005.
- PRIETO, Carlos. *Trabajadores y condiciones de trabajo*. Madril: Ediciones HOAC, 1994.
- RAMIREZ, E. *Inmigrantes en España: vidas y experiencias*. Madril: CIS, 1996.
- SARRIBLE, Graciela y MARTINEZ, Javier. *La población europea*. Madril: Editorial Síntesis, 2002.
- SALBIDEA PICAVEA, Pedro. "La población del País Vasco: pasado, presente y futuro". *Lurralde* 16 zk. GEBA, 1993.
- SAN VICENTE ALFAMBRA, Javier. "Claves demográficas de la CAPV". *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*. Vitoria Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2005.

- TORNOS CUBILLO, Andrés. "El papel de la inmigración económica en las sociedades avanzadas". *La evolución demográfica: impacto en el sistema económico y social*. Vitoria- Gasteiz: Federación de Cajas de Ahorros Vasco-Navarras, 2005.